

Prebentzio-baliabidearen gidaliburua eta beste lan-zaintza batzuk



INSTITUTO DE
SEGURIDADE E SAÚDE
LABORAL DE GALICIA



INSTITUTO ASTURIANO DE PREVENCIÓN
DE RIESGOS LABORALES



Instituto Cantabro
DE SEGURIDAD Y SALUD EN EL TRABAJO



OSALAN
Laneako Segurtasun eta
Ogasunerako Euskaiki Erakundea
Instituto Vasco de
Seguridad y Salud Laborales

Prebentzio-baliabidearen gidaliburua eta beste lan-zaintza batzuk



Barakaldo, 2025

Lan honen bibliografia-erregistroa OSALANeko Liburutegiaren katalogoan aurki daiteke:
https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024

Un registro bibliográfico desta obra pode consultarse no catalogo da biblioteca de OSALAN:
https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024

Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la Biblioteca de OSALAN:
https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024

A catalogue record of this book is available in the catalogue of the Library of OSALAN:
https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024

Izenburua:	Prebentzio-baliabidearen gidaliburua eta beste lan-zaintza batzuk.
Argitaraldia:	1.a. 2025eko apirila
Ale-kopurua:	15 ale.
©	ISSGA - Instituto de Seguridad e Saúde Laboral de Galicia IAPRL - Instituto Asturiano de Prevención de Riesgos Laborales, ICASST - Instituto Cántabro de Seguridad y Salud en el Trabajo, OSALAN – Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea.
Argitaratzailea:	OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea. Dinamita Bidea z.g. - 48903 Barakaldo (Bizkaia).
Internet:	www.osalan.euskadi.eus
Egileak:	Héctor González Novoa (ISSGA); Ángel López Álvarez (ISSGA); Javier Benito Ávila (IAPRL); Fernando Javier Rodríguez Puertas (ICASST); Alberto Alonso Vivar (OSALAN)
Fotokonposizioa eta inprimaketa:	Fotocomposición IPAR, S. Coop. Zurbaran kalea 2-4 - behea. 48007 Bilbao (Bizkaia).
ISBN:	978-84-19165-27-5
e-ISBN:	978-84-19165-28-2
Lege-gordailua:	LG BI 01713-2024

Aurkezpena

Asturiasko (IAPRL), Kantabriako (ICASST), Galiziako (ISSGA) eta Euskal Autonomia Erkidegoko (OSALAN) Laneko Segurtasun eta Osasunerako institutuek urteak daramatzagu laneko arriskuen prebentzioaren arloko jarduerak garatzen, gure autonomia-erkidegoetako enpresaburuen eta langileen mesedetan. Baina, era berean, badakigu aurre egiten diegun errealitate asko komunak direla, eta, beraz, lankidetza eta ahaleginak batzea beharrezkoa dela, are gehiago bizi garen une honetan. Izan ere, eskura dauden baliabideak ahalik eta gehien aprobetxatu behar dira, eta jarduerarako eta -sektore guztietan elkarrekin lan egitean sortzen diren baturak eta sinergiak lehenetsi behar dira.

Idea horrekin, gure artean lankidetza-esparru egonkor bat sortzea erabaki genuen bere garaian, CANO Taldea deitu geniona, Kantauriko ipar-mendebaldeari erreferentzia egiteko. CANO gure institutueta mediku eta teknikarien diziplina anitzeko talde batek osatzen zuen, eta bere lanaren ondorioz sortu zen, besteak beste, Arrantza Sektorean Osasuna Zaintzeko Gida.

Illo horri jarraituz, orain Prebentzio-baliabidearen eskuliburua aurkeztu nahi dizuegu. Eskuliburuaren helburua da prebentzio-baliabideek laneko segurtasunaren kudeaketan betetzen dituzten funtzioei, zereginari, irismenari, erregulazioari eta erantzukizunei buruzko gida argia eta eskuragarria eskaintzea.

Prebentzio-baliabidea lan-giro segurua eta osasungarria bermatu ahal izateko funtsezko tresna dela uste dugu. Beraz, prebentzioaren arloko legeria modu eraginkorrean aplikatzea ezinbestekoa da azken helburua lortzeko, hau da, laneko arriskuak jatorrian murriztea eta desagerraraztea lortzeko, eta horrek berekin dakar legeria sakon ezagutzea. Are gehiago kontuan hartuta Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legeak eta lege horretatik

eratorritako arauak enpresa, erakunde, lantoki eta zeregin ugari hartzen dituztela, eta, ondorioz, arauak, edozein diziplinatan gertatzen den bezala, hutsuneak izan ditzaketela.

Prebentzio-baliabidearen kasuan, hutsune horiek ugaritu ere egin daitezke; izan ere, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko araudian askotan aipatzen den figura izanik, paradoxikoki, haren definizioa ez da jasotzen hura osatzen duten arauetako batean ere. Ondorioz, beharrezkoa da arau horiek guztiak irakurri, ordenatu eta erlazionatzea, prebentzio-baliabidearen figura hori zer den osorik eta osotasunean ulertu ahal izateko.

Figura horri buruzko guztia laburtzeko ahalegina iraganean ere egin izan da, eta lehen ahalegin hori (oso garrantzitsua bere garaian) oinarri izan da dokumentu honetarako. Orain, prebentzio-baliabidearen eskuliburuan aplikazio praktikoarekin lotutako problematika guztia bildu nahi izan dugu. Galizia, Asturias, Kantabria eta Euskal Autonomia Erkidegoko Laneko Segurtasun eta Osasunerako institutuek ekimen honi ekin diogu, langileen osasunaren eta ongizatearen alde lan egiten duten pertsona guztientzat baliabide baliotsua izan dadin, lanean diharduten eremua edozein dela ere.



Adela Quinzá-Torroja García
Instituto de Seguridade e Saúde Laboral de Galicia
(ISSGA) - gerentea

Miriam Hernández Fernández
Instituto Asturiano de Prevención de Riesgos Laborales
(IAPRL) - zuzendaria



Ana María González Pescador
Instituto Cántabro de Seguridad y Salud en el Trabajo
(ICASST) - zuzendaria

Lourdes Íscar Reina
OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal
Erakundea - zuzendari nagusia



Aurkibidea

1. Zer da prebentzio-baliabidea?	11
2. Noiz behar dira prebentzio-baliabideak?	13
2.1. Kasu orokorrak	13
2.2. Kasu espezifikoak	18
2.3. Prebentzio-baliabideez bestelako figurak noiz behar diren	21
3. Nork izendatu behar du prebentzio-baliabidea, lantoki batean enpresaburu batek baino gehiagok jarduten badute?	23
3.1. Kasu orokorrak	23
3.1.1. Ondo ondo eragiketak	24
3.1.2. Aldibereko jarduerak	25
3.2. Eraikuntza-sektorea	25
3.2.1. Jardueren zaintza-, kontrol- eta jarraipen-funtzioak dituzten azpikontratastaren beste prebentzio-figura batzuk	26
3.2.2. Langile autonomoekin zuzeneko kontratuak egiten dituen sustatzailea	26
4. Prebentzio-baliabidea izendatzeari buruzko alderdiak	29
4.1. Nork jardun dezake prebentzio-baliabide gisa?	29
4.2. Izendapena edo esleipena onartzeko betebeharra	30
4.3. Prebentzio-baliabide bat eta ohiko prebentzio-jardueran kontratatuta dagoenaz bestelako prebentzio-zerbitzu bat hitzartzea bateragarria izatea	31
4.4. Lantokian behar den prebentzio-baliabide kopurua	31

5. Prebentzio-baliabidearen eta beste figura batzuen arteko bateragarritasuna	33
5.1. Prebentzio-baliabidearen eta prebentzio-jardueren koordinatzailearen arteko bateragarritasuna	33
5.2. Eraikuntza-obrak gauzatzeko faseko prebentzio-baliabidearen eta segurtasun- eta osasun-arloetako koordinatzailearen arteko bateragarritasuna	34
5.3. Prebentzio-baliabidearen eta prebentzioaren arloko ordezkariaren arteko bateragarritasuna	35
5.4. Prebentzio-baliabidearen eta langile autonomoaren arteko bateragarritasuna	36
5.5. Prebentzio-baliabidearen eta beste zaintza-figura batzuen arteko bateragarritasuna	36
6. Prebentzio-baliabidearen prebentzio-gaikuntza eta -prestakuntza	37
7. Prebentzio-baliabidearen funtzioak, ahalmenak eta bermeak	41
7.1. Prebentzio-baliabidearen funtzioak	41
7.2. Prebentzio-baliabidearen ahalmenak	41
7.3. Funtzioak bete ahal izateko alde zurretiko eskakizunak	42
7.4. Prebentzio-baliabideak lana geldiaraztea	43
7.5. Prebentzio-baliabidearen bermeak	43
7.6. Non jarri behar duen prebentzio-baliabideak, bere lana egiteko	45
7.7. Prebentzio-baliabidearen lanen eta beste funtzio batzuen arteko bateragarritasuna	46
8. Prebentzio-baliabidearen kudeaketa-dokumentuak eta erregistroak	47
9. Erantzukizunak	51
9.1. Prebentzio-baliabidearen erantzukizunak	51
9.2. Enpresaburuak lan-arloan dituen erantzukizunak, prebentzio-baliabideari dagokionez	51
Eranskinak	55
I. eranskina. Prebentzio-baliabidea eta beste lan-zaintza batzuk egoteko premia eragin dezaketen jardueren, prozesuen eta eragiketen zerrenda amaitu gabea	57
II. eranskina. Prebentzio-baliabidea esleitzeko aktaren eredua	61

III. eranskina. Prebentzio-baliabidea esleitzea eskatzen duten jardueren laburpen-laukiaren eredua	65
IV. eranskina. Prebentzio-baliabidea eskatzen duen egoeraren zaintza-erregistroaren eredua	67
V. eranskina. Lege-erreferentzien eta erreferentzia interesgarrien zerrenda amaitu gabea	69
Prebentzio-baliabideari emateko informazio-fitxak	71
Arauen eranskina	79

1. Zer da prebentzio-baliabidea?

Gaur egungo legeetan ez da zehazten prebentzio-baliabidea zer den. Hala ere, hauxe jasotzen da: **enpresaburuak presentzia esleitu ahal izango die** pertsona bati edo batzuei, baldin eta behar bezalako prestakuntza eta gaitasuna badituzte, behar diren bitartekoekin batera, eta bitarteko horiek behar bezalakoak badira prebentzio-jarduerak betetzen diren zaintzeko. Horrenbestez, **prebentzio-baliabidetzat** hartzen dira enpresaburuak funtzio horiek betetzeko izendatzen dituen pertsonak.

Presentzia prebentzio-neurri osagarri bat da, eta prebentzio-jarduerak behar bezala betetzen diren zaintzea du helburu, horien premia zehazten duen egoeratik eratorritako arriskuekin lotuta eta arrisku horien kontrol egokia lortu ahal izateko.

Zaintza horren barne plangintzan aurreikusitako prebentzio-jardueren eraginkortasuna egiaztatuko da, baita jarduera horiek aurreikusi nahi diren arriskuekin bat datozen edo aurreikusi gabeko arriskuen agerpenarekin bat datozen ere, prebentzio-baliabideak behar izatea zehazten duen egoeratik eratorri direnean.

Dena den, enpresaburua da langileen segurtasuna eta osasuna bermatzeko behar diren prebentzio-neurriak hartu behar dituen. Prebentzio-baliabidea izendatzeak eta bertan egoteak ez du eragozten edo ordeztan Lan Arriskuen Prebentzio Legearen 14.1 artikulua aipatzen duen babes-betebeharra. Beraz, enpresaburuaren beste neurri bat da prebentzio-baliabidea, eta ezin izango da erabili nahitaezko babes-neurriak ordeztzeko, aitzakiatzat hartuta beharrezkoa dela jarduera gainbegiratu eta kontrolatzea.

Prebentzio-baliabide batek ez du ahalmenik ematen legeek edo arriskuen ebaluazioak debekatzen dituzten lanak egiteko.

2. Noiz behar dira prebentzio-baliabideak?

Artikulu eta eranskin hauetan adierazten da zein kasutan behar diren prebentzio-baliabideak:

1. Orokorrak:
 - Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 32 bis 1 artikulua.
 - Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduaren 22 bis artikulua.
2. Espezifikoak:
 - 1627/1997 Errege Dekretuaren II. eranskina.

Dokumentu honetako I. eranskinean jaso dira adierazitako kasuak.

2.1. Kasu orokorrak

Orokorrean, kasu hauetan lantokian prebentzio-baliabideak behar dira, baliabide horiek antolatzeko modalitatea edozein izanda ere:

- a) *Lan-metodoak egoki aplikatzen direla kontrolatu behar den aldibereko edo ondoz ondoko eragiketak direla-eta prozesuan edo jardueran arriskuak larritu edo aldatzen direnean.* [LAPLren 32 bis artikulua 1 a), eta Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduaren 22 bis artikulua 1 a)].

54/2003 Legearen zioen azalpenean ezartzen da haxe dela kasu horren oinarria:

Legeak ez ditu aipatzen ondoz ondoko edo aldibereko eragiketak batera biltzen dituzten kasuak, baizik eta lan-metodoak aplikatzeko moduaren kontrol espezifikoaren premia sortzen dutenak. Izan ere, metodo horiek modu desegokian aplikatzen badira, baliteke arriskua larriagotzea edo aldatzea. Horretarako, prebentzio-baliabideak behar dira, lan-metodoak zorrotz betetzen diren bermatzeko eta, horrela, arriskua kontrolatzeko.

Horrenbestez, eskakizun hauek bete behar dira, kasu hori aplikatu ahal izateko:

1. Aldibereko edo ondoz ondoko eragiketak edo jarduerak izatea.
2. Horien ondorioz, arriskuak larriagotzeko edo aldatzeko aukera egotea.
3. Lan-metodoak ongi aplikatzen diren kontrolatu behar izatea.

Edonola ere, lan-arriskuen hasierako edo ondorengo ebaluazioan behar bezala identifikatuko dira ondoz ondoko edo aldibereko eragiketen eraginez larriagotu edo alda daitezkeen arriskuak (39/1997 Errege Dekretuaren 22. bis artikulua 2. zenbakiko 1. paragrafoa).

b) *Erregelamenduen arabera, arrikutsuak diren edo arrisku bereziak dituzten prozesuak edo jarduerak egiten direnean.* [LAPLren 32 bis 1b) eta 39/1997 Errege Dekretuaren 22 bis 1 b)].

1. Jardueraren ezaugarriengatik, aplikatutako prozedurengatik edo lanpostuaren inguruneagatik toki garai batetik erortzeko arrisku larria sortzen duten lanak

Prebentzio-baliabide bat eskatzen duten lanen adibide gisan erabiltzen den «toki garai batetik erortzeko arrisku larria sortzen duten lanak» esaldiari buruzko ohar bat egin behar da, horrek ez baitu esan nahi garaierako edozein arriskuk (bi metrotik gorako arrisku orok) prebentzio-baliabide baten presentzia eragiten duenik. Hala balitz, legegileak «toki garai batetik erortzeko arrisku larria sortzen duten lanak» esamoldearen ordeztu, «garaiera-arriskua» esamoldea erabiliko zukeen.

Arau hori interpretatzeko abiapuntua Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionalaren Eraikuntzako Obrei buruzko Arriskuak Ebaluatzeko eta Prebenitzeko Gida Teknikoan dugu. Gida hori loteslea ez bada ere, 1627/1997 Errege Dekretuaren 2.1.b) artikulua aipatzen duen «larritasun bereziko arriskutzat» hartu

behar denari buruzko iruzkin bat jasotzen du. Artikulu horretan errege-dekretu horren II. eranskina aipatzen da, bertan biltzen baita larritasun bereziko garaiera-arriskua. Horiek horrela,

...lan bat 2.1.b) apartatuan sartuta dagoela joko da prebentzio-printzipioak aplikatu ondoren arriskuak larritasun berezia izaten jarraitzen duenean eta, hartara, prebentzio-neurri gehigarriak hartu behar direnean (bereziki, babes kolektiboko edo indibidualen neurriak), langileak kalte larria jasateko aukera saihesteko edo minimizatzeko. Lan bat II. eranskinean jasota ez egoteak ez du esan nahi lan horrek ezin dienik eragin arrisku bereziki larririk lan hori egiten duten langileei. Arriskuen ebaluazioaren bidez eskuratuko da horren gaineko erabaki bat hartzeko behar den informazioa.

Hauek izan daitezke baliabide horren premia sor dezaketen lan batzuk, arrisku bereziak eragiten dituztelako:

- korden bitartez, leku batera sartzeko eta bertan kokatzeko teknika bereziak erabiltzen dituzten lanak;
- aldamioak edo segurtasun-sareak muntatzeko eta desmuntatzeko lanak;
- 6 metrotik gorako garaieran egiten diren lanak;
- 6 metro baino gutxiagoko garaieran egiten diren lanak, zeinetan ezinbestekoa baita arrisku horren aurka norbera babesteko ekipamendua erabiltzea, langilearen babesa guztiz bermatzeko.

Zehazki, bi metro baino gehixeagoko garaieran egindako lanetan, baldin eta aldibereko edo ondoz ondoko beste eragiketa batzuek arriskua aldatu badezakete eta lan-metodoak behar bezala aplikatzen diren kontrolatzea beharrezkoa bada, kasu horietan Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduaren 22 bis 1 artikuluko a) letran jasotako egoera horretan geundeke.

Kasu horiek erreferentziatzat har daitezke prebentzio-baliabideen beharra antzeko eragiketetan edo jardueretan aztertzeko.

2. Lurperatuta geratzeko edo hondoratzeko arrisku handia sortzen duten lanak. Hauek dira arriskuak eragin ditzaketen jardueren adibideak: zangak egiteko lanak, ezpondak egonkortzea, harri-lubetak eraikitzea, eraikinak eraistea, lurrak mugitzea eta abar.
3. CE adierazpenik gabeko makinak erabilera behar duten jarduerak, makinak ezaugarri hori derrigorrezkoa izan baino lehen merkaturatu zirelako, baldin eta makinak merkaturatzeko araudian hala eskatuta

makinen ziurtatze-prozeduran jakinarazitako organismo baten esku-hartzea beharrezkoa duten makinen mota berekoak badira, eta baldin eta, behar diren neurriak hartu arren, langilearen segurtasuna behar bezala bermaturik ez badago.

Indargabetutako 1435/92 Errege Dekretuaren eta 1644/2008 Errege Dekretuaren IV. eranskinean makinen adibide batzuk aipatzen dira, zeinetan egoera hori osa daitekeen; hargatik eragotzi gabe duela gutxi argitaratu den Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2023ko ekainaren 14ko 2023/1230 Erregelamendua (EB) aplikatzea, zeina makinei buruzkoa baita. Erregelamendu horrek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006/42/EE Zuzentaraua eta Kontseiluaren 73/361/EEE Zuzentaraua indargabetzen ditu.

4. Esparru itxietan egin behar diren lanak. Ondore horietarako, gune itxiztat hartzen da hara sartzeko eta irteteko irekigune mugatuko toki bat, non aireztapen naturala murrizta baita eta ondorioz kutsatzaile toxikoak edo sukoiak pilatu edo oxigeno urriko atmosfera osatu baitaiteke eta, beraz, ez baitago pentsatuta langileak bertan luzaroan egoteko.

Saneamendu-sareak, putzuak, gordailuak, sotoetako eta itsasontzien sentinak mantentzeko lanek, adibidez, arrisku hori sortzen dute.

5. Urperatzeagatik itotzeko arriskua duten lanek ere arrisku hori sortzen dute, 39/1997 Errege Dekretuaren 22 bis artikuluen 8.a) apartatuan (urpeko ekipoekin urperatzeko lanei buruzkoa) xedatutakoa izan ezik. Hona hemen urpeko ekipamendurik gabe murgiltzeagatik itotzeko arriskua eragiten duten jardueren adibideak: igerileku, depositu, putzu, ibai edo itsasoan, ur-ertzean edo ur-gaiean egiten diren eragiketak, uretara erortzeko arriskua eragiten duten heinean.

Urpeko ekipamenduekin urperatzeko lanei dagokienez, ikusi dokumentu honen 2.3 apartatua, prebentzio-baliabideez bestelako «zaintza-figurak» eskatzen dituzten jarduera batzuen adibideak ikusteko. Hori lagungarria izango da zenbait jardueratan prebentzio-baliabideak esleitzeko salbuespenak ulertzeko.

Azpimarratzekoa da 39/1997 Errege Dekretuak, bai artikuluetan, bai hamaikagarren eta hamabigarren xedapen gehigarrietan, I. eranskina baliatzen duela enpresa baten prebentzio-modalitatea zehazteko, auditorien nahitaezotasuna zehazteko eta arrisku bereziko lanak deskribatzeko. Hori baliagarria da jarduerak koordinatzeko, bai eta Lan-arloko Arau-hausteei eta Zehapenei buruzko Legearen arabera zehapen astunak erabakitzeke.

Hori horrela bada ere, **ez da atal batean ere** ezartzen I. eranskin horretan zerrendatutako jarduerak nahitaez prebentzio-baliabidea izan behar dutenik.

- c) *Detektatutako lan-baldintzak direla-eta, egoerak eta Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzak hala agintzen dutenean.*

Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzak, bere 83/2010 Irizpide Teknikoaren arabera, lantokian prebentzio-baliabideak egotea eskatu ahal izango du, baldin eta ikuskapen-bisita bat egin ondoren eta bildutako informazio guztia ikusita, uste badu enpresaburuak jarduera, prozesu edo eragiketa batean hartu dituen prebentzio-neurriak **ez direla nahikoak edo egokiak** LAPLren 15. artikuluan ezarritako prebentzio-ekintzaren printzipioak koherentziaz eta arduraz aplikatzeko, eta neurri horiek ezin badira berehala hartu. Kasu horretan enpresari eskatu ahalko zaio jarduera horietan prebentzio-baliabide bat aldi baterako ezartzeko, enpresa horrek prebentzio-neurriak emandako epean zuzentzen dituen bitartean, betiere langileentzako arrisku larri eta hur-hurrekorik ez badago; hala izango balitz, lanak geldiarazi beharko lirateke.

Irizpide horri jarraituta, prebentzio-baliabideen presentzia noizbehinkako edo salbuespenezko jardueretan ere beharrezkoa izan liteke, baldin eta pentsatzen bada arrisku guztien kontrol absoluturik ez dagoela.

Nolanahi ere, prebentzio-baliabide baten presentzia ezin da aukerako neurri iraunkortzat hartu, kasu bakoitzean enpresak prebentzio- eta babes-neurri egokiak hartzeko duen betebeharra ordeztzeko.

Aipatutako 83/2010 Irizpide Teknikoaren arabera, prebentzio-baliabideak izatea ere eskatu ahal izango da jardueraren arrisku espezifikoak larriagoak izan daitezkeenean edota langile horien edo hirugarrenen segurtasuna eta osasuna arriskuan egon daitezkeenean, langileen ezaugarriengatik edo bete behar duten lanpostuan eskarmenturik ez izateagatik:

- a) langileak 18 urtetik beherakoak direnean;
- b) langileak bereziki sentiberak direnean;
- c) trebakuntzaren hasierako fasean sartu berri diren langileak direnean, enpresako langileak zein aldi baterako laneko enpresakoak direnean.

Nolanahi ere, eskakizun hori betetzea nahitaezkoa izango da enpresaren jarduerari aplikatu dakioken berariazko araudia dagoenean, eta aztertutako betebeharren izaera bereko edo antzeko betebeharrak ezartzen dituenen.

2.2. Kasu espezifikoak

2.2.1. Eraikuntza-laneko kasuak

Oro har, araudiaren arabera, arrisku-jarduera egiten duen enpresaburuak dauka prebentzio-baliabideak izendatzeko betebeharra. Eraikuntzaren eremuan, berriz, betebeharrak hori **kontratistatzat hartutako pertsonarena** da. Horrela, 31/1995 Legearen hamalagarren xedapen gehigarriaren 1.a puntuak jasotzen du prebentzio-baliabideen nahitaezko presentzia «kontratista bakoitzari» aplikatuko zaiola.

Kontratistari dagokionez, kontuan hartu behar da 1627/1997 Errege Dekretuaren 2.1.h) artikuluan ezarritako definizioa (eraikuntza-sektoreko azpikontratazioa arautzen duen urriaren 18ko 32/2006 Legearen 3. e) artikuluan jasotako definizioarekin bat dator). Hauxe da:

pertsona fisiko edo juridikoa, sustatzailearen aurrean kontratu bidez konpromisoa hartzen duena bere edo besteren giza baliabideez eta baliabide materialez baliatuz obra osoa edo obraren zati bat egiteko proiektuari eta kontratuari jarraituz.

Aurrekoaren arabera, enpresa bat prebentzio-baliabide bat izendatzera behartuta egon dadin, beharrezkoa da kontratista gisa jardutea, hau da, sustatzailearekin zuzenean kontratatzen duen pertsona izatea. Hala ere, besteak beste, hauek ere kontratatatzat hartzen dira, eta aurreko betebeharrak horren eraginpean daude:

- a) Sustatzailea, bere giza baliabide eta baliabide materialekin obraren zati guztiak edo batzuk zuzenean egiten dituenak [32/2006 Legearen 3 e) 2 artikulua]; hau da, enpresa berean sustatzaile eta kontratista lanak pertsona berak egiten dituenak. Kasu horretan azpikontratistatzat hartuko litzateke kontratista sustatzailearekin kontratua egiten duen enpresa, kontratatzailea izan beharrean.
- b) Obraren besteren konturako langileak enplegatzen dituen eta sustatzailearekin zuzenean kontratatzen duen langile autonomoa.
- c) Sustatzailearekin zuzenean kontratatzen duen aldi baterako enpresa-elkarteak, zeinak obra zuzenean egiten baitu. Aldi baterako enpresa-elkarteak obra zuzenean egiten ez badu, enpresa kide bakoitzak prebentzio-baliabide bat izendatu beharko du. Obra gauzatzeak esan nahi du obra horretan langile propioek lan egitea.

1627/1997 Errege Dekretuaren Xedapen Gehigarri Bakarrak adierazten du segurtasun- eta osasun-planak zehaztuko duela prebentzio-baliabideen

presentzia gauzatzeko modua. Izan ere, segurtasun- eta osasun-plana arriskuak identifikatzeko eta, hala badagokio, ebaluatzeko jarduerak antolatzeke eta prebentzio-jarduera planifikatzeko oinarritzeko tresna da, obrako lanpostuei dagokienez. Bestela esanda, segurtasun- eta osasun-planak zehaztu beharko du zer arriskutan ezarri behar den prebentzio-baliabidearen presentzia, bai eta haren funtzioak ere, hizpide dugun kasuari dagokienez.

Aurrekoak azpimarratzen du jarduera horien kontrola eta neurri zuzentzaileak ezin direla enpresa azpikontratisten esku utzi. 1627/1997 Errege Dekretuaren 7. artikulua arabera, enpresa kontratistari dagokio obraren segurtasun-plana egitea, eta ezin zaie azpikontratistei egotzi haien eraginkortasuna baloratzeko eta, hala badagokio, neurri zuzentzaileak sartzeko funtzioa. Edonola ere, prebentzio-baliabideak ez du izango planeko prebentzio-neurri guztiak gainbegiratzeko betebeharra (alderdi hori aurrerago, funtzioei buruzko 4. apartatuan, jorratuko da), baizik eta planak berak zehazten dituenak soilik.

Kontratistak prebentzio-baliabidea izateak ez du eragozten obrako enpresa kontratistek eta azpikontratistek beste prebentzio-figura batzuk ezartzea figura horien bidez obrako jarduerak zaintzako, kontrolatzeko eta haien jarraipena egiteko. Figura horiek segurtasun- eta osasun-plan orokorrean jaso daitezke, eta nahasketarik ez sortzeko, prebentzio-baliabide esan behar zaie (ikus 3.2.1 apartatua).

Badirudi argi dagoela akats bat dagoela 31/1995 Legearen *Hamalagarren Xedapen Gehigarrian*: «*Lege honen 32bis artikulua 1. idatz-zatiko a) paragrafoan jasotako egoeran, kontratari bakoitzaren prebentzio-baliabideak egotea beharrezkoa izango da, obrak iraun bitartean, arrisku bereziko lanak gauzatzen direnean, aipatu errege-dekretuan zehaztutakoaren arabera.*». Xedapen gehigarri horretan a) letraren ordeztu, b) letra jorratzen da. Izan ere, b) letra da haxe aipatzen duen bakarra: «*Erregelamenduen arabera arriskutsu diren edo arrisku bereziak dituzten prozesuak edo jarduerak*». Nolanahi ere, 1627/1997 Errege Dekretuan erreferentzia egiten zaie 2.1 b) artikuluari eta II. eranskinari. Eranskinean jaso da arrisku bereziak eragiten dituzten lanen zerrenda, erabat osoa izan ez arren.

Aipatutako hamalagarren xedapen gehigarriaren arabera, prebentzio-baliabideen presentzia nahitaezkoa izango da 1627/1997 Errege Dekretuaren II. Eranskinean ezarritako arrisku bereziko lanak egiten direnean (*Langileen segurtasun eta osasunerako arrisku bereziak dakartzaten lanen zerrenda osatu gabea*) edo arriskuak larriagotu edo aldatu daitezkeenean, ondoz ondoko edo aldi berean egiten diren hainbat eragiketarik:

1. Arrisku hauek sortzen dituzten lanak:

- lurperatzea,
- hondoratzea,
- toki garai batetik erortzea.

jardueraren ezaugarriak, aplikatutako prozedurak edo lanpostuaren ingurunea direla-eta.

2. Agente kimikoen edo biologikoen eraginpean lan egitea eskatzen duten lanak, baldin eta arrisku handia sortzen badute, edo, legeak aginduta, lan horietan langileen osasuna berariaz zaindu behar bada (adibidez, amiantoa dagoen lantokietan).
3. Erradiazio ionizatzaileen eraginpean lan egitea dakarten lanak, baldin eta eremu kontrolatuak edo zainduak mugatzeko betebeharra ezartzen badu berariazko araudiak.
4. Goi-tentsioko linea elektrikoetatik gertu egin behar diren lanak.
5. Urperatzearen ondorioz itozteko arriskua dakarten lanak.
6. Tunelak eta putzuak hondeatzeko lanak eta lurpeko lurrak mugitzeko bestelako lanak.
7. Urpeko ekipamenduekin urpean egiten diren lanak.
8. Aire konprimatuko kutxetan egiten diren lanak.
9. Lehergaiak darabiltzaten lanak.
10. Elementu prefabrikatu astunak muntatzeko eta desmuntatzeko lanak.

Lan bat II. eranskinean jasota ez egoteak ez du esan nahi lan horrek ezin dienik eragin arrisku bereziki larririk lan hori egiten duten langileei. *Arriskuen ebaluazioaren bidez* eskuratuko da horren gaineko erabaki bat hartzeko behar den informazioa.

Azpimarratu behar da II. eranskin honetan zerrendatutako jardueretako batzuk bat datozela 39/1997 Errege Dekretuaren 22. bis.8 artikuluan ezarritakoekin. Jarduera horietarako, kontuan hartu behar da bai eskuliburu honetako 3.2 apartatuan adierazitakoa (eraikuntzaren sektorean prebentzio-baliabidea nork izendatu behar duen) baita 2.3 atalean adierazitakoa ere (prebentzio-baliabideez bestelako figurak noiz behar diren).

Ikusi dokumentu honetako I. eranskina.

2.3. Prebentzio-baliabideez bestelako figurak noiz behar diren

Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduaren 22 bis artikulua 8. apartatuaren arabera, jarduera, prozesu, eragiketa, lan, ekipo edo produktu jakin batzuek **prebentzio-xedapen espezifikoak dituzte, eta beren baldintzetan aplikatuko dira.** Hona hemen jarduera edo lan horietako batzuk:

- a) Urpeko ekipoarekin egin behar diren lanak.
- b) Erradiazio ionizatzaileen eraginpean egotea ekartzen duten lanak.
- c) Aire konprimatuko kutxetan egiten diren lanak.
- d) Atmosfera leherkorren presentzia dela-eta leherketak izateko arriskua duten lanak.
- e) Lehergaiak –artikulu piroteknikoak eta lehergaiak dituzten beste gauza edo erreminta batzuk barne– manipulatzeko, garraiatzeko eta erabiltzeko diren jarduerak.
- f) Arrisku elektrikoak dituzten lanak.

Esan bezala, lehen aipatutako jarduera guztiak araudi espezifikoaren eraginpean daude. Araudi horretan, egindako lanak zaintzeko edota kontrolatzeko eskumenak dituzten figurak definitzen dira, baina, azken batean, prebentzio-baliabideez bestelako figurak dira.

Irudi horiek, beren ezaugarriak, prestakuntza eta, batzuetan, eskatzen diren titulu espezifikoak direla-eta, oro har, prebentzio-baliabideek eskatzen dituzten gaitasunak eta izaten dituzten funtzioak gaitzen dituzte, aipatutako xedapen espezifikoek araututako jardueretan dauden arriskuei dagokienez. Beraz, araudia aplikatuta, hori guztia kontuan hartu beharko da figura horiek eta prebentzio-baliabideak aldi berean bil ditzaketen egoeretan, figura horien eta prebentzio-baliabidearen funtzioak koherentziaz aplikatze aldera.

Egoera horren adibide bat izan liteke tentsioan eta 12 metroko garaieran egindako goi-tentsioko eragiketa bat. Gutxienez, prebentzio-baliabide bat (garaieratik erortzeko arrisku berezia) eta langile kualifikatu bat beharko lirateke, idatzizko baimenarekin eta lan-buru baten zaintzapean (arrisku elektriko, 614/2001 Errege Dekretuaren arabera).

Aurreko zerrenda osatugabea aipatzen ez diren «beste» kasu batzuei dagokienez, 396/2006 Errege Dekretuaren 10.1.d artikuluan jasotako figura aplikagarria izango litzateke. Dekretu horren bidez, amiantoaren eraginpean egoteko arriskua duten lanei aplikatu behar zaizkien gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dira. Errege-dekretu horren arabera,

kasu jakin batzuetan beharrezkoa da amiantoaren erabiltzen duten lanetan gainbegirale bat egotea. Zehazki, 10.1 artikuluan haxe ezartzen da:

Jarduera zehatz batzuetarako, hala nola eraisteko, amiantoaren kentzeko, konpontzeko eta mantentzeko lanetarako, *4. artikuluan ezarritako muga-balioa gainditzeko aukera ezartzen bada*, nahiz eta aireko amianto-erakunde mugatzeko prebentzio-neurri teknikoak ere erabili, enpresaburuak ezarriko ditu jarduera horietan langileen babes bermatzeko neurriak; bereziki, hauek:

.../...

d) Lan-prozedurak eta aurreikusitako prebentzio-neurriak behar bezala aplikatzen diren gainbegiratu beharko du jarduera horietarako beharrezkoak diren ezagutzak, kualifikazioa eta esperientzia dituen pertsona batek, eta behintzat oinarritzko mailako funtzioei dagokien prebentzio-prestakuntza duen pertsona batek.

Errege Dekretu horren Gida Teknikoaren 2022ko apirilko bertsioak jasotzen duenez, langile horrek ezagutzak, kualifikazioa eta esperientzia izan behar ditu gainbegiratzeko dituen jardura motetan, eta, behintzat, oinarritzko mailako funtzioei dagokien prebentzio-prestakuntza izan behar du. Gainbegirale horren funtzioak eta betekizunak bat datoz LAPLren 32 bis artikuluan aipatutako prebentzio-baliabideak dituenekin, eta amiantoarekin egiten diren lanak behar bezala egiten diren zaintzeaz arduratuko da.

Jarduera hori 1627/1997 Errege Dekretuaren II. eranskineko 2. apartatuan sartuta dagoenez, RERA enpresak eraikuntza-obra batean azpikontratista gisa jarduten badu (beraz, 396/2006 Errege Dekretuaren 10.1 artikulua arabera, baliteke amianto-lanetarako gainbegirale bat izendatu behar izatea), enpresa kontratista behartuta dago prebentzio-baliabide bat izendatzera (ikus dokumentu honen 2.2.1 apartatua).

Adierazi behar da 396/2006 Errege Dekretuaren Gida Teknikoaren 11.2.L artikuluan jasotako «prebentzio-baliabideak» esamoldea ez dela dokumentu honetan prebentzio-baliabideari buruz jorratu dugunari buruzkoa, gidak hau xedatzen baitu: ... ***enpresaren prebentzio-modalitateari buruzkoak dira, eta ez LAPLren 32 bis artikuluan ezarritako prebentzio-baliabidearen figurari buruzkoak.***

3. Nork izendatu behar du prebentzio-baliabidea, lantoki batean enpresaburu batek baino gehiagok jarduten badute?

3.1. Kasu orokorrak

Ohikoena da lantoki batean enpresa bakar batek jardutea. Horrelako kasuetan enpresa hori arduratuko da prebentzio-baliabidea izendatzeaz.

Askotan gertatzen da, halaber, lantoki berean enpresa batek baino gehiagok parte hartzea. Beraz, jarduerak koordinatzeko kasu baten aurrean gaude, eta horren erregulazioa, nagusiki, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 24. artikulua garatzen duen lantokiko enpresa-jardueren koordinazioari buruzko urtarilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuak zehazten du.

Parte hartzen duten enpresa horien arteko harremana edozein dela ere (espazio fisiko batean batera egotea edo harreman juridiko bat izatea, kontratu-harreman bat izatea eta abar), 39/1997 Errege Dekretuaren 22 bis artikulua 9. apartatuak konponbide hau jasotzen du:

Lantokian artikulua honetako 1.a) letran adierazten diren eragiketak edo 1.b) letran adierazten diren arrisku bereziko jardura edo prozesu arriskutsuak gauzatzen direnean, lantokian prebentzio-baliabideak ezartzea eragiketa edo jardura horiek gauzatzen dituen enpresaren erantzukizuna

izango da; halakoetan eta prebentzio-baliabideak bat baino gehiago direnean, enpresa horiek lankidetzan jardun beharko dute elkarrekin baita gainerako prebentzio-baliabideekin edo lantokiko enpresaburu titullarraren edo nagusiaren prebentzio-jardueren koordinazioaz arduratzen diren pertsonekin ere.

Atal hau honela ulertu behar da: prebentzio-baliabide baten presentzia eragiten duen arriskua zein enpresak sortzen duen, enpresa horrek (edo horiek) bete beharko du (edo dute) betebeharrak. Bestela esanda, beren jarduerak besteen arriskua aldatzen edo larriagotzen duen enpresak bete beharko du (adibidez, objektuak altxatzeko garabi bat erabiltzea eta prebentzio-baliabiderik behar ez duen eta handik hurbil jarduten duen beste enpresa bat egotea). Erregelamenduari 22 bis artikuluan 9. apartatua ezartzen da betebeharrak: ... *Eragiketa edo jardura horiek egiten dituzten enpresei...* dagokiela. Ulertu behar da lan-metodoen kontrola behar duten enpresak direla (22 bis 1.a artikulua). Badirudi «arriskuak sortzen dituzten» edo besteentzat nolabaiteko arriskua eragiten duten jarduerak egiten dituzten enpresei buruz ari dela.

Horrek esan nahi du azpikontratatistak soilik egiten badu 39/1997 Errege Dekretuaren 22 bis artikuluko 1 b) apartatua aurreikusitako lan arriskutsuren bat, hau da, prebentzio-baliabide bat egotea eskatzen duen lan bat (arriskuen ebaluazioan horrela aurreikusita egon behar du), enpresa azpikontratasta hori egongo da (ez kontratasta) baliabide hori izendatzera behartuta. Egoera horren adibide bat garaieratik erortzeko arrisku bereziki larria izan daiteke. Hori guztia LAPLren 24.3 artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe, enpresaburu nagusiaren jarduerari lotutako obren edo zerbitzuen kontratazioan edo azpikontratazioan kontratatistak eta azpikontratatistak duten zaintza-betebeharrak buruz, eta kontratatistaren gainerako betebeharrak aldatu gabe.

Aurreko paragrafoan kontratasta eta azpikontratasta terminoak erabili baditugu ere, eraikuntzaren sektorekoak ez diren jardura ekonomiko orokorrezi ari gara, azken kasu horretan izendapenen tratamendua desberdina baita, aurrerago azalduko dugun bezala.

3.1.1. Ondoz ondoko eragiketak

A enpresa batek «aldibereko eta ondoz ondoko eragiketa» bat egiten duenean, eta eragiketa horrek zentro batean dauden arriskuak aldatu edo larriagotu baditzaie, eta B enpresaren jarduerari eragiten badiu, kasu horretan prebentzio-baliabidea izendatzeko betebeharra B enpresaburuarena

izango da, hark kontrolatu beharko baititu bere lan-metodoak, eta A enpresaburuaren jarduerak lan-metodo horiek aldatuko ditu. Horrek, jakina, informazioa trukatzeari eskatuko du bien artean, bai eta beharrezkoak diren gainerako koordinazio-bitartekoen artean ere; betiere, A enpresarekiko presentzia hori eragiten duen bestelako zirkunstantziarik egon ezean.

Demagun A enpresak produktu kimikoak (pestizidak) erabiltzen dituela, eta horrek B enpresari eragiten diola. B enpresako langileak geroago sartuko direlako.

3.1.2. Aldibereko jarduerak

«Aldibereko jarduerak» egiten dituzten hainbat enpresa daudenean, eta, enpresa bakoitzak egiten dituen jardueren ondorioz, jarduera horien arriskuak aldatu edo larriagotu badaitezke, eta lan-metodo horiek aldi berean kontrolatu behar badira, prebentzio-baliabideak esleitzeko betebeharra eragiketa edo jarduera horiek egiten dituzten enpresa guztiena izango da. Kasu horretan, arauak aurreikusten du prebentzio-baliabide batzuk daudenean elkarrekin eta gainerako prebentzio-baliabideekin lankidetzan jardun beharko dutela.

Horren adibide bat izango litzateke kimika-arloko enpresa bateko enpresa batek produktu edo substantzia kimikoak erabiltzea.

3.2. Eraikuntza-sektorea

39/1997 Errege Dekretuaren 22 bis artikuluen 9. apartatuan ezarritako betebeharra, hau da, eragiketak edo jarduerak egiten dituzten enpresek prebentzio-baliabideak izendatzeari buruzkoa, ez da aplikagarria eraikuntza-obretan. Izan ere, eremu horretako berezitasunak LAPLren Hamalagarren Xedapen Gehigarriaren a) apartatuan jasotzen dira (dokumentu honetako 2.2.1 atalean azaldu dugun bezala), eta horren arabera:

Nahitaez egon behar diren prebentzio-baliabideak *kontratista bakoitzari* aplikatuko zaizkio.

Beraz, eraikuntza-obren eremuan, legegileak berariaz adierazi nahi izan du betebeharrak hori enpresa kontratistek *soilik* aplikatu behar zaiela, eta ez, ordea, azpikontratistek. Ideia hori bat dator Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 14. xedapen gehigarriaren c) letran ezarritakoarekin. Bertan adierazten da hauek direla prebentzio-baliabideen funtzioak: *laneko segurtasun- eta osasun-planean jasotako neurriak betetzen diren zaintzea eta neurri horien eraginkortasuna egiaztatzea.*

3.2.1. Jardueren zaintza-, kontrol- eta jarraipen-funtzioak dituzten azpikontratataren beste prebentzio-figura batzuk

Azpikontratataren prebentzio-antolamenduan oinarrituta, edo alderdien artean sinatutako merkataritza-kontratuan kontratatista hala eskatzen badu, azpikontratataren beste prebentzio-figura batzuk ager daitezke, eta jarduerak zaintzeko, kontrolatzeko edo jarraitzeko funtzioak beren gain hartu ahalko dituzte. Horri buruzko ohar batzuk egin daitezke:

- Prebentzio-figura horiek beharrezkoak izan daitezke, 31/1995 Legea eta 39/1997 Errege Dekretua aplikatzearen ondorioz, prebentzioa obraren eremuko enpresaren kudeaketa-sistema orokorrean txertatu behar delako.
- Azpikontratatista prebentzio-figura horiek izendatzeaz gain, gainerako betebeharrak ere bete beharko ditu; besteak beste, prebentzio-baliabidea izendatzekoa.

Nolanahi ere, 1627/1997 Errege Dekretuaren 11. artikuluko c) apartatuan ezarritakoaren ondorioz, eraikuntza-obra batean prebentzio-baliabidea egoteak ez ditu kontratatista edota azpikontratatista salbuesten LAPLren 24. artikuluan eta 171/2004 Errege Dekretuan ezarritako koordinazio-betebeharrak betetzetik, Errege Dekretu horren 1. xedapen gehigarrian eraikuntza-obretarako jasotako berezitasunak ere aintzat hartuta.

3.2.2. Langile autonomoekin zuzeneko kontratuak egiten dituen sustatzailea

1627/1997 Errege Dekretuaren 2.3 artikuluan hau xedatzen da:

«Sustatzaileak langile autonomoak zuzenean kontratatzen dituenean obra edo obra horretako lan jakin batzuk egiteko, langile horiek kontratista gisa hartuko dira, Errege Dekretu honetan xedatutakoaren ondorioetarako.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez da aplikatuko kontratatutako jarduera familiaburu batek bere etxebizitzarentzat kontrata dezakeen eraikuntza- edo konponketa-lan bat besterik ez denean».

Kasu horretan, beraz, sustatzaile-kontratista izendatuko du prebentzio-baliabidea.

Aurrekoa osatu egin behar da, hala badagokio, Errege Dekretu bereko 2.1.j) artikuluko bigarren paragrafoan ezarritakoarekin:

j) .../...

Langile autonomoak obran besteen konturako langileak erabiltzen ditutenean, kontratista edo azpikontratista izango da, errege-dekretu honen ondorioetarako.

Kasu horretan, sustatzailea jada ez da kontratista, eta besteren konturako langileak dituen langile autonomoak eskuratuko du izaera hori, beraz, hark izendatu beharko du prebentzio-baliabidea.

4. Prebentzio-baliabidea izendatzeari buruzko alderdiak

4.1. Nork jardun dezake prebentzio-baliabide gisa?

LAPLren 32 bis 2 artikulua arabera, prebentzio-baliabidetzat hartzen dira –eta enpresaburuak horretarako izendatu ahal izango ditu– hauek:

- a) Enpresak izendatutako langile bat edo batzuk (Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 30.2 artikuluan aipatzen den figura hartzen da halakotzat).
- b) Enpresako prebentzio-zerbitzuko partaide bat edo batzuk.
- c) Enpresak hitzartutako kanpoko prebentzio-zerbitzuko edo zerbitzuetako partaide bat edo batzuk.

Hala eta guztiz ere, LAPLren 32 bis 4 artikulua arabera, enpresaburuak enpresako langile baten edo batzuen presentzia berariaz **esleitu** dezake, baldin eta langile horiek prebentzio-zerbitzuko kide izan gabe eta izendatutako langileak izan gabe, zaindu behar diren jardueretan edo prozesuetan beharrezkoak diren jakintzak, kualifikazioa eta esperientzia badituzte, eta oinarritzko mailako funtzioei dagokien prebentzio-prestakuntza badute, behintzat.

Prebentzio-baliabide bat baino gehiago daudenean, baliabide horiek elkarlanean jardun beharko dute beren jardunaren eraginkortasunari eusteko, murriztu edo ezabatu nahi diren arriskuei dagokienez.

4.2. Izendapena edo esleipena onartzeko betebeharra

Badirudi betebeharrak hori osatzen dela izendatutako langile bat edo prebentzio-zerbitzu propioko kide bat denean, betiere bete beharreko funtzioak eskatzen dituen prestakuntza, gaitasun edo beste edozein eskakizun betetzen badituzte, eta prebentzio-jardueraren plangintzan finkatu badira, jarduera hori zaintzeak eskatzen duen arriskuaren izaera kontuan hartuta.

Langile bati presentzia esleitzen zaionean, baina aurreko izaerarik ez badu, ideia hau hartu behar da abiapuntutzat, horri erantzuteko: langileek enpresaburuaren aginduak eta jarraibideak bete behar dituztela, zuzendaritza-ahalmenak erregulartasunez erabiliz (urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Langileen Estatutuaren Legearen testu bategintzaren 5. c) artikulua).

Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzaren Zuzendaritza Nagusiaren 83/2010 Irizpide Teknikoak jasotzen duenaren arabera, Laneko Zuzendaritza Nagusiaren irizpidea da –betiere langileak esleitutako lanak eskatzen duen trebakuntza eta prestakuntza badu (eskakizun hori langilea ez onartzeko arrazoiak izan bailiteke)– funtzio berrien esleipena lan-harremanean enpresaburuari aitortzen zaion *ius variandi* ahalmenaren zatia izatea, langilearen prestazioa modalizatzeko ahalmentzat hartuta, zeinak, hala ere, bere mugak baititu: Langileen Estatutuaren 39. artikuluan jasotako eskaerak (titulazio akademiko edo profesional zehatzak, hau da, langilearen kategoriek edo lanbide-taldeek agintea eta gainbegiratze-funtzioak barne hartzea, adibidez); Langileen Estatutuaren 41. artikuluan arabera, lan-baldintzen funtsezko aldaketatzat jotzen denean (eta alderdien artean adostasunik ez dagoenean); langilearen eskubideak eta giza duintasuna, baita edozein harreman juridikotan agintzen duen fede onaren printzipioaren ondoriozkoak ere. Nolanahi ere, langilearentzako prestazio berri horiekin batera, enpresaburuaren kontraprestazioak aurkeztu behar badira, eta alderdien artean adostasunik ez badago, lan-arloko jurisdikzioan aldarrikatu beharko dira, eta hark zehaztuko ditu.

Metalaren hitzarmeneko langileen kasu berezian, Industriaren, Teknologia berrien eta Metalaren Sektoreko Zerbitzuen Estatuko IV. Hitzarmen Kolektiboan xedatutakoa bete beharko da. Hauxe da hitzarmenaren 83. artikulua. Hauxe dio *prebentzio-baliabideari* buruz:

Prebentzio Baliabidea askatasunez izendatuko du enpresak. Honako irizpide hauen arabera jokatu da, izendapenean gatazkarik sortuz gero:

1. Prebentzio-Baliabide izendatuko da langile multzo baten gainean zuzeneko agintea duen langilea.
2. Aurrekoa gorabehera, zereginak langile gutxi batzuek egiten badituzte, kualifikazio profesional handiena duen langileari esleituko zaio.»

4.3. Prebentzio-baliabide bat eta ohiko prebentzio-jardueran kontratatuta dagoenaz bestelako prebentzio-zerbitzu bat hitzartzea bateragarria izatea

Enpresak prebentzio-antolamenduaren barneko eredu bat baldin badu (izendatutako langileak edo prebentzio-zerbitzu propioa), ez dago legezko eragozpenik enpresa horrek kanpoko prebentzio-zerbitzu batekin itun espezifiko bat egiteko, zerbitzu horretako kide batek prebentzio-baliabidearen funtzioak bere gain har ditzan. Bestalde, ez dago legezko eragozpenik prebentzio-jarduera espezifiko hori kanpoko prebentzio-zerbitzu batekin hitzartzeko, zerbitzu hori ohiko prebentzio-jarduera iraunkorra egiteko kontratatutako zerbitzuaz bestelakoa bada.

4.4. Lantokian behar den prebentzio-baliabide kopurua

Zaintzeko eragiketak edota jarduerak egiten ari diren bitartean, ezinbestekoa izango da prebentzio-baliabideak egotea, laneko arriskuen ebaluazioaren arabera, eta prebentzio-jardueraren plangintzak adierazten duen moduan.

31/1995 Legearen 32 bis artikulua arabera, prebentzio-baliabideek:

behar adina izan beharko dute prebentzio-jarduerak betetzen ote diren zaintzeko, eta lantokian egon beharko dute baliabide horien presentzia izatea eskatzen duen egoerak irauten duen bitartean.

Jarduera horiek aldi berean egin daitezkeenez, pertsona batek jarduera guztiak aldi berean zaintzea bermatu ezin denean, behar adina prebentzio-baliabide izendatu beharko dira, aldibereko jarduera guztiak behar bezala zaindu ahal izateko.

5. Prebentzio-baliabidearen eta beste figura batzuen arteko bateragarritasuna

5.1. Prebentzio-baliabidearen eta prebentzio-jardueren koordinatzailearen arteko bateragarritasuna

Lantoki berean enpresa batzuek batera jarduten dutenean –3.1 apartatuan kasu horiek aipatu ditugu–, jarduerak koordinatzeko kasuak dira, eta horien erregulazioa, batez ere, lantokian enpresa-jarduerak koordinatzeari buruzko urtarilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuan zehazten da (Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 24. artikulua garatzen du). Horregatik, bi erregulazioetan xedatutakoa (prebentzio-baliabideena eta koordinazio-baliabideena) lotu behar da, eta egiaztatu da ez dagoela kontraesanik bi erregulazioetan. Izan ere, 171/2004 Errege Dekretuaren 11. artikulua koordinazio-bitartekoen zerrenda amaitu gabearen barne haxe sartzen da: *Lantokian parte hartzen duten enpresen prebentzio-baliabideen presentzia*, hargatik eragotzi gabe prebentzio-jardueren koordinatzaileak (halakorik balego) egin behar dituen funtzioak.

Kontuan hartu behar da, halaber, 171/2004 Errege Dekretuaren 13.4 artikulua hau xedatzen duela: *31/1995 Legearen 32 bis artikuluan aurreikusitakoa betetzea esleituta duten pertsonak prebentzio-jarduerak koordinatzeaz ere arduratu ahal izango dira*. Halaber, erregelamendu beraren 14.4 artikulua haxe gehitzen du: *Prebentzio-jarduerak koordinatzeaz arduratzen diren pertsonak, gutxienez, tarteko mailako funtzioei lotutako prebentzio-prestakuntza izan beharko dute*.

Horrenbestez, eraikuntza-kasuetatik kanpo (horien berezitasunak dokumentu honen hurrengo atalean azalduko dira), prebentzio-jarduerak koordinatzeko funtzioa eta prebentzio-baliabide izateko lana pertsona berari esleitzen zaizkionean, pertsona horrek erdi mailako prestakuntza izan beharko du, horixe eskatzen baita prebentzio-jardueren koordinatzaile izateko.

5.2. Eraikuntza-obrak gauzatzeko faseko prebentzio-baliabidearen eta segurtasun- eta osasun-arloetako koordinatzailearen arteko bateragarritasuna

Hasiera batean, badirudi araudiak ez duela eragozten pertsona bera koordinatzaile eta prebentzio-baliabide izatea. Hori aztertzeko, kontuan hartu behar dugu 171/2004 Errege Dekretuaren 1. xedapen gehigarriak eraikuntza-obretarako berezitasunak jasotzen dituela, eta c) letran berariaz adierazten duela eraikuntza-sektoreko koordinazio-bitartekoak 1627/1997 Errege Dekretuan ezarritakoak izango direla. LAPLren hamalaugarren xedapen gehigarriak ere horri buruzko berezitasunak adierazten ditu.

171/2004 Errege Dekretuaren 11. artikuluan koordinazio-bitartekoak zerrendatzen dira, baina 1627/1997 Errege Dekretuaren 3. artikuluan berariaz ezartzen da obra gauzatzeko fasean segurtasun- eta osasun-koordinatzaile bat izendatu behar dela koordinazio-bitarteko gisa. Beraz, **eraikuntzaren sektorean zaila da pertsona batek funtzio horiek aldi berean bete ahal izatea.**

Legearen 1627/1997 Errege Dekretuaren 2.1.f) artikulua araberak, segurtasun- eta osasun-koordinatzaileari errege dekretu horren 9. artikuluan zehaztutako funtzioak dagozkio gauzatze-fasean. Jarraian, aztertzen ari garen kasuarekin zerikusia dutenak deskribatu dira, e) letran zehaztutakoari bereziki erreparatuta:

b) Obraren jarduerak koordinatzea, kontratistek eta, hala badagokio, azpikontratistek eta langile autonomoek modu koherentean eta arduratsuan aplika ditzaten Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 15. artikuluan jasotzen diren prebentzio-ekintzaren printzipioak obra egikaritzen den bitartean; eta, bereziki, Errege Dekretu honen 10. artikuluan aipatzen diren zereginetan edo jardueretan.

c) Kontratistak egindako segurtasun- eta osasun-plana onartzea, bai eta, hala badagokio, planean egindako aldaketak ere. Zazpigarren artikuluko 2. apartatuko azken paragrafoan xedatutakoaren arabera, zuzendaritza fakultatiboak bere gain hartuko du funtzio hori, koordinatzailea izendatzea beharrezkoa ez denean.

d) Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 24. artikuluan aurreikusitako enpresa-jardueren koordinazioa zehaztuko da.

e) Lan-metodoak zuzen aplikatzen diren *kontrolatzeko ekintzak eta funtzioak koordinatzea (...).*

Kontuan hartu behar da, 1627/1997 Errege Dekretuaren Xedapen Gehigarri Bakarraren a) letraren arabera, segurtasun- eta osasun-planak zehaztuko duela prebentzio-baliabideen presentzia gauzatzeko modua. Horrez gain, lehen esan bezala, kontuan hartu behar da plana eta haren aldaketak onartzeko arduraduna, hain zuzen ere, gauzatze-fasean jarduten duen segurtasun- eta osasun-koordinatzailea dela. Plan bat onartzen duen pertsonaren (koordinatzailearen) funtzioak eta zaintza-lan jakin bat -plan horretan zehazten dena- egiten duen pertsonaren (prebentzio-baliabidearen) funtzioak bateratzeko zailtasunak aurreikus daitezke, bi funtzioak pertsona berak beteko balitu.

Gainera, 1627/1997 Errege Dekretuaren 9. artikulua aitpatzen dituen koordinazio-funtzioak espezifikoak dira, eta prebentzio-baliabiderako segurtasun- eta osasun-planak zehazten dituen neurrien eta eragiketen zaintza-funtzioez bestelakoak dira (LAPLren 14. xedapen gehigarria, eraikuntza-obretan prebentzio-baliabideak egotea; eta 1627/1997 Errege Dekretuaren xedapen bakar gehigarria, eraikuntza-obretan prebentzio-baliabideak egotea). Bi figura horien funtzioak aldi berean obran betetzen badira, nekez bete ahal izango ditu pertsona berak, eta figura baten funtzioak ez dira bestearen funtzioen kalterako izango.

Azkenik, 1627/1997 Errege Dekretuaren 11. c) artikuluan ezarritakoa aplikatuta, eraikuntza-obra batean prebentzio-baliabidea izateak ez ditu kontratistak edo azpikontratistak salbuesten Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 24. artikuluan eta 171/2004 Errege Dekretuan aurreikusitako koordinazio-betebeharrak betetzetik, Errege Dekretu horren 1. Xedapen Gehigarrian eraikuntza-obretarako jasotzen diren berezitasunak ere kontuan hartuta. Izan ere, c) letran berariaz adierazten da eraikuntza-sektoreko koordinazio-bitartekoak 1627/1997 Errege Dekretuan ezarritakoak izango direla, eta artikulua horren 3. artikuluan ezartzen da obra bat egiten ari den bitartean segurtasun- eta osasun-koordinatzaile bat izendatu behar dela, enpresa batek baino gehiagok esku hartzen dutenean.

5.3. Prebentzio-baliabidearen eta prebentzioaren arloko ordezkariaren arteko bateragarritasuna

Aplikatzekoa den araudiaren atal bakar batean ere ez dago berariazko debekurik edo bateraezintasunik prebentzio-baliabidearen eta prebentzioaren arloko ordezkariaren artean, baina bateraezintasun hori

prebentzio-figura bakoitzaren berezko funtzioetatik, ahalmenetatik eta ezaugarrietatik ondorioztatzen da.

Prebentzio-ordezkarria langileen ordezkaria da, eta enpresaren prebentzio-jardueraren egokitasuna zaindu eta kontrolatu beharko du, besteak beste. Hori dela eta, funtzio hori nekez bete ahal izango du, enpresaburuak langile izendatzen badu, edo enpresaburuaren prebentzio-zerbitzuko kide bada, kasu bietan prebentzio-jarduera enpresaburuaren izenean bete beharko duelako. Halakorik egingo balu, interes-gatazka eragingo luke, eta eragotzi egingo luke pertsona berak bi funtzio edo bi jarduera horiek aldi berean egitea, eta gauza bera esan daiteke esleitutako langileari buruz.

Aurrekoa gorabehera, salbuespenezko, ezusteko edo ezinbesteko egoeraren bat gertatzen bada, eta, horren ondorioz, prebentzio-baliabide bat presaz behar bada, eta prebentzioaren arloko ordezkaria bada beharrezko prestakuntza eta kualifikazioa dituen bakarra, kasu horretan, kontuan hartuta esleitutako funtzioak aldi baterakoak, mugatuak eta salbuespenezkoak izango direla, onargarria izan liteke enpresaburuak esleipen hori egitea. Halakoetan, kontuan hartu beharko da salbuespen bat dela, eta funtzio horiek betetzea ezin zaiola agindu edo izendatu prebentzioaren arloko ordezkari bati.

5.4. Prebentzio-baliabidearen eta langile autonomoaren arteko bateragarritasuna

Langile autonomo bat ezin da izendatu prebentzio-baliabide, ez baitator bat LAPLren 32 bis artikulua 2. eta 4. apartatuetan ezarritako aukerekin. Horien arabera, langile izendatuak edo esleituak *besteren konturako langileak soilik izan daitezke*.

5.5. Prebentzio-baliabidearen eta beste zaintza-figura batzuen arteko bateragarritasuna

Indarrean dagoen araudian, badirudi ez dagoela inolako lege-eragozpenik prebentzio-baliabide gisa jarduten duen pertsona dokumentu honen 2.3 apartatuan aipatutako beste zaintza-figura batzuetan aritzen den pertsona bera izateko, betiere pertsona horrek figura bakoitzari eskatzen zaion gaitasun teknikoa edota prestakuntzakoa badu. Hala ere, bi funtzio horiek aldi berean egiteko aukera ezabatuko da, baldin eta ezinezkoa bada bi figuretako bati esleitutako funtzio guztiak modu eraginkorrean betetzea, bestearen funtzioaren bat garatu behar baita, eta funtzio hori, nolabait, bateraezina baita gainerakoekin.

6. Prebentzio-baliabidearen prebentzio-gaikuntza eta -prestakuntza

Legearen LAPLren 32 bis artikulua 3. apartatua hau baino ez da jasotzen: *Prebentzio-baliabideek... behar bezalako gaitasuna eta behar diren bitartekoak izan beharko dituzte, eta behar adinakoa ere izan beharko dute...*, baina ez du zehazten pertsona horiek izan behar duten gutxieneko prestakuntza. Hala ere, langile izendatua edo bertako zein kanpoko prebentzio-zerbitzuko kidea izango denez, kontuan hartu beharko da 39/1997 Errege Dekretuan horri buruz ezarritakoa (13., 15. eta 18. artikuluetan). Hortik ondorioztatzen da pertsona horiek bete behar dituzten funtzioak betetzeko gaikuntza eta prestakuntza egokiak izan beharko dituztela.

Laugarren apartatuak informazio gehiago ematen digu. Bertan ezartzen da kasu horretako «langile izendatuek» izan behar duten kualifikazioa: ... *behintzat, oinarritzko mailako funtzioei dagokien prebentzio-prestakuntza eduki behar dute.*

Idazketa horretatik argi eta garbi ondorioztatzen da gerta litekeela zenbait kasutan oinarritzko mailako funtzioetarako gaitzen duena baino prestakuntza handiagoa behar izatea.

Arau hori 4. apartatua aipatutako kasuan esleitutako langileak izan behar duen kualifikazioari buruzkoa bada ere, prestakuntza hori abiapuntu bihurtzen da prebentzio-baliabideari prebentzioaren arloan eskatu behar zaion gutxieneko prestakuntza ezartzeko. Horrenbestez, arau orokor gisa, langile horrek oinarritzko mailako funtzioei dagokien prebentzio-prestakuntza

izan beharko du, gutxienez. Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduaren 35. artikuluan garatu da:

- a) Gutxienez, 50 orduko iraupena izango du, I. eranskinean jasotako jardueraren bat garatzen duten enpresak direnean. Gainerako guztiek 30 orduko iraupena izango dute, eta ordutegia prestakuntza-proiektu bakoitzaren arabera izango da, betiere Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduaren IV. eranskineko 1. eta 2. apartatuetan zehazten denari jarraituta.
- b) Edo aurreko apartatuan adierazitako jardueren baliokideak edo antzekoak diren erantzukizun profesionaletarako gaitasuna ematen duen prestakuntza profesionala edo akademikoa izatea.
- c) Edo enpresa, erakunde edo administrazio publikoren batean gutxienez bi urteko esperientzia izatea, bertan, aurreko paragrafoan adierazten diren jardueretarako eskatzen diren antzeko maila profesionaleko erantzukizunak gauzatu badira.

Gerta liteke Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduaren I. eranskinean zerrendatutako lanak egiten ez dituen baina prebentzio-baliabide bat eskatzen duten jarduketak batzuk egiten dituen enpresa bat egotea (toki garai batetik modu bereziki larrian erortzeko arriskua duten mantentze-lanak, espazio itxietan lan egitea eta abar), eta jarduera hori garatzen den sektoreari dagokion prestakuntza eskatu behar izatea.

Kontuan hartu behar da, halaber, Hitzarmen Kolektiboetan arlo horretako baldintza gehigarriak jaso daitezkeela. Hala, indarrean dagoen Eraikuntzaren Sektoreko Hitzarmen Kolektibo Orokorrak –2023ko irailaren 23an argitaratuak– 145.1 artikuluko a) puntuan jasotzen du sektore horretako oinarritzko prestakuntzak 60 eskola-orduko iraupena izan behar duela. (XII. eranskina, 4. apartatua, Lan-arriskuen prebentzioaren arloko prestakuntza. Enplegu Zuzendaritza Nagusiaren 2023ko irailaren 6ko Ebazpenaren eranskina da. Ebazpen horren bidez, Eraikuntzaren sektoreko hitzarmen kolektibo orokorra erregistratzen eta argitaratzen da. VII. Eraikuntza Sektoreko Hitzarmen Orokorren Batzorde Negoziatzailea).

Bestalde, oinarritzko mailako funtzioen prestakuntza baliokidea nahikoa izan daiteke, LAPLren 32 bis artikuluan jasotako kasuak direnean. Hala ere, lan arriskutsuetan edo arrisku bereziak sortzen dituzten lanetan –lan horiek toki garai batetik erortzeko, ehorzteko, itotzeko, espazio itxietan lan egiteko, EE markarik gabeko makinak erabiltzeko arrisku bereziki larriak eragiten dituztelako– prebentzio-neurriak betetzen diren zaindu behar denean, eta prebentzio-neurrien eraginkortasuna edo egokitasuna zehaztu

behar direnean, *badirudi ez dela nahikorik izango kasu horietan prebentzio-baliabideak oinarritzko mailako prestakuntza izatea*, prestakuntza horrek oinarritzko ebaluazioak egiteko eta izaera bereko prebentzio-neurriak ezartzeko baino ez baitu gaitzen, eta arrisku horiek detektatzeko beharrezkoa den ezagutza tekniko (adibidez, hilobiratzeko arriskua) edo prebentzio maila zailtasun handikoa izaten delako (espazio itxiei, lan-ekipamenduei eta abarri lotuta).

Egoera hori konpontzeko, erdi mailako edo maila handiagoko prestakuntza duen langile bat izendatu ahal izango da, kasuan kasuko arriskuen arabera, edo, bestela, oinarritzko mailako prestakuntzaz gain, prestakuntza osagarria eta gehigarria eman ahal izango da, arrisku jakin bati edo batzuei berariaz lotuta, hala nola lan-ekipo batzuen erabileran, lantoki itxietan eta abarretan sortzen diren arriskuei buruz.

Beraz, prebentzio-baliabidearen funtzioa bete ahal izateko, adierazitako gutxieneko prestakuntzaren eskakizunarekin batera (oinarritzko maila eta, kasu batzuetan, erdi mailakoa edo arrisku zehatzei buruzko oinarritzko mailaren prestakuntza osagarria), aztertzen ari garen araudiak eskatzen du baliabide horiek «*gaitasun nahikoa*» izatea, baldin eta prebentzio-baliabidea langile izendatua edo prebentzio-zerbitzuko kidea bada (LAPLren 32 BIS artikulua 2. eta 3. apartatuen arabera). Bestalde, prebentzio-baliabidea langile bat bada, *ezagutzak, kualifikazioa eta esperientzia* eduki beharko ditu, eta ezin izango da prebentzio-zerbitzu propioko kiderik izatea, ezta langile izendaturik ere ez, baizik eta «*berariaz esleitutako*» langile bat (LAPLren 32 BIS artikulua 4. apartatua).

Nolanahi ere, gorago adierazi den bezala, langile izendatuek, prebentzio-zerbitzuko kideek edo funtzio horiek betetzea berariaz aginduta duten langileen nahitaezko prestakuntzari eta gaikuntzari buruzko xehetasunak prebentzio-jardueraren plangintzan edo segurtasun- eta osasun-planean jaso behar dira, eraikuntza-obra bada. Izan ere, 39/1997 Errege Dekretuaren 22 bis 2 artikulua 3. apartatua edo 1627/1997 Errege Dekretuaren Xedapen Gehigarri Bakarraren a) letran adierazitakoaren arabera, dokumentu horietan jaso behar da prebentzio-baliabideen presentzia gauzatzeko modua.

7. Prebentzio-baliabidearen funtzioak, ahalmenak eta bermeak

7.1. Prebentzio-baliabidearen funtzioak

39/1997 Errege Dekretuaren 22 bis artikulua 4. apartatua xedatutakoaren arabera, haien presentziaren **xedea** da egoeratik eratorritako arriskuei lotutako prebentzio-jarduerak betetzen diren zaintzea, arrisku horien kontrol egokia lortzeko.

Hauek zaintza horren **barne hartu** behar dira:

- Plangintzan aurreikusitako prebentzio-jardueren eraginkortasuna egiaztatzea.
- Jarduera horiek aurreikusi nahi diren arriskuekin bat datozen edo aurreikusi gabeko arriskuen agerpenarekin bat datozen ere egiaztatzea, horiek prebentzio-baliabideak behar izatea zehazten duen egoeratik eratoritzen direnean.

7.2. Prebentzio-baliabidearen ahalmenak

Aipatutako 22 bis artikulua 5. eta 6. apartatuetan xedatutakoaren arabera, zaintzaren ondorioz, prebentzio-jarduerak **behar bezala betetzen ez direla** ikusten dutenean:

- Prebentzio-jarduerak modu egokian eta berehala betetzeko argibideak emango dituzte.

- Egoera horiek enpresaburuari jakinarazi beharko dizkiote, hark hautemandako gabezia horiek zuzentzeko beharrezko neurriak har ditzan, horiek oraindik konpondu ez badira.

Zaintzaren ondorio gisa, **prebentzio-neurririk ez izatea, gutxiegi izatea edo desegokiak izatea** ikusten bada, enpresaburuari eman beharko diote horren berri. Enpresaburuak gabezia horiek zuzentzeko beharrezko neurriak hartu eta prebentzio-jardueraren plangintza aldatu beharko du berehala, eta hala badagokio, baita lan-arriskuen ebaluazioari dagokionez ere.

7.3. Funtzioak bete ahal izateko aldeez aurretiko eskakizunak

Prebentzio-baliabidearen presentzia lantoki, lanpostu edo eragiketa jakin baterako esleitzen da, hau da, haren egitekoa ez da aurreikusitako prebentzio-neurri guztiak betetzen diren zaintzea, baizik eta soilik aginduta dituen jardueren zaintza egitea, eta enpresaren gainerako jardueren prebentzio-kontrola egitea dagokie funtzio hori berariaz esleitu zaien pertsonari.

Eraikuntza-obrei dagokienez, prebentzio-baliabidearen egitekoa ez da izango segurtasun planean ezarritako prebentzio-neurri guztiak zaintzea, baizik eta soilik plan horren arabera zaindu behar dituenak.

Enpresaburuak jarraibide zehatzak eman beharko dizkie prebentzio-baliabide gisa jarduten duten langileei: zaintzapean dituzten lanpostu, leku edo lantokiei, eragiketa zehatzei eta bete behar dituzten prebentzio-neurriak buruz, prebentzio-jardueraren plangintzan edota eraikuntza-obretako segurtasun eta osasun planean jasotakoaren arabera.

Zehaztu beharko du, halaber, zer prozedurari jarraitu behar zaion zaintza-lana betetzean topatutako akatsen berri emateko, baldin eta, oharrak eman arren, akats horiek zuzendu ez badira, edo ondorioztatu badu prebentzio-neurriak falta direla, nahikoak ez direla edo egokiak ez direla.

Gainera, enpresaburuak gainerako langileen aurrean zehaztu behar du prebentzio-baliabideko funtzioak dituen pertsona: bereizgarriak, laneko arropa berezia, prebentzio-baliabideen zerrenda informazio-tauletan eta abar erabilita.

7.4. Prebentzio-baliabideak lana geldiaraztea

Arauk ez dio berariaz esleitzen prebentzio-baliabideari lanak geldiarazteko ahalmena, hargatik eragotzi gabe enpresaburuak, bere zuzendaritza-ahalmena baliatuta, ahalmen hori berariaz ematea.

7.5. Prebentzio-baliabidearen bermeak

Prebentzio-baliabideen bermeei dagokienez, enpresako langileak edo prebentzio-zerbitzu propioko kideak direnean, Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen 30.4 artikuluan erreferentzia egiten diete langileen ordezkarietzat ezarritako bermeei. Berme horiek Langileen Estatutuaren 68. artikuluen a), b) eta c) letretan ezarrita daude:

- a) Hutsegite astun edo oso astunengatik ezarritako zigorraren kasuan, kontrako espedientea irekitzeko bermea; halakoetan, interesdunari eta enpresa-batzordeari edo langileen gainerako ordezkariari entzun behar zaie.
- b) Enpresan edo lantokian jarraitzeko lehentasuna gainerako langileen aldean, arrazoi teknologiko edo ekonomikoengatik etenaldia edo azkentzea gertatzen bada.
- c) Bere funtzioak baliatzen dituen bitartean lanetik ez botatzea edo zigorrik ez jasotzea, ezta agintaldia amaitu eta hurrengo urtean ere, amaitze hori indargabetzeagatik edo kargua uzteagatik gertatzen denean izan ezik, betiere kaleratzea edo zigorra langileak ordezkaritza-lanetan izandako jardunean oinarritzen bada, Langileen Estatutuaren 54. artikuluan ezarritakoa baztertu gabe. Gainera, ezin izango zaie bereizkeriarik egin soldatetan edo lanbidean sustatzeko orduan, hain zuzen, ordezkaritza-lanetan aritzeagatik.

Eta Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren 56. artikuluen 4. apartatuan ere bai:

- 4. Langileen legezko ordezkari bat edo sindikatuetakoa delegatu bat bada kaleratutakoa, berorri dagokio beti aukera. Aukerarik egiten ez badu, berriro lanera sartzeko aukera egiten duela jo behar da. Eta aukera, bai berariazkoa, bai ustezkoa, lanera berriro sartzeko bada, derrigorrezkoa izango da lanean hartzea. Kalte-ordaina zein berriro sartzeko onartzen badu ere, 2. apartatuan aipatzen diren izapidetze-soldatak jasotzeko eskubidea izango du.

Horren ondorioz, berme berberak aplikatzen zaizkie prebentzio-baliabide gisa izendatutako langileei zein prebentzio-zerbitzu propioko kide direnei eta langileen legezko ordezkari gisa izendatutako pertsonari.

Prebentzio-zerbitzu propioko kidea edo izendatutako langilea ez bada ere, ... *berariaz esleitu* den langilearen bermeei dagokienez, (LAPLren 32 BIS artikulua 4. apartatuaren arabera), Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzaren Zuzendaritza Nagusiaren 83/2010 Irizpide Teknikoaren arabera, ez daude izendatutako langileen edo prebentzio-zerbitzu propioko kideen berme berberak, Laneko Zuzendaritza Nagusiari 2009ko otsailaren 27an egindako kontsultaren arabera. Hala ere, alderdi hori, gai bereko beste batzuk bezala, Lan Arloko Jurisdikzioak ebatzi du eragindako langileen berme horien erreklamaziotik eratorritako gatazken ondorioz, behintzat, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 1740/2013 epaian, zeinak bi langile mota horiei eskubide berberak aitortzen baitizkie:

Ondorio hori nagusitzen da, kaleratze-egunean indarrean zegoen LAPLren idazketatik oinarritutako interpretazioa dela iruditu arren, 32 bis artikulua ez da jatorrizko idazketaren emaitza, baizik eta 54/2003 Legearen 4.2 artikulua (lege hori abenduaren 12koa da, eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko arau-esparrua aldatzen du).

Izan ere, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legeak, arau hori indarrean sartu arte, argi eta garbi adierazten zuen enpresaburuak prebentzio-jarduera egiteko izendatutako langile guztiek (hala antolatu badu) edo enpresako prebentzio-zerbitzuko kideek (ematen duen prebentzio-sistema halakoa bada) LAPLren 30.4 artikuluan ezarritako bermeak dituztela, manu horrek berariaz hala agintzen duelako. Horrek erakusten zuen prebentzio-jarduera antolatzeke sistema baten edo bestearen bidez jarduera hori egitera sartzen diren enpresako langile guztiak babes berezi horren onuradun izateko borondatea. Babes berezi horren xedea prebentzio-funtzioa bete ahal izatea da, enpresaburuak funtzio hori gauzatzeko moduagatik diziplina-neurririk hartu ahal ez dezan, langileen ordezkariak ordezkartza-funtzioa bete ahal izateko dituzten bermeen antzekoak. LAPLren hitzaurrean berariaz adierazten da prebentzio-ekintzan parte hartzen duten langile guztiak babesteko borondate hori, «prebentzio-zerbitzu batean antolatuta egon ala ez», Kontseiluaren ekainaren 12ko 1989/391/EEE Zuzentarauan ezartzen den babesarekin bat etorrira. Zuzentaru hori langileen laneko segurtasuna eta osasuna hobetzeko neurriak aplikatzeari buruzkoa da, eta horren 7.2 artikulua barne hartzen ditu enpresaburuak enpresaren lanbide-arriskuen babes-jardueraz eta prebentzio-jardueraz arduratzeko izendatutako langile guztiak. Hauxe ezartzen du: «Ezin izango dute kalterik jasan arrisku horiek babesteko eta prebenitzeko jardueren ondorioz».

54/2003 Legeak prebentzioa hobetu nahi du. Horretarako, kasuarekin bat ez datozen beste berritasun batzuekin batera, 32 bis artikuluan ezartzen du lantoki jakin batzuetan enpresaburuak prebentzioko giza baliabideak jartzeko betebeharra duela, eta eraikuntza-obrak ere horren

barne hartzen dira (lege horren 7. artikulua ondoia den LAPLren hamalagarren xedapen gehigarri berriaren arabera). Betebehar hori, LAPLren 32 bis.2 artikulua arabera, bere langileen bidez, prebentzio-baliabide arruntak osatzen dituzten pertsonen bidez –izendatutako langileak zein prebentzio-zerbitzu propioko kideak izan– edo itundutako kanpoko prebentzio-zerbitzuko langileen bidez (prebentzio-jarduera modu horretan betetzen bada) bete ahal du. Horrez gain, berariaz esleitu dituen bere langileen bitartez ere bete ahal du, betiere prebentzio-baliabide arrunt horiek barne hartzen ez badituzte, eta behar diren eskakizunak betetzen badituzte, nahiz eta eskakizun horiek zehaztea ez izan atal honen xedea (apartatu horren 4. atala).

54/2003 Legeak ez du berariaz aldatzen Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 30.4 artikuluen bermeen onuradunen zerrenda, baina, era berean, ez ditu berariaz baztertzen, beraz, jo egin behar da babestu egiten dituela, honako arrazoi hauek direla eta: a) Arau horrek hitzez hitz dioena oinarritzat hartuta, enpresaburuak prebentzio-jarduera betetzeko «izendatutako langileak» izateko kasua osatzen da (autoen kasuan demandatzailea prebentzio-zaintzaile izendatzea esan nahi du), eta horrek azal dezake, hain zuzen ere, lege berrian berariaz ez aipatzea haiek ere berme horiek dituztela; b) horietan arrazoi bera ematen da, hau da, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen jatorrizko testuan prebentzio-jardueran aritzen diren enpresaburuaren langile guztiei ematen zaizkien bermeak baliatzea zehazten duela; c) Europako Erkidegoko zuzentarau horren 7.2 artikuluan eskatzen den bermearekin bateragarria den interpretazio bakarra da.

7.6. Non jarri behar duen prebentzio-baliabideak, bere lana egiteko

Prebentzio Zerbitzuen Erregimenaren 22. artikulua 3. apartatua hauxe ezartzen da prebentzio-baliabideari buruz:

- Lantokian egon behar du egoera horrek irauten duen bitartean.
- Baldintza hauek bete behar ditu lantokian presentzia esleituta duten pertsonen kokapenak:
 - Bere funtzioak betetzeko modua eman behar die.
 - Leku segurua izan behar du, pertsona horientzat eta enpresako langileentzat arrisku-faktorerik gehitu gabe.

7.7. Prebentzio-baliabidearen lanen eta beste funtzio batzuen arteko bateragarritasuna

39/1997 Errege Dekretuaren 22 bis artikuluko 7. apartatuan ezartzen da enpresaburuak lantokiko prebentzio-baliabideen jarduna LAPLren 32 bis artikuluan ezarritako kasuez bestelako kasuetarako ere baliatu ahalko duela, baldin eta funtzioak bateragarriak badira.

Jarduera, eragiketa edo prozesu zehatzetan (LAPLren 32 bis 1 artikulua) prebentzio-neurrien aplikazioa zaindu behar dutenez, eragiketa horiek egiten ari diren bitartean ezinbestekoa izango da baliabide horiek bertan egotea.

Jarduera horiek gauzatzen ez direnean, ez dago eragozpenik prebentzio-baliabideak beste ekoizpen- edo prebentzio-jarduera bat egin dezan; eta ez litzateke eragozpenik egongo, zaintzarekin batera, beste produkzio-jarduera bat egiteko (berak jardueretan, eragiketetan edo prozesuetan parte hartzen badu, edo zaindu beharreko lan-metodoak aplikatzen baditu), betiere zaintza-lana kaltetzen ez bada. Horren adibide izan liteke prebentzio-baliabide bat lekuan egotea toki garai batetik erortzeko arrisku bereziari aurrea hartzeko, aldarmio bat muntatu bitartean, eta lurzoru mailan dagoen langile batek beste langile bati piezak eskuratu bitartean.

Edonola ere, kasu zehatzari eta zaindu behar den jarduera motari erreparatu beharko litzaioke. Horiek dira prebentzio-jardueraren plangintzan edo segurtasun- eta osasun-planean jaso behar diren gaiak, eraikuntza-obra bat bada.

8. Prebentzio-baliabidearen kudeaketa-dokumentuak eta erregistroak

Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduaren 39/1997 Errege Dekretuaren 22. artikuluan haxe ezartzen da: *Laneko arriskuen ebaluazioan, hasierakoan zein hurrengoetan, identifikatuko dira «ondoaz ondoko edo aldebereko eragiketengatik larriagotu edo aldatu daitezkeen arriskuak» eta «jarduera edo prozesu arriskutsuekin edo arrisku bereziekin lotutako lanpostuko lanak edo zereginak»*. Kasu bietan prebentzio-baliabideen presentzia prebentzio-jardueraren plangintzan zehaztuko da, eta bertan zehaztuko dira prebentzio-baliabideen izenak, haien ardurapeko jarduerak, behar diren prestakuntza eta trebakuntza, hori guztia arriskuaren izaeraren eta larritasunaren arabera.

Eraikuntza-obretako Segurtasun eta Osasunari buruzko 1627/1997 Errege Dekretuaren arabera, Segurtasun eta Osasun Planak zehaztuko du Prebentzio Baliabideen presentzia gauzatzeko modua.

Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetak eskatzen badu prebentzio-baliabidea behar dela, enpresaburuak berehala berrikusiko du laneko arriskuen ebaluazioa, baldin eta ebaluazio horrek ez baditu kontuan hartzen hautemandako arrisku-egoerak, eta prebentzio-jardueraren plangintza aldatuko du, baldin eta plangintza horrek prebentzio-baliabideen beharra jaso ez bazuen.

Eraikuntza-obren kasuan ere antzeko prozedura beteko da, Segurtasun eta Osasun Planari, Arriskuen Ebaluazio espezifikoiari eta obraren prebentziozko kudeaketaren gainerako dokumentazioari dagokienez.

Komeni da prebentzio-baliabideen izendapena eta haiei esleitutako jarduerak dokumentu bidez erregistratzea. Prebentzio-baliabidea esleitzeko aktaren eredia biltzen duen II. eranskinean eta prebentzio-baliabidea esleitzea eskatzen duten jardueren laburpen-taularen eredia biltzen duen III. eranskinean eredu batzuk aurkezten dira adibide gisa.

Kontuan hartu behar da enpresaburuak beharrezko datuak eman behar dizkiela bere langileei, pertsona horiek identifikatu ahal izateko.

Lehenago adierazi dugun bezala, prebentzio-jardueraren plangintzan zehaztu behar da zer jarduerak eskatzen duten prebentzio-baliabidea egotea, bai eta kasu bakoitzean eskatzen den kualifikazio-maila ere. Arriskuak larriagotu edo alda daitezkeen egoerak, jarduera edo prozesu arrisksuak edo arrisku bereziak dituztenak errazago identifikatzeko, argitalpen honen I. eranskinean prebentzio-baliabideak eta beste lan-zaintza batzuk izatea eska dezaketen jardueren, prozesuen eta eragiketen zerrenda amaitu gabea sartu da.

IV. eranskinean (Prebentzio-baliabidea bertan egotea eskatzen duen egoeraren erregistroa egiteko eredia) eredu bat aurkezten da, prebentzio-baliabideak zaintza-jarduketa bakoitzean egindako jarduera dokumentatzeko eta, hala badagokio, gerta daitezkeen gorabeherak jakinarazteko.

Eraikuntza-obren kasuan prebentzio-baliabidearen jarduketak Intzidentzia Liburuan jaso daitezke, dagozkien oharrekin batera, 1627/1997 Errege Dekretuaren 13. artikuluen 3. apartatuak adierazten duen bezala:

Liburu hori eskuratu ahal izango dute obraren zuzendari teknikoek, kontratistek eta azpikontratistek eta langile autonomoek, *bai eta obran esku hartzen duten enpresetako prebentzioaren arloan erantzukizuna duten pertsonak* edo organoek, langileen ordezkariak eta administrazio publiko eskudunetan laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan espezializatuta dauden organoetako teknikariak ere. Horiek guztiek liburu horretan oharra idatzi ahal izango dituzte, 1. apartatuan aitortzen zaizkien liburuko helburuekin lotuta badaude.

Lantokian arrisku bereziko jarduera, eragiketa edo prozesu arrisksuak egiten dituzten enpresak badaude, enpresa horietako prebentzio-baliabideek elkarrekin lankidetzan jardun beharko dute, eta komeni da lankidetzara hori 171/2004 Errege Dekretuaren koordinazio-jardueretatik eratorritako dokumentuetan jasotzea.

Prebentzio-baliabideari beharrezko informazio guztia eman beharko zaio ezarritako prebentzio-neurriei buruz, baliabide horrek neurri horiek betetzen direla zaindu eta eraginkorrak diren egiaztatu ahal dezan. Informazio horren iturriak, besteak beste, hauexek dira:

- Arriskuen ebaluazioa.
- Prebentzio-jardueraren plangintza.
- Segurtasun eta Osasun Plana.
- Enpresako jarduerak koordinatzeko dokumentuak.
- Arauak.
- Laneko jarraibideak, metodoak eta prozedurak aztertzea.

Aurreko dokumentuetatik hartutako informazioa II. eranskinean jasoko da (Prebentzio-baliabidea esleitzeko aktaren eredua).

Komeni da instrukzio berezi bat egitea prebentzio baliabide baten zaintza eskatzen duen egoera bakoitzeko, argi eta garbi zehazteko zein den beraren zeregina. Eskuliburu honetan **prebentzio-baliabideari emateko informazio-fitxen** adibide batzuk jaso dira. Fitxa horiek orientabideak emateko eskaintzen dira. Horrez gain, lagungarriak izan daitezke enpresaburuak egoera bakoitzari buruzko dokumentu espezifikoak egin ditzan.

9. Erantzukizunak

9.1. Prebentzio-baliabidearen erantzukizunak

Prebentzio-baliabideek ez dute inolako administrazio-erantzukizunik izango. Enpresaburuak zuzenean hartuko ditu bere gain arlo horretako ez-betetzei lotutako administrazio-erantzukizunak, alde batera utzi gabe prebentzio-baliabideen erantzukizunak (zigor-arloko zein arlo zibileko erantzukizunak), pertsona fisiko gisa laneko arriskuen prebentzioaren arloan egiten dutenaren edo egiten ez dutenaren arabera.

Prebentzio-baliabide gisa jarduten duenak, enpresakoa bada, bere betebeharrak betetzen ez baditu, pertsonalki diziiplina-bidetik erantzun ahal izango du bere enpresaburuaren aurrean, edozein langilek bezala, Langileen Estatutuaren 58.1 artikuluan ezarritakoaren arabera:

1. Laneko betebeharrak bete ezean, enpresetako zuzendaritzek zehatu ditzakete langileak, lege xedapenetan edo aplikagarri den hitzarmen kolektiboan ezarritako hutsegiteen eta zehapenen mailaketaren arabera.

9.2. Enpresaburuak lan-arloan dituen erantzukizunak, prebentzio-baliabideari dagokionez

Enpresaburuak prebentzio-baliabidearen arloan egin ditzakeen ez-betetzeak edo balizko arau-hauste administratiboak, gaiarekin zerikusia duten beste jokabide edo ez-egite batzuk alde batera utzi gabe, nagusiki, 31/1995 Legean eta Lan-arloko Arau-hausteei eta Zehapenei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuan zehaztu dira.

Beste hutsegite batzuen artean, nabarmentzekoak dira hauek:

- A) Lan-arloko Arau-hausteei eta Zehapenei buruzko Legearen Testu Bateginaren 12.15 b) artikulua arabera, arau-hauste astuntzat jotzen dira *prebentzio-baliabiderik ez egotea*, baliabideak egotea nahitaezkoa denean; eta baliabide horiei lotutako betebeharrak ez betetzea. Araudiaren arabera arriskutsutzat edo arrisku berezikotzat jotzen diren jarduerak badira (31/1995 Legearen 32 bis 1 b artikulua; 39/1997 Errege Dekretuaren 22 bis 1 b) artikulua; edo 1627/1997 Errege Dekretuaren II. eranskina) Lan-arloko Arau-hausteei eta Zehapenei buruzko Legearen Testu Bateginaren 13.8 b) artikulua arabera arau-hauste oso astun gisa tipifikatzen dira.

Prebentzio-baliabiderik ez egoteagatik edo betebeharrak ez betetzeagatik osatzen den arau-hausteari dagokionez, gogoeta hauek egin behar dira:

1. Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzaren Zuzendaritza Nagusiaren 83/2010 Irizpide Teknikoaren arabera, 31/1995 Legearen 32 bis 1 artikulua eta 39/1997 Errege Dekretuaren 22 bis 1 artikulua kasuan, nahitaezkoa da Lan Ikuskaritzak alde aurretik errekerimendua egitea eta enpresak errekerimendu hori ez betetzea.
 2. Arau-hauste horretan sartu behar dira eskatzen diren prestakuntza-, gaikuntza- eta esperientzia-baldintzak betetzen ez dituen prebentzio-baliabide bat egotea.
 3. Halaber, arau-haustea osatu dela joko da, prebentzio-baliabidea kanpoko prebentzio-zerbitzuko kide bat denean eta haren presentzia gauzatzeko prozesuan itunaren baldintzak bete ez direnean, hargatik eragotzi gabe enpresaburuak kanpoko prebentzio-zerbitzuaren arduradunari erantzukizuna eskatzea eta Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzaren ondorioz beste erantzukizun batzuk zehaztea, itunaren baldintzak ez betetzeagatik, Lan-arloko Arau-hausteei eta Zehapenei buruzko Legearen Testu Bateginaren 12.22 artikuluan zehaztutako arau-hauste bat izan daitekeelako.
 4. Arau-hauste mota horretan sartzen da, halaber, prebentzio-baliabidea izendatu eta enpresan egon arren, prebentzio-baliabide horrek ez betetzea arauan ezarritako gainerako betebeharrak, hala nola langileei jarraibideak ematea eta enpresaburuari zaintza-lanean ikusitako akatsen berri ematea.
- B) Prebentzio-baliabideei prebentzio-jarduerak egiteko behar beste baliabiderik ez *ematea*. Lan-arloko Arau-hausteei eta Zehapenei buruzko Legearen Testu Bateginaren 12.15 a) artikuluan arau-hauste astuntzat jotzen da.

- C) Larriagotu edo alda daitezkeen *arriskuak ez aurreikustea* edota arriskuen ebaluazioa edo segurtasun- eta osasun-plana egitea eskatzen duten lanak ez identifikatzea arau-hauste astun gisa tipifikatzen dira, Lan-arloko Arau-hausteei eta Zehapenei buruzko Legearen Testu Bateginaren 12.1 b) eta 12.23 a) artikuluen arabera.
- D) *Prebentzio Jardueraren Plangintzan* prebentzio-baliabideen presentzia gauzatzeko modua jasotzeko *betebeharra ez betetzea* arau-hauste larritzat jotzen da (Lan-arloko Arau-hausteei eta Zehapenei buruzko Legearen Testu Bateginaren 12.6 artikulua).
- Eraikuntza-obretan egoera hori segurtasun- eta osasun-planean aurreikusirik ez badago, 1627/1997 Errege Dekretuaren xedapen gehigarri bakarrak ezartzen duen bezala, Lan-arloko Arau-hausteei eta Zehapenei buruzko Legearen Testu Bateginaren 12.23 a) artikuluan zehaztutako arau-haustea osatuko da.
- E) Lan-arloko Arau-hausteei eta Zehapenei buruzko Legearen Testu Bateginaren 12.8 artikuluan arau-hauste astuntzat jotzen da prebentzio-baliabidea nor den *jakinarazteko betebeharra ez betetzea*, lege horretako 13. artikuluan jasotako arau-hauste oso astuna ez bada.

Hori guztia, enpresaburuk izan ditzakeen bestelako erantzukizunak baztertu gabe (erantzukizun penala, zibila edo soziala).

Zehapen-prozeduratik eratortzen diren administrazio-erantzukizunak bateragarriak izango dira eragindako kalte-galeren kalte-ordainekin eta Gizarte Segurantzaren sistemako prestazio ekonomikoen errekarguarekin. Organo eskudunak zehaztu ahalko ditu, sistema hori arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera.

Eranskinak

- I. Prebentzio-baliabidea eta beste lan-zaintza batzuk egoteko premia eragin dezaketen jardueren, prozesuen eta eragiketen zerrenda amaitu gabea.
- II. Prebentzio-baliabidea esleitzeko aktaren eredia.
- III. Prebentzio-baliabidea esleitzea eskatzen duten jardueren laburpen-laukiaren eredia.
- IV. Prebentzio-baliabidea eskatzen duen egoeraren zaintza-erregistroaren eredia.
- V. Lege-erreferentziak eta erreferentzia interesgarri batzuk.

**I. eranskina. Prebentzio-baliabidea
eta beste lan-zaintza
batzuk egoteko premia
eragin dezaketen
jardueren, prozesuen
eta eragiketen zerrenda
amaitu gabea**

PREBENTZIO-BALIABIDEA			BESTE LAN-ZAINTZA BATZUK
31/1995 Legearen 32 Bis artikulua onoriozkoak	39/1997 Errege Dekretuaren 22 Bis artikulua onoriozkoak	1627/1997 Errege Dekretuaren II. eranskinaren onoriozkoak	
a) Prozesu edo jardueraren garapenean, aldi berean edo elkarren segidan gertatutako eragiketen ondorioz, arrisku horiek larritu edo aldatzen badira, eta lan-metodo egokiak aplikatzen diren kontrolatzea beharrezko bihurtzen bada.	Edonola ere, lan-arriskuen hasierako edo ondorengo ebaluazioan behar bezala identifikatuko dira ondoz ondoko edo aldibereko eragiketen eraginez larriagotu edo aldatu daitezkeen arriskuak. 39/1997 Errege Dekretuaren 22 bis artikuluko 2 zenbakiko 1. paragrafoa. Eraikuntza-obrei dagokienez, 1627/1997 Errege Dekretuaren Xedapen Gehigarri Bakarrak ezartzen du segurtasun- eta osasun-planak zehaztuko duela prebentzio-baliabideen presentzia gauzatzeko modua, hori baita arriskuak identifikatzeko eta, hala badagokio, ebaluatzeko eta prebentzio-jarduera planifikatzeko oinarritzeko tresna, obrako lanpostuei dagokienez. Hau da, Segurtasun eta Osasun Planak zehaztu beharko du prebentzio-baliabide baten presentzia zer arrisku-egoeratan behar den, jorratzen ari garen kasuari dagokionez.		
b) Erregelamenduen arabera arriskutsu diren edo arrisku bereziak dituzten prozesuak edo jarduerak egiten direnean.	1. Jardueraren ezaugarriengatik, aplikatutako prozedurengatik edo lanpostuaren inguruneagatik toki garai batetik erortzeko arrisku larria duten lanak. 2. Lurperatuta geratzeko edo hondoratzeko arrisku handia sortzen duten lanak. 3. CE adierazpenik gabeko makinak erabileraren behar duten jarduerak, makinak ezaugarri hori derrigorrezkoa izan baino lehen merkaturatu zirelako, baldin eta makinak merkaturatzeko araudian hala eskatuta makinak ziurtatze-prozeduran jakinarazitako organismo baten esku-hartzea beharrezkoa duten makinak mota berekoak badira, eta baldin eta, behar diren neurriak hartu arren, langilearen segurtasuna behar bezala bermaturik ez badago.	Langileen segurtasun eta osasunerako arrisku bereziak ekartzen dituzten lanen zerrenda amaitu gabea. 1. Egiten den lanaren ezaugarriengatik, erabiltzen diren prozedurengatik edo lanpostua betetzeko ingurunearen ezaugarriengatik azpian harrapatzeko, hondoratzeko edo garaieratik erortzeko arrisku larria dakarten lanak. 2. Agente kimikoen edo biologikoen eraginpean lan egitea dakarten lanak, baldin eta arrisku handia badakarte edo legeak agintzen badu lan horiek egitean berariaz zaindu behar dela langileen osasuna. 3. Erradiazio ionizatzaileen eraginpean lan egitea dakarten lanak, baldin eta eremu kontrolatuak edo zainduak mugatzeko betebeharra ezartzen badu berariazko araudiak.	396/2006 Errege Dekretuaren onoriozkoa (10.1.d artikulua): Amiantoarekiko esposizioaren arriskua duten langileak (*) 39/1997 Errege Dekretuaren onoriozkoak (22 Bis.8 artikulua) a) Urpeko ekipoarekin egin behar diren lanak (*). b) Erradiazio ionizatzaileen eraginpean egotea dakarten lanak (*). c) Aire konprimatuko kutxetan egindako lanak (*). d) Atmosfera leherkorren presentzia dela-eta, leherketak izateko arriskua duten lanak. e) Lehergaiak (artikulu piroteknikoak eta lehergaiak dituzten beste gauza edo erreminta batzuk barne hartuta) manipulatzeko eta garraiatzeko eskatzen dituzten jarduerak. f) Arrisku elektrikoak dituzten lanak (*).

PREBENTZIO-BALIABIDEA				BESTE LAN-ZAINTZA BATZUK
31/1995 Legearen 32 Bis artikulua onoriozkoak	39/1997 Errege Dekretuaren 22 Bis artikulua onoriozkoak	1627/1997 Errege Dekretuaren II. eranskinaren onoriozkoak		
b) Erregelamenduen arabera arriskutsu diren edo arrisku bereziak dituzten prozesuak edo jarduerak egiten direnean. (Jarraipena)	4. Esparru itxietan egin behar diren lanak. Ondore horietarako, gune itxiztat hartzen da hara sartzeko eta irteteko irekigune mugatuko toki bat, non aireztapen naturala murrizta baita eta ondorioz kutsatzaile toxikoak edo sukoiak pilatu edo oxigeno urriko atmosfera osatu baitaiteke eta, beraz, ez baitago pentsatuta langileak bertan luzaroan egoteko. 5. Murgilketagatik itotzeko arriskua duten lanak, artikulua honetan 8.a) apartatuan xedatutakoa izan ezik, urpeko ekipoekin murgiltzean egindako lanei buruzkoa.	4. Goi-tentsioko linea elektrikoetatik gertu egin behar diren lanak. 5. Urperatzearen ondorioz itotzeko arriskua dakarten lanak. 6. Tunelak eta putzuak hondeatzeko lanak eta lurpeko lurrak mugitzeko bestelako lanak. 7. Urpeko ekipamenduekin urpean egiten diren lanak. 8. Aire konprimatuko kutxetan egiten diren lanak. 9. Lehergaiak darabiltzaten lanak. 10. Elementu prefabrikatu astunak muntatzeko eta desmuntatzeko lanak.		(*) Jarduera horiek eraikuntza-obra batean gauzatzen direnean, 1627/1997 Errege Dekretuaren II. eranskinean sartuta dauden egiaztatu beharko da. Kasu horretan, beharrezkoa izango da kontratistak prebentzio-baliabide bat izendatzea.
c) Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailentzak hala eskatzen duenean, kasuaren zirkunstantziek hala eskatzen badute, hautemandako lan-baldintzak direla-eta.				

II. eranskina. Prebentzio-baliabidea esleitzeko aktaren eredua

ENPRESAREN DATUAK

Jaun/Andre agurgarri hori,, NAN zenbakiduna duena, honen bitartez, zeu zara

- ☐ Langile izendatua.
- ☐ Prebentzio Zerbitzu Propioko kidea.
- ☐ Prebentzio Zerbitzu Mankomunatuako kidea.
- ☐ Kanpoko Prebentzio Zerbitzuko kidea.
- ☐ Enpresa honetako langilea (LAPLren 32 bis artikulua 4. apartatuarekin bat etorruta), eta

Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen 32 bis artikuluan, Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduaren 22 bis artikuluan eta 39/1997 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera, enpresa honek **PREBENTZIO BALIABIDE** izendatu zaitu.

1. Zure funtzioak. Plangintzan aurreikusitako prebentzio-jardueren eraginkortasuna egiaztatzea eta jarduera horiek prebenitu nahi diren arriskueta edo aurreikusi gabeko eta prebentzio-baliabideen beharra

sortzen duen egoeratik eratorritako arriskuen agerpenera egokitzea, hauetan ezarritakoaren arabera:

- ☐ Prebentzio-jardueraren plangintzan.
- ☐ Segurtasun eta Osasun Planean.
- ☐ Beste batzuk.

Oharrak:

.....

.....

.....

.....

.....

2. Jarduera, eragiketa edo prozesu hauetan gauzatuko dituzu funtzio horiek:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

3. Egiaztatu dugu behar diren gaitasunak eta prestakuntza dituzula.
Zehazki, hauek:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

4. Hemen jardun beharko duzu (prebentzio-baliabidearen presentzia behar duen lekua):

.....

.....

.....

.....

.....

.....

5. Denbora-tarte honetarako izendatu zaitugu:

.....

.....

.....

.....

.....

6. Dokumentu eta bitarteko hauek esleitu dizkizugu:

.....

.....

.....

.....

.....

7. Zaintza-lanetan ondorioztatzen baduzu prebentzio-jarduerak behar bezala betetzen ez direla, prebentzio-jarduerak behar bezala betetzeko behar diren jarraibideak emango dituzu. Jarraibide horiek emanda ere, gabezia horiek zuzentzen ez badira, horren berri eman beharko diozu erantzuleari. Hauxe da:

.....

8. Zaintza-lanetan ondorioztatzen baduzu prebentzio-neurriren bat falta dela, nahikorik ez dela edo prebentzio-neurriak ez direla egokirik, horren berri eman beharko diozu erantzuleari. Hauxe da:

.....

9. Lantokian duzun kokapenak zure eginkizunak betetzeko aukera eman beharko dizu, eta leku segurua izan behar du, ezin da arrisku gehigarririk izan zuretzat, ezta enpresako langileentzat ere. Han egon beharko duzu zu han egotea beharrezko egin duen egoerak iraun bitartean.

Sinadura: (Enpresa)

Sin: (Prebentzio-baliabidea)

.....(e)n, 20.....(e)koaren(e)(a)n

III. eranskina. Prebentzio-baliabidea esleitzea eskatzen duten jardueren laburpen-laukiaren eredua

Prebentzio-baliabidea lantokian edota obran egotea eskatzen duten jarduerak . . .

Jarduera / Arriskua	Kokalekua	Zaintzeko prebentzio- jarduera	Datak		Prebentzio- baliabidearen izena	Nori jakinarazi (erantzulearen izena):	Entregatzeko dokumentuak edota baliabideak (*)
			Hasi	Amaitu			

(*) Prebentzio-baliabideari bere funtzioak betetzeko emango zaizkion dokumentuak eta bitartekoak (plangintza, segurtasun- eta osasun-plana, fitxak...).

IV. eranskina. Prebentzio-baliabidea eskatzen duen egoeraren zaintza-erregistroaren eredua

ENPRESAKO ARDURADUNAK BETE BEHAR DU	Baliabidearen premia sortzen duen ARRISKUA edo JARDUERA deskribatzea:	
	Hasiera data eta ordua:	Amaiera data eta ordua:
	KOKAPEN gomendatua, zaintza-lana egiteko:	
	Prebentzioko Baliabidearen IZENA :	
	Prebentzio-Baliabideari emandako DOKUMENTUAK/BITARTEKOAK	
	☐ Arrisku-faktoreak eta prebentzio-neurriak ☐ Lan-jarraibideak ☐ Larrialdiei aurre egiteko protokoloa ☐ Baliabideari emateko informazio-fitxak	☐ Baliabideari emateko informazio-fitxak ☐ Lan-prozedurak ☐ ...
Prebentzioko JARDUERA eta NEURRI antolatuak:		
PREBENTZIO-BALIABIDEAK BETETZEKO	Prebentzio-jarduerak EZ DIRA BETETZEN ? Bai ☐ EZ ☐	
	Ez direla betetzen erantzun baduzu, mesedez, adierazi zer jarduera ez den betetzen eta nor dagoen inplikaturik:	
	Neurriak behar bezala betetzeko, behar diren OHARRAK eman dira? Bai ☐ EZ ☐	
	Arduradunari berehala JAKINARAZI zaio? Bai ☐ EZ ☐ (idatzi izena):	
	Prebentzio-jarduerak EZ dira ERAGINKORRAK , arriskuetatik babesteko? Bai ☐ EZ ☐	
Aurreko galderan erantzun baduzu neurriak ez direla eraginkorrak, azaldu zergatik (falta direlako, nahikorik ez direlako edo egokiak ez direlako):		
Arduradunari berehala JAKINARAZI zaio? Bai ☐ EZ ☐ (idatzi izena):		

Enpresako arduradunaren sinadura:

Prebentzio-baliabidearen sinadura

V. eranskina. Lege-erreferentzien eta erreferentzia interesgarrien zerrenda amaitu gabea

- 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa.
- 39/1997 Errege Dekretua, urtarrilaren 17koa, Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onesten duena.
- 5/2000 Legegintzako Errege Dekretua, abuztuaren 4koa, Lan Arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.
- 171/2004 Errege Dekretua, urtarrilaren 30ekoa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 24. artikulua garatzen duena, enpresa-jardueren koordinazioaren arloan.
- 83/2010 Irizpide teknikoa, Prebentzio-baliabideak enpresetan, zentroetan eta lantokietan egoteari buruzkoa. (Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritza).
- NTP 994. Prebentzio-baliabidea.
- 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren testu bategina onartzen duena.
- 1627/1997 Errege Dekretua, urriaren 24koa, eraikuntza-lanetarako segurtasun- eta osasun-arloko gutxieneko xedapenak ezartzen dituen. Eta ondorengo aldaketak.
- Eraikuntzaren sektoreko VII. hitzarmen kolektibo orokorra.

- Metalaren sektoreko industriaren, teknologia berrien eta zerbitzuen IV. estatuko hitzarmen kolektiboa.
- 550/2020 Errege Dekretua, ekainaren 2koa, urpekaritza-jardueren segurtasun-baldintzak zehazten dituen.
- 614/2001 Errege Dekretua, ekainaren 8koa, arrisku elektrikoaren aurrean langileen osasuna eta segurtasuna babesteko gutxieneko xedapenei buruzkoa.
- 1029/2022 Errege Dekretua, abenduaren 20koa, Erradiazio ionizatzaileekiko esposiziotik eratorritako arriskuen aurrean osasuna babesteko erregelamendua onartzen duena.
- 130/2017 Errege Dekretua, otsailaren 24koa, Lehergaien Erregelamendua onartzen duena.
- 989/2015 Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, gailu piroteknikoen eta kartutxoaren araudia onartzen duena.
- ...

Prebentzio-baliabideari emateko informazio-fitxak

	Prebentzio- Baliabidearen Gidaliburua	O fitxa PREBENTZIO-BALIABIDEAREN PREMIA SORTZEN DUTEN EGOERA GUZTIETAN APLIKATZEKO BALDINTZAK	
Fitxa honen edukia orientagarria da, eta jarduera zehatz bakoitzaren alderdi espezifikoekin osatu behar da (ikus fitxa espezifikoaren adibideak)			
Fitxa honen edukia orientagarria da, eta enpresak jarduerari buruz bildu dituen dokumentuak osatzen ditu: arriskuen ebaluazioa, segurtasun-plana, jarraibideak...			
Lege-erreferentziak, erreferentzia espezifikoak eta erreferentzia amaitu gabeak			
⇒ 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa. ⇒ 39/1997 Errege Dekretua, urtarrilaren 17koa, Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onartzen duena. ⇒ 171/2004 Errege Dekretua, urtarrilaren 30ekoa, Enpresa-jarduerak koordinatzeari buruzkoa.			
PREBENTZIO-BALIABIDEEN PREMIA ERAGITEN DUEN BALDINTZA			
Azaldu prebentziozko baliabidearen premia eragiten duen jarduera, lana, eragiketa edo prozesua			

	Prebentzio- Baliabidearen Gidaliburua	O fitxa PREBENTZIO-BALIABIDEAREN PREMIA SORTZEN DUTEN EGOERA GUZTIETAN APLIKATZEKO BALDINTZAK	
PREBENTZIO-BALIABIDEARI EMATEKO JARRAIBIDEAK			
<u>ALDEZ AURRETIKO FASEA:</u> ⇒ Esleipenarekin batera (II. eranskina), egoerari buruzko dokumentazioa jasotzea (jarduerak, lanak, eragiketak edota prozesuak): prebentzio-jardueraren plangintza, segurtasun- eta osasun-plana, prozedura, instrukzioa... ⇒ Esleipenaren arabera, funtzioak betetzeko behar dituen bitartekoak jasotzea. ⇒ Zaintza-erregistroa jasotzeko dokumentua jasotzea (IV. eranskina).			
<u>GAUZATZE-FASEA:</u> ⇒ Prebentzio-jarduerak aurreikusitako moduan gauzatzeko behar diren bitarteko materialak (babes kolektiboak, norbera babesteko ekipamendua eta abar) dauden aldeztatu aurretik egiaztatzea. ⇒ Zaintza Erregistroan (IV. eranskinean) zehaztutako prebentzio-jarduerak eta -neurriak –hala nola babes kolektiboko elementuen, norbera babesteko ekipamenduen eta abarren erabilera egokia– langileek lanean betetzen dituzten zaintzea. ⇒ Prebentzio-neurriak betetzen ez badira, langileei berehala eman behar zaizkie jarraibideak, behar bezala bete ditzaten. Arduradunari jakinaraztea. ⇒ Ezarritako prebentzio-jarduerak eraginkorrak ez direla egiaztatzen bada (falta direlako, nahikoak ez direlako edo egokiak ez direlako), arduradunari jakinarazi. ⇒ Egoeraren ondorioz ezusteko arriskuak sortu ote diren zaintzea eta arduradunari horren berri ematea. ⇒ Egiaztatu lantokian duzun kokapenak aukera ematen dizun zure eginkizunak betetzeko. Izan ere, kokapen seguru hori ezin da izan arrisku-faktorerik gehitzeko iturria, ez zuzetatzat, ezta enpresako langileentzat ere. Zure presentzia eragin duen egoerak irauten duen bitartean egon beharko duzu bertan. ⇒ Zaintza-erregistroa osatzea (IV. eranskina), aurreikusita dagoenaren arabera eta, behintzat, ez-betetze edo eraginkortasunik ez izateko kasu bakoitzean, betiere zaintza-jardueraren amaieran.			
<u>AMAIERA-FASEA:</u> ⇒ Agindutako kokapenean egoteari uzteko baldintzak betetzen diren ziurtatzea. ⇒ Aurreikusitakoaren arabera, zaintza-erregistroa (IV. eranskina), bestelako dokumentuak edo bestelako bitartekoak entregatzea.			
ARRISKU ESPEZIFIKOAK			
⇒ Prebentzio-baliabidearen presentziaren premia sortzen duten arriskuak azaltzea.			
PREBENTZIO-NEURRIAK			
⇒ Prebentzio-baliabidearen premia sortzen duten arriskuei lotutako jarduerak eta neurriak.			

	Prebentzio- Baliabidearen Gidaliburua	0 fitxa PREBENTZIO-BALIABIDEAREN PREMIA SORTZEN DUTEN EGOERA GUZTIETAN APLIKATZEKO BALDINTZAK		
TALDEKO ETA BANAKAKO BABESA				
BALIABIDEAK ETA EKIPOAK				

	Prebentzio- Baliabidearen Gidaliburua	1 fitxa GUNE ITXIAK	
Fitxa honen edukiak 0 fitxan jasotakoa osatzen du, jarduera mota horri dagokionez			
Fitxa honen edukia orientagarria da, eta enpresak jarduerari buruz bildu dituen dokumentuak osatzen ditu: arriskuen ebaluazioa, segurtasun-plana, jarraibideak...			
Lege-erreferentziak, erreferentzia espezifikoak eta erreferentzia amaitu gabeak			
➤ 486/1997 Errege Dekretua, laneko lekuei buruzkoa. ➤ 681/2003 Errege Dekretua, ekainaren 12koa, atmosfera leherkorrei buruzkoa. ➤ 374/2001 Errege Dekretua, apirilaren 6koa, produktu kimikoei buruzkoa. ➤ 664/1997 Errege Dekretua, arrisku biologikoei buruzkoa. ➤ NTP 223. Esparru itxietan egin behar diren lanak.			
PREBENTZIO-BALIABIDEEN PREMIA ERAGITEN DUEN BALDINTZA			
Prebentzio-baliabidea egotea eragin duen jarduera, eragiketa edo prozesua (arriskuen ebaluazioan jasotako jardueraren, eragiketaren, prozesuaren edo lanaren deskribapena, espazio itxi batean egiten dena). Adibide generikoak: ➤ Gas arriskutsuak sor ditzaketen, oxigeno urriko atmosfera sor dezaketen edo produktu toxikoak pila ditzaketen lekuetan lan egitea. ➤ Lurpeko lanak egitea putzu, galeria, estolda, hobi, upeltegi eta abarretan. Tunel, upel, zisterna, erreaktore, tanga eta abarren barruan egiten diren lanak.			
PREBENTZIO-BALIABIDEARI EMATEKO JARRAIBIDEAK			
<u>ALDEZ AURRETIKO FASEA:</u> ➤ Esleipenarekin batera (II. eranskina), dokumentu hauek ere jasotzea: • Lan-baimena. • Lan-prozedura. ➤ Esleipenaren arabera, funtzioak betetzeko behar dituen bitartekoak jasotzea. ➤ Zaintza-erregistroa jasotzeko dokumentua jasotzea (IV. eranskina).			
<u>LANA GAUZATZE-FASEA:</u> ➤ Esleipen-aktan eta lan-prozeduran jasotako prebentzioko jarduerak aurreikusitako moduan gauzatzeko behar diren bitarteko materialak (babes kolektiboak, NBE, ekipoa eta abar) dauden aldez aurretik egiaztatzea. • Eremua behar bezala mugatu eta seinaleztatu den egiaztatzea: egiteko lanak, arriskua duen eremua, baimenik ez duten pertsonen pasatzea debekatzea. • Egiaztatzea esparrura sartzeko oztoporik ez dagoen eta larrialdietan eta ebakuazioetan esku hartzeko aurreikusitako bitartekoak dauden.			

	Prebentzio- Baliabidearen Gidaliburua	1 fitxa GUNE ITXIAK	
• Beharrezkoa izanez gero, esparru itxietan ekipoak jaso diren egiaztatzea, dagozkien katigatze- edota blokeo-sistemen instalazioaren bitartez. • Laneko ekipoak eta tresnak eta aurreikusitakoak bat datozen ziurtatzea. • Esparrura sartu aurretik, ziurtatzea barneko atmosferaren egoera eta lan-prozeduran jasotakoa bat datozen eta, hala badagokio, aireztapen natural egokia, aireztapen behartuko sistema edo arnasketa-ekipamenduak dauden ere bai. • Jarduerak egiteko zehaztu diren norbera babesteko ekipamenduak dauden egiaztatzea. ➤ Langileek beren jardunean prebentzio-jarduerak betetzen dituzten eta babes kolektiboko elementuak, norbera babesteko ekipamenduak eta gainerako ekipoak behar bezala erabiltzen dituzten zaintzea. • Hala badagokio, lana gauzatu bitartean, lan-prozeduran ezarritakoari jarraituta, barneko atmosferaren baldintzen gaineko kontrolak egiten diren ziurtatzea. ➤ Prebentzio-baliabidea bertan egotea eskatzen duten lanek iraun bitartean, eta kokapenetik egitea lan-prozeduran ezarritako lana. ➤ Prebentzio-neurriak betetzen ez badira, langileei berehala eman behar zaizkie jarraibideak, behar bezala bete ditzaten. Arduradunari jakinaraztea, behar izanez gero. ➤ Ezarritako prebentzio-jarduerak eraginkorrak ez direla ziurtatzen bada (falta direlako, nahikorik edo egokirik ez direlako), lan horiek egiten ez jarraitzea harik eta arduradunari horren berri ematen zaion eta beharrezko prebentzio-neurriak ezartzen diren arte.			
<u>LANAREN AMAIERA-FASEA:</u> ➤ Ziurtatzea lekua erabilera-baldintza egokietan uzteko behar diren jarduerak egiten diren (hala badagokio, ekipoak kentzea, instalazioak zeuden moduan uztea, katigatze- eta blokeo-sistemak eta abar). ➤ Zaintza-jarduketa bakoitzari lotutako zaintza-erregistroa (IV. eranskina) osatuko da, zaintzaren emaitza jasota gera dadin: prebentzio-neurrien betetzea, irregulartasunak, enpresaburuari egindako jakinarazpenak eta abar.			
ARRISKU ESPEZIFIKOAK. Zerrenda amaitu gabea.			
➤ ITOMENA: Barrutiaren barruko oxigeno-kontzentrazioa, kanpoko airean ohikoa den oxigeno-kontzentrazioa baino handiagoa denean. Oxigeno-kontsumoaren edo beste gas batzuen lekualdaketen ondorioa izan daiteke. ➤ SUTEA ETA LEHERKETAK: Esparruaren baldintzak direla-eta, sute- edo leherketa-arriskua dagoenean. ➤ SUBSTANTZIA KUTSAGARRIAK ARNASTEAGATIKO INTOXIKAZIOA: Barrutiko edozein substantziak edo substantzia multzok esposizio-mugak gainditzen dituenean. ➤ ATMOSFERA KORROSIBOEN ETA NARRITAGARRIEN ERAGINPEAN EGOTEA: Barrutian horrelako substantziak egon direnean edo oraindik ere bertan daudenean. ➤ AGENTE BIOLOGIKOEN ERAGINPEAN EGOTEA: Barrutian agente biologikoak egotea (birusak, bakterioak...) ➤ BESTELAKOAK: -----			
Oharra: arrisku espezifikoez gain, esparruan dauden arrisku orokorrak ere kontuan hartu beharko dira (maila desberdinetako erorikoak, kontaktu elektrikoa...).			

	Prebentzio- Baliabidearen Gidaliburua	1 fitxa GUNE ITXIAK	
PREBENTZIO-NEURRI OROKORRAK			
➤ Espazio itxiaren kanpoaldean seinaleak jartzea (beharrezkoa bada). ➤ Egin behar diren lanen erabateko kontrola kanpotik egitea, lehen sorospenetako prestakuntza jaso duen pertsona batek barrutiaren barnealdea etengabe zaintzen duela eta barnealdearekiko komunikazioari eusten diola. Zuzeneko bistaratzea ezinezkoa denean, komunikazio-bide seguru eta iraunkor bat erabiliko da: bisuala (argi-seinaleen kodeak); akustikoa (soinu-seinaleak, bozina pneumatikoak, txilibituak edo antzekoak); irratikoa (<i>walkie-talkie</i> gailuak, telefono mugikorra, pertsonen bilagailua, etab.); soken bitartekoa (tiraka egiteko seinale-kodearen bitartez). ➤ Erreskate- eta esku-hartze-prozedurak ezagutzea eta horiek gauzatzeko baliabideak izatea. ➤ Bitarteko seguruen bidez (eskaileren, tripodeen eta abarren bidez) sartzeari barrutiaren barrura, erorikoen aurkako sistemak erabilia eta sarrerak edo irteerak libre edukita. ➤ Barrutiaren barruan aireztapen egokia izaten saiatuko da, eta, ahal den guztietan, <i>naturala</i> izango da; horretarako, instalazioan dauden ahoak denbora egokian irekiko dira. Aireztapen naturala nahikoa ez bada, <i>aireztapen behartua</i> ere erabiliko da. ➤ Lanak egiteko esparrura sartu aurretik, barruko atmosfera kanpotik neurtuko da, beharrezko koten bidez. Emaiza idatziko da, eta esposizio-mugekin alderatuko da. Oxigeno-maila % 20,5etik beherakoa bada, arnasketa-ekipo autonomoak edo erdi-autonomoak erabili beharko dira, barrura sartzeko, eta langileek ekipoak erabiltzen ikasi beharko dute. ➤ Era berean, egiaztatu beharko da atmosfera leherkorrik ez dagoen, ezta substantzia sukoi toxiko edo korrosiborik inguruan ere ez dagoen. ➤ Barrutiaren barruko lanak egiten diren bitartean, neurrak jarraituak egingo dira, esposizioaren mende dauden pertsonen inhalazio-guneen parean, barrura sartzeko baldintzei eusten zaient egiaztatzeko. ➤ Laneko ekipoak edota tresnak lanen eta espazio itxien ezaugarrien arabera diren egiaztatuko da; bereziki, atmosfera leherkorra dagoenean (txinparten aurkako erremintak, burdineriak gabeko oinetakoak, <i>Ex</i> marka duten ekipoak...). ➤ Argiztapen- eta lan-ekipoen kasuan, horiek esparruaren ezaugarrietara egokitu beharko dira (segurtasun-tentsioen bidez elikatutako ekipoen erabilera, etab.), eta haien egoera aldeztu aurretik eta aldizka egiaztatu beharko da.			

		Prebentzio- Baliabidearen Gidaliburua		1 fitxa GUNE ITXIAK	
TALDEKO ETA BANAKAKO BABES MOTAK					
Barrutiaren ezaugarrien araberako zerrenda amaitu gabea					
	Segurtasuneko oinetakoak			Segurtasuneko arnesa, indargetze-gailuarekin	
	Babes mekanikoko eskularruak			Burua babesteko kaskoa, kokospeko uhalarekin	
	Hauts kontrako maskara			Arnasteko ekipo erdi autonomoa edo autonomoa	
	Laneko arropa antiestatikoa			Proiekzioen kontrako segurtasun-betaurrekoak	
BITARTEKOAK ETA EKIPOAK					
Barrutiaren ezaugarrien araberako zerrenda amaitu gabea					
	Neurketa-ekipamenduak				
	Salbamendu- eta erreskate- taldeak				

Arauen eranskina

- 54/2003 Legea, abenduaren 12koa, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Lege Esparrua aldatzen duena.
- 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan-arriskuen Prebentzioari buruzkoa.
- 39/1997 Errege Dekretua, urtarrilaren 17koa, Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onesten duena.
- 1627/1997 Errege Dekretua, urriaren 24koa, eraikuntzako obretako segurtasuneko eta osasuneko gutxieneko xedapenak ezartzen dituen.
- 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren testu bategina onartzen duena.
- 5/2000 Legegintzako Errege Dekretua, abuztuaren 4koa, Lan Arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.
- 171/2004 Errege Dekretua, urtarrilaren 30ekoa, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 24. artikulua garatzen duena, enpresa-jardueren koordinazioaren arloan.
- 83/2010 Irizpide teknikoa, prebentzio-baliabideak enpresetan, zentroetan eta lantokietan egoteari buruzkoa.

54/2003 Legea, abenduaren 12koa, lan-arriskuen prebentzioari buruzko lege-esparrua aldatzen duena

(...)

Zioen azalpena

Azkenik, artikuluko berri bat eta xedapen gehigarri berri bat gehitzen zaizkio 31/1995 Legeari, hau xedatzeko: lantokian enpresaburuaren prebentzio-baliabideak egotea, baliabide horien antolaketa-modalitatea edozein dela ere, beharrezkoa izango da arrisku eta arriskugarritasun bereziko kasu eta egoera jakin batzuetan, eta prebentzio-baliabide horiek lantokian egon beharko dute, lantokian egotearen premia sortzen duen egoerak irauten duen bitartean.

Prebentzio-baliabideen premia sortzen duten kasuen artean, hauek sartzen dira: prozesuak edo jarduerak garatu bitartean arriskuak larriagotzea edo aldatzea; elkarren segidan edo aldi berean egiten diren hainbat lan egitea; eta lan-metodoak behar bezala aplikatzen diren berariaz kontrolatzea.

Legeak ez ditu aipatzen elkarren segidan edo aldi bereko eragiketarako batera gertatzen diren kasuak, baizik eta lan-metodoak aplikatzeko moduaren kontrol espezifikoaren premia sortzen dutenak. Izan ere, metodo horiek modu desegokian aplikatzen badira, arriskua larriagotu edo aldatu ahal izango litzateke. Horretarako, prebentzio-baliabideak behar dira, lan-metodoak zorrotz betetzen diren bermatzeko eta, horrela, arriskua kontrolatzeko.

Legeak, kasu horretan, eraikuntza-lanei edo, adibidez, ontzigintza-lanei edo antzeko lanei erreferentzia egiten die. Istripuak jarduera horietan aztertzeak erakutsi digu istripu-kopuru askoren sorburua egoera horietako arriskuak larriagotzea edo aldatzea dela; eta neurri honen bidez, halakorik ez gertatzea lortu nahi da.

Ezaugarri bereziak izanda, erregulazio zehatz bat ezarri da eraikuntza-obretan prebentzio-baliabideak egon daitezen.

Nolanahi ere, adierazi behar da lan-arriskuen prebentzioa enpresan integratzeko prozesuan prebentzio-ordezkarien eta Segurtasun eta Osasun Batzordearen eskumenei eta ahalmenei buruzko 31/1995 Legearen 36. eta 39. artikuluetan ezarritakoa bete beharko dela.

Gainera, kapitulu horrek paragrafo berri bat gehitzen dio 24. artikuluari, jasota gera dadin bertan arautzen diren koordinazio-betebeharrak erregelamendu bidez garatu behar direla.

31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan-arriskuen Prebentzioari buruzkoa

32 bis artikulua. Prebentzio-baliabideen presentzia

1. Kasu hauetan beharrezkoa da lantokian prebentzio-baliabideak egotea, baliabide horiek antolatzeko modalitatea edozein izanda ere:

- a) Lan-metodoak egoki aplikatzen direla kontrolatu behar den aldibereko edo ondoz ondoko eragiketak direla-eta prozesuan edo jardueran arriskuak larritu edo aldatzen direnean.
- b) Erregelamenduen arabera, arriskutsuak diren edo arrisku bereziak dituzten prozesuak edo jarduerak egiten direnean.
- c) Detektatutako lan-baldintzak direla-eta, egoerak eta **Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzak** hala agintzen dutenean.

2. Hauek prebentzio-baliabidetzat hartzen dira, eta enpresaburuak horretarako izendatu ahalko izango ditu:

- a) Enpresako langile izendatu bat edo batzuk.
- b) Enpresako prebentzio-zerbitzuko partaide bat edo batzuk.
- c) Enpresak hitzartutako kanpoko prebentzio-zerbitzuko edo zerbitzuetako partaide bat edo batzuk.

Presentzia hori hainbat prebentzio-baliabidek gauzatzen badute, baliabide horiek elkarlanean jardun beharko dute.

3. Aurreko atalean aipatu diren prebentzio-baliabideek behar adinako gaitasuna izan beharko dute, behar diren bitartekoak izan beharko dituzte eta, kopuruari dagokionez, behar adina izan beharko dute prebentzio-jarduerak betetzen ote diren zaintzeko, eta lantokian egon beharko dute baliabide horien presentzia izatea eskatzen duen egoerak irauteen duen bitartean.

4. Aurreko ataletan adierazitakoa gorabehera, enpresaburuak enpresako langile baten edo batzuen presentzia esleitu dezake berariaz, baldin eta langile horiek prebentzio-zerbitzuko kide izan gabe eta izendatutako langileak izan gabe, 1. atalean aipatzen diren jardueretan edo prozesuetan beharrezkoak diren jakintzak, kualifikazioa eta esperientzia baldin badituzte, eta oinarritzko mailako funtzioei dagokien prebentzio-prestakuntza baldin badute gutxienez.

Kasu horretan, langile horiek behar den lankidetzat izango dute enpresaburuaren prebentzio-baliabideekin.

Abenduaren 12ko 54/2003 Legearen 4.3 artikulua bidez gehitu da.
Erref.: BOE-A-2003-22861

Gehitutako testua, 2003-12-13an argitaratua, 2003-12-14tik aurrera indarrean jarrita.

Hamalaugarren xedapen gehigarria. Eraikuntza-lanetan prebentzio-baliabideak egotea

1. Urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuak –eraikuntza-obretako segurtasun eta osasuneko gutxieneko xedapenak ezartzen dituenak– araututako eraikuntza-lanei aplikatuko zaie Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 32 bis artikuluan xedatutakoa, berezitasun hauek kontuan hartuta:

- a) Nahitaez egon behar diren prebentzio-baliabideak kontratista bakoitzari aplikatuko zaizkio.
- b) 32 bis artikulua 1. paragrafoko a) apartatuan aurreikusitako kasuan, kontratista bakoitzaren prebentzio-baliabideen presentzia beharrezkoa izango da obran arrisku bereziko lanak egiten direnean, aipatutako errege-dekretuan definitzen diren moduan.

c) Prebentzio-baliabideen nahitaezko presentziaren helburua laneko segurtasun- eta osasun-planean jasotako neurriak betetzen diren zaintzea eta neurri horien eraginkortasuna egiaztatzea izango da.

2. Aurreko paragrafoan xedatutakoak ez die kalterik egingo obra gauzatzean segurtasun- eta osasun-arloko koordinatzaileak dituen betebeharreri.

Abenduaren 12ko 54/2003 Legearen 7 artikulua bidez gehitu da.

Erref.: BOE-A-2003-22861

Gehitutako testua, 2003-12-13an argitaratua, 2003-12-14tik aurrera indarrean jarrita.

39/1997 Errege Dekretua, urtarrilaren 17koa, Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onesten duena

22 bis artikulua. Prebentzio-baliabideen presentzia

1. Lan Arriskuen Prebentziorako azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 32 bis artikuluari jarraituta, lantokian prebentzio-baliabideak egotea beharrezkoa da, baliabide horiek antolatzeko modalitatea edozein izanda ere, kasu hauetan:

- a) Aldibereko edo ondoz ondoko eragiketak direla-eta, lan-metodoak egoki aplikatzen diren kontrolatu behar den prozesuan edo jardueran arriskuak **larritu edo aldatzen** direnean.
- b) Prozesu arriskutsu edo arrisku berezidun jarduera hauek egiten direnean:
 - 1. Jardueraren ezaugarriengatik, aplikatutako prozedurengatik edo lanpostuaren inguruneagatik toki garai batetik erortzeko arrisku larria duten lanak.
 - 2. Lurperatuta geratzeko edo hondoratzeko arrisku handia sortzen duten lanak.
 - 3. CE adierazpenik gabeko makinak erabilera behar duten jarduerak, makinak ezaugarri hori derrigorrezkoa izan baino lehen merkaturatu zirelako, baldin eta makinak merkaturatzeko araudian hala eskatuta

makinen ziurtatze-prozeduran jakinarazitako organismo baten esku-hartzea beharrezkoa duten makinen mota berekoak badira, eta baldin eta, behar diren neurriak hartu arren, langilearen segurtasuna behar bezala bermaturik ez badago.

4. Esparru itxietan egin behar diren lanak. Ondore horietarako, gune itxiztat hartzen da hara sartzeko eta irteteko irekigune mugatuko toki bat, non aireztapen naturala murrizta baita eta ondorioz kutsatzaile toxikoak edo sukoiak pilatu edo oxigeno urriko atmosfera osatu baitaiteke eta, beraz, ez baitago pentsatuta langileak bertan luzaroan egoteko.
 5. Murgilketagatik itotzeko arriskua duten lanak, artikuluko honetan 8.a) apartatuan xedatutakoa izan ezik, urpeko ekipoekin murgiltzean egindako lanei buruzkoa.
- c) Detektatutako lan-baldintzak direla-eta, egoerak eta Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzak hala agintzen dutenean.

2. Aurreko paragrafoko a) lerrokadan adierazten den kasuan, lan-arriskuen hasierako edo ondorengo ebaluazioan behar bezala identifikatuko dira ondoz ondoko eragiketen edo aldibereko eragiketen eraginez larriagotu edo aldatu ditzaketen arriskuak.

Aurreko paragrafoko b) lerrokadan adierazten den kasuetan, lan-arriskuen ebaluazioan behar bezala identifikatuko dira jarduera edo prozesu arriskutsuekin edo arrisku bereziekin lotutako lanpostuari dagozkion funtzioak.

Bi kasu horietan, errege-dekretu honetako 8. eta 9. artikuluetan adierazten den prebentzio-jardueraren plangintzan zehazten den moduan gauzatuko dira prebentzio-baliabideak.

Aurreko paragrafoko c) lerrokadan adierazten den kasuan, eta Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzak gauzatutako eskakizunak bete beharri kalterik egin gabe, enpresaburuak lan-arriskuen ebaluazioa berrikusteari ekingo dio, berehala, bertan hautemandako arrisku-egoerak jasotzen ez badira. Era berean, prebentzio-jardueraren plangintza aldatuko du, bertan prebentzio-baliabideak izan beharra jaso ez bada.

3. Presentzia hori Lan Arriskuen Prebentziorako azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 32 bis artikuluko 2. eta 4. paragrafoetan aurreikusitako pertsonaren batek gauzatu beharko du, eta enpresaburuak beharrezko datuak helarazi beharko dizkie bere langileei, pertsona horien identifikazioa egin ahal izan dezaten.

Presentzia esleitzen zaien pertsonen lantokian duten kokalekuak beren funtzioak betetzeko modukoa izan beharko du. Horrenbestez, kokaleku segurua izango du, pertsona horiei nahiz enpresako langileei arrisku gehigarririk ez eragiteko; horiek lantokian mantendu beharko dute horien presentzia zehazten duen egoerak jarraitzen duen bitartean.

4. Presentzia prebentzio-neurri osagarri bat da, eta prebentzio-jarduerak behar bezala betetzen diren zaintzea du helburu, horien premia zehazten duen egoeratik eratorritako arriskuekin lotuta eta arrisku horien kontrol egokia lortu ahal izateko.

Zaintza horren barne plangintzan aurreikusitako prebentzio-jardueren eraginkortasuna egiaztatuko da, baita jardura horiek aurreikusi nahi diren arriskuekin bat datozen edo aurreikusi gabeko arriskuen agerpenarekin bat datozen ere, prebentzio-baliabideak behar izatea zehazten duen egoeratik eratorri direnean.

5. Zaintzaren emaitza gisa prebentzio-jarduerak behar bezala betetzen ez direla ikusten bada, presentzia esleitzen zaien pertsonen:

- a) Prebentzio-jarduerak modu egokian eta berehala betetzeko argibideak emango dituzte.
- b) Egoera horiek enpresaburuari jakinarazi beharko dizkiote, hark hautemandako gabezia horiek zuzentzeko beharrezko neurriak har ditzan, horiek oraindik konpondu ez badira.

6. Zaintzaren ondorio gisa, prebentzio-neurrien gabezia, gutxiegitasuna edo egokitzapenik eza hautematen bada, presentzia esleitzen zaien pertsonen enpresaburuari jakinarazi beharko dizkiote egoera horiek. Izan ere, hark gabezia horiek zuzentzeko beharrezko neurriak hartu eta prebentzio-jardueraren plangintza aldatu beharko du berehala, eta hala badagokio, baita lan-arriskuen ebaluazioari dagokionez ere.

7. Lantokiko prebentzio-baliabideen presentzia ere erabili ahal izango du enpresaburuak Lan Arriskuen Prebentziorako azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 32 bis artikuluan aurreikusitakoak ez diren beste kasu batzuetan, betiere beren funtzioekin bateragarriak badira.

8. Artikulu honetan xedatutakoa behar bezala bete beharko da, xedapen horiek aplikatuko diren jardura, prozesu, eragiketa, funtzio, ekipo edo produktu jakin batzuei dagozkien prebentzio-xedapen zehatzetan aurreikusitako neurriei kalterik egin gabe, jardura edo funtzio hauetan, esaterako:

- a) Urpeko ekipoarekin egin behar diren lanak.

- b) Erradiazio ionizatzaileen eraginpean egotea ekartzen duten lanak.
- c) Aire konprimatuko kutxetan egiten diren lanak.
- d) Atmosfera leherkorren presentzia dela-eta leherketak izateko arriskua duten lanak.
- e) Lehergaiak –artikulu piroteknikoak eta lehergaiak dituzten beste gauza edo erreminta batzuk barne– manipulatzeko, garraiatzeko eta erabiltzeko diren jarduerak.
- f) Arrisku elektrikoak dituzten lanak.

9. Lantokian artikulu honetako 1.a) paragrafoan adierazten diren eragiketako edo 1.b) paragrafoan adierazten diren arrisku bereziko jardura edo prozesu arriskutsuak gauzatzen direnean, lantokian prebentzio-baliabideak izendatzea eragiketa edo jardura horiek gauzatzen dituen enpresaren erantzukizuna izango dira; hala badagokio, eta prebentzio-baliabide horiek bat baino gehiago direnean, enpresa horiek lankidetzan jardun beharko dute euren artean nahiz gainerako prebentzio-baliabideekin edo lantokiko enpresaburu titularren edo nagusiaren prebentzio-jardueren koordinazioaz arduratzen diren pertsonekin.

10. Artikulu honetan aurreikusitakoa aplikatu beharri kalterik egin gabe, enpresaburuak langileak babesteko gainerako betebeharrak guztiak bete beharko ditu, Lan Arriskuen Prebentziorako azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 14. artikuluan xedatutakoari jarraituta.

Maiatzaren 19ko 604/2006 Legegintzako Errege Dekretuaren 1.8 artikulua bidez gehitu da.

Erref.: BOE-A-2006-9379

Gehitutako testua, 2006-05-29an argitaratua, 2006-06-29tik aurrera indarrean jarrita.

Xedapen gehigarriak

Hamargarrena. Eraikuntza-lanetan prebentzio-baliabideak egotea

Eraikuntza-lanetako segurtasuneko eta osasuneko gutxieneko xedapenak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuaren aplikazio-eremuan, Lan Arriskuen Prebentziorako azaroaren 8ko 31/1995 Legearen hamalagarren xedapen gehigarrian aurreikusitako kontratista bakoitzaren lantokiko prebentzio-baliabideak 1627/1997 Errege Dekretu horretako xedapen gehigarri bakarrean zehaztutako terminoetan aplikatuko dira.

Maiatzaren 19ko 604/2006 Legegintzako Errege Dekretuaren 1.18 artikulua bidez gehitu da.

Erref.: BOE-A-2006-9379

Gehitutako testua, 2006-05-29an argitaratua, 2006-06-29tik aurrera indarrean jarrita.

(...)

Hamaikagarrena. Jarduera arriskutsuak enpresa-jardueren koordinazio-ondorioetarako

Lan Arriskuen Prebentziorako azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 24. artikulua garatzen duen urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuaren 13.1.a) artikuluan enpresa-jardueren koordinazio arloan aurreikusten denaren ondorioetarako, jarduera edo prozesu arriskutsu gisa edo arrisku bereziko jarduera gisa hartuko dira Errege Dekretu honetako I. eranskinean jasotzen diren jarduerak.

Hamabigarrena. Jarduera arriskutsuak, abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako lan arloko arau-hauste eta zehapenei buruzko Legearen testu bateginaren ondorioetarako.

1. Abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretu bidez onetsitako gizarte arloko arau-hauste eta zehapenei buruzko Legearen testu bategineko 13. artikuluko 7 eta 8.a) paragrafoetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, jarduera arriskutsu edo arrisku bereziak dituzten jarduera gisa hartuko dira Errege Dekretu honetako I. eranskinean jasotzen diren jarduerak, horiek egoera hauetakoren batean gauzatzen direnean:

- a) Lantokian garatutako jardueren interakzioak kontrolatzeko zailtasun berezia dagoenean eta horiek larri edo oso larri gisa kalifikatutako arriskuak sor ditzaketenean.
 - b) Lantokian langileen segurtasunarekin eta osasunarekin bateraezinak diren jarduerak garatu daitezela saihesteko zailtasun berezia dagoenean, aldi berean edo bata bestearen jarraian.
 - c) Prebentzio-jarduerak koordinatzeko konplexutasun berezia dagoenean, bildutako enpresa- eta langile-kopuruaren, garatutako jarduera-motaren eta lantokiaren ezaugarrien ondorioz.
2. Gizarte arloko arau-hauste eta zehapenei buruzko Legearen 13.8.b) artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, jarduera arriskutsu edo arrisku bereziko jarduera gisa hartuko dira Errege Dekretu honetako 22 bis.1.b) artikuluan jasotzen diren jarduerak.

1627/1997 Errege Dekretua, urriaren 24koa, eraikuntzako obretako segurtasuneko eta osasuneko gutxieneko xedapenak ezartzen dituena

Xedapen gehigarri bakarra. Eraikuntza-lanetan prebentzio- baliabideak egotea

Laneko arriskuen prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen hamalagarren xedapen gehigarrian aurreikusitako kontratista bakoitzaren prebentzio-baliabideak lantokian egotea errege dekretu honetan araututako eraikuntza-obrei aplikatuko zaie, berezitasun hauekin:

- a) Segurtasun- eta osasun-planak zehaztuko du prebentzio-baliabideen presentzia gauzatzeko modua.
- b) Zaintzaren ondorioz, prebentzio-jarduerak behar bezala betetzen ez diren ikusten bada, han egoteko esleipena jaso duten pertsonak jarraibideak eman beharko dituzte prebentzio-jarduerak behar bezala eta berehala betetzeko, eta inguruabar horien berri eman beharko diote enpresaburuari, ikusitako akatsak zuzentzeko beharrezko neurriak har ditzan, horiek oraindik konpondu ez badira.

- c) Zaintzaren ondorioz, prebentzio-neurriak falta direla, nahikoak ez direla edo egokiak ez direla ikusten bada, eginkizun hori esleituta duten pertsonen enpresaburuari jakinarazi beharko diote, eta hark berehala hartuko ditu gabeziak zuzentzeko beharrezko neurriak eta segurtasun-eta osasun-plana aldatuko du, errege-dekretu honen 7.4 artikuluan aurreikusitako moduan.

Maiatzaren 19ko 604/2006 Legegintzako Errege Dekretuaren 2 artikuluen bidez gehitu da.

Erref.: BOE-A-2006-9379

2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren testu bategina onartzen duena

5. artikulua. Laneko betebeharrak

Hauexek dira langileek dituzten oinarrizko betebeharrak:

- a) Bakoitzaren lanpostuari dagozkion funtzio zehatzak betetzea, fede ona eta zolitasuna arau direla.
- b) Hartzen diren laneko arriskuak prebenitzeko neurriak betetzea.
- c) Enpresaburuaren aginduak eta jarraibideak betetzea, zuzendaritzako eskumenak gauzatzeko ohikoak badira.
- d) Enpresaren jarduerarekin lehian ez jardutea, lege honetan finkatutako moduan.
- e) Produktibitatea hobetzen laguntzea.
- f) Bakoitzaren lan-kontratutik sortutako beste betebeharrak guztiak.

(...)

56. artikulua. Bidegabeko kaleratzea

(...)

4. Langileen legezko ordezkari bat edo sindikatuetako delegatu bat bada kaleratutakoa, berorri dagokio beti aukera. Aukerarik egiten ez badu, berriro lanera sartzeko aukera egiten duela jo behar da. Eta aukera, bai berariazkoa, bai ustezkoa, lanera berriro sartzeko bada, derrigorrezkoa izango da lanean hartzea. Kalte-ordaina zein berriro sartzea onartzen badu ere, 2. apartatuan aipatzen diren izapidetze-soldatak jasotzeko eskubidea izango du.

58. artikulua. Langileen hutsegiteak eta zehapenak

1. Laneko betebeharrak bete ezean, zehatu egin ditzakete langileak enpresetako zuzendaritzek, lege xedapenetan edo aplikagarri den hitzarmen kolektiboan ezarritako hutsegiteen eta zehapenen mailaketaren arabera.

68. artikulua. Bermeak

Enpresa-batzordeko kideek eta langileen ordezkariak, langileen legezko ordezkariak direnez, hitzarmen kolektiboetan xedatutakoa alde batera dela, berme hauek izango dituzte:

- a) Falta astun edo oso astunengatik ezarritako zehapenen kasuan, kontraesaneko espediente irekitzeko bermea; halakoetan, interesdunari eta enpresa-batzordeari edo langileen gainerako ordezkariari entzun behar zaie.
- b) Beste langileen gainetik, lehentasuna izango dute enpresan edo lantokian jarraitzeko, teknologia edo ekonomiako arrazoiak direla medio kontratua eten edo amaitzen denean.
- c) Bere funtzioak baliatzen dituen bitartean lanetik ez botatzea edo zigorrik ez jasotzea, ezta agintaldia amaitu eta hurrengo urtean ere, amaitze hori berritzea edo kargu-uztea tarteko gertatzen denean izan ezik, betiere kaleratzea edo zigorra langileak ordezkaritza-lanetan izandako jardunean oinarritzen bada, Langileen Estatutuaren 54. artikuluan ezarritakoa baztertu gabe, hortaz. Gainera, ezin izango zaie bereizkeriarik egin soldatetan edo lanbidean sustatzeko orduan, hain zuzen, ordezkaritza-lanetan aritzeagatik.

5/2000 Legegintzako Errege Dekretua, abuztuaren 4koa, Lan Arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena

12. artikulua. Arau-hauste larriak

15. a) Enpresan babeserako eta prebentziorako jardueraz arduratuko den langile bat edo gehiago ez izendatzea, edo hura beharrezkoa denean prebentzio-zerbitzu bat ez antolatzea edo hitzartzea, edo prebentzio-baliabideei prebentzio-jarduerak garatzeko beharrezko baliabideak ez hornitzea.
- b) Beharrezkoa den kasuetan prebentzio-baliabideak ez egotea edo horien presentziatik eragindako betebeharrak ez betetzea.

13. artikulua. Arau-hauste oso astunak

8.

- a) Lantokiko sustatzaileak edo enpresaburu titularrak bertan jarduerak garatzen dituzten pertsonak arriskuei eta babes-neurriei nahiz prebentzioari eta larrialdiei buruzko informazioa eta jarraibideak jasotzen

dituztela bermatzeko neurriak ez hartzea dagokion moduan eta lan-arriskuen prebentziorako araudian zehaztutako edukia eta irismena aintzat hartuta, erregelamendu bidez arriskutsu edo arrisku bereziko jardueratzat hartzen direnean.

- b) Beharrezkoa den kasuetan prebentzio-baliabideak ez egotea edo horien presentziatik eragindako betebeharrak ez betetzea, erregelamendu bidez arriskutsu edo arrisku bereziko jardueratzat hartzen direnean.

171/2004 Errege Dekretua, urtarrilaren 30ekoa, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 24. artikulua garatzen duena, enpresa-jardueren koordinazioaren arloan

(...)

Arauaren V. kapitulua, elkarketa gerta daitekeen egoerei aplika dakiekeena, koordinazio-bitartekoei buruzkoa da. Egoera horiei buruzko zerrenda ez-zehatza agertzen da hasieran. Zerrendatutakoen artean aukeratu ahal izango dituzte enpresariak lantokian garatutako jardueren arriskugarritasun-mailaren, bertan dauden enpresen langileen kopuruaren eta parte hartuko duten jardueren iraupenaren arabera, hauek: informazioaren eta jakinarazpenen trukea, enpresen koordinazio-bilerak, lantokian dauden prebentzio-baliabideak... Azpimarratu behar da laneko arriskuen prebentziorako enpresa-jardueren koordinazioarekin lortu nahi diren helburuak direla garrantzitsuak, eta bitartekoek garrantzia hartzen dutela helburu horiek lortzeko egokiak diren heinean.

Ondoren, koordinazio-bitartekoen zehaztapena erregulatzen da, hain zuzen, langileek jarduerak garatzen dituzten lantokiaren enpresari titullarrak –edo, hura egon ezean, enpresari nagusiak– ezarri behar dituenena. Kapitulua honen amaieran, arreta berezia jartzen da prebentzio-jardueren koordinazioaz

arduratzeko pertsona bat edo gehiago izendatzean. Araudiak nabarmentzen du hori, koordinazioa bereziki konplexua den eta zailtasunak dituen egoera jakin batzuetan koordinazioko lehentasunezko bitartekotzat hartzen baita.

V. kapitulua. Koordinazio-bitartekoak

11. artikulua. Koordinazio-bitartekoen zerrenda (ez osoa)

Alde batera utzi gabe lantokian parte hartzen duten enpresek ezartzen dituzten beste neurriak, gehi negoziazio kolektiboaren bidez ezartzen direnak eta sektore eta jarduera jakin batzuetarako lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudian ezarritakoak, hauek hartuko dira koordinazio-bitartekotzat:

- a) Parte hartzen duten enpresen artean informazioa eta komunikazioak trukatzea.
- b) Parte hartzen duten enpresen artean aldizkako bilerak egitea.
- c) Parte hartzen duten enpresetako segurtasun- eta osasun-batzordeen arteko bilerak, edo, halakorik ezean, batzorde horiek ez dituzten enpresaburuen eta prebentzio-delegatuen artekoak.
- d) Jarraibideak ematea.
- e) Lantokian dauden eta parte hartzen duten enpresetako langileei eragin diezaieketen arriskuak prebenitzeko berariazko neurriak edo jarduteko prozedurak edo protokoloak ezartzea denen artean.
- f) Parte hartzen duten enpresen prebentzio-baliabideak edukitzea lantokian.
- g) Prebentzio-jardueren koordinazioaz arduratuko den pertsona bat edo gehiago izendatzea.

12. artikulua. Koordinazio-bitartekoak zehaztea

1. Errege Dekretu honen II. kapitulutik IV.era bitartean aipatzen den informazioa jaso ondoren, eta jarduerak hasi aurretik, lantokian parte hartzen duten enpresaburuek 3. artikuluan aurreikusitako helburuak betetzeko beharrezkotzat eta egokitza jotzen dituzten koordinazio-bitartekoak ezarriko dituzte.

Langileak lanean ari diren lantokiko enpresaburu titularrari dagokio koordinazio-bitartekoak ezartzeko ekimena, edo, bestela, enpresaburu nagusiari.

2. Koordinazio-bitartekoak 3. artikuluan aipatzen diren helburuak betetzeko egokiak ez direnean, eguneratu egin beharko dira.

3. Enpresaburu bakoitzak informazioa emango die langileei Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 18.1 artikuluan aurreikusitako koordinazio-bitartekoei buruz.

Ezarritako koordinazio-bitartekoak baldin badira lantokian prebentzio-baliabideak egotea edo enpresa-jardueren koordinazioaz arduratuko den pertsona bat edo gehiago izendatzea, horiek identifikatu ahal izateko behar diren datuak emango zaizkie langileei.

13. artikulua. Prebentzio-ekintzen koordinazioaz arduratzeko pertsona bat edo gehiago izendatzea

1. Prebentzio-jardueren koordinazioaz arduratzeko pertsona bat edo gehiago izendatzea lehentasunezko koordinazio-bitartekotzat hartuko da baldintza hauetako bi edo gehiago aldi berean gertatuz gero:

- a) Parte hartzen duten enpresetako batek erregelamendu bidez arriskutsutzat edo arrisku berezikotzat jotzen diren jarduerak edo prozesuak egiten baditu lantokian, eta jarduera edo prozesu horiek gainerako enpresetako langileen segurtasunean eta osasunean eragina izan badezakete.
- b) Lantokian garatutako jardueren interakzioak kontrolatzeko zailtasun berezia dagoenean eta horiek larri edo oso larri gisa kalifikatutako arriskuak sortu ahal badituzte.
- c) Lantokian langileen segurtasunarekin eta osasunarekin bateraezinak diren jarduerak garatu daitezen saihesteko zailtasun berezia dagoenean, aldi berean edo bata bestearen jarraian.
- d) Prebentzio-jarduerak koordinatzeko konplexutasun berezia dagoenean, elkartutako enpresa- eta langile-kopuruaren, garatutako jarduera-motaren eta lantokiaren ezaugarrien ondorioz.

2. Justifikatutako arrazoi teknikoak edo antolakuntzakoak daudenean, prebentzio-jardueraz arduratzeko pertsona bat edo gehiago izendatu ordez, 3. artikuluan aipatutako helburuak betetzen direla bermatzen duten beste zeinahi koordinazio-bitarteko gauzatu ahal izango da.

3. Langileek jarduerak garatzen dituzten lantokiaren enpresari titularrak izendatuko ditu prebentzio-jardueren koordinazioaz arduratuko den pertsona edo pertsonak.

Prebentzio-jardueraz arduratuko diren pertsonak izan ahal izango dira hauek:

- a) Lantokiko enpresari titularrak edo parte hartzen duten gainerako enpresariak izendatuko duen langileetako bat edo batzuk prebentzio-

jarduerak garatzeko, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 30. artikulua eta Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzen duen urtarilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuaren 12. artikulua araber.

- b) Lantokiaren enpresa titularreko edo parte hartzen duten gainerako enpresetako prebentzio-zerbitzuko kideetako bat edo batzuk.
- c) Lantokiaren enpresa titularrak edo parte hartzen duten gainerako enpresek hitzartutako kanpoko prebentzio-zerbitzu bateko kideetako bat edo batzuk.
- d) Lantokiaren enpresa titularreko edo parte hartzen duten gainerako enpresetako langileetako bat edo batzuk, berezko prebentzio-zerbitzuko kidea izan ez arren eta izendatutako pertsona izan ez arren, 1. paragrafoan aipatutako jardueretan beharrezkoak diren ezagutzak, kualifikazioa eta esperientzia baditu.
- e) Lantokiaren enpresa titularreko beste zeinahi langile, enpresaren egitura hierarkikoan duen kokapenagatik eta lantokian garatzen diren ekoizpen-prozesuarekin edo prozesuekin lotuta gauzatzen dituzten funtzio teknikoengatik gaitasuna badu enpresa-jarduerak koordinatzeko.
- f) Prebentzio-jardueren koordinazioan lan egiten duten enpresetako pertsona bat edo batzuk, 1. paragrafoan aipatutako jardueretan beharrezkoak diren gaitasunak, ezagutzak eta kualifikazioa baditu.

Nolanahi ere, prebentzio-jarduerak koordinatzeaz arduratuko diren pertsonak lankidetzan jardun behar dute parte hartzen duten enpresen prebentzio-bitartekoekin.

4. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 32 bis artikuluan aurreikusitakoa betez izendatuko den pertsona edo pertsonak arduratu ahal izango dira, era berean, prebentzio-jardueren koordinazioaz beren enpresetako prebentzio-bitartekoek lantokian egon behar dutenean.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa aplikatuko da soilik arestian adierazitako a)-d) lerroketan aurreikusitako pertsonen kasuan; betiere, aginduta dituen funtzio guztiak betetzearekin bateragarria baldin bada.

(...)

20. artikulua. Prebentzio-jardueraren hitzarmena

1. Enpresaburuak prebentzio-jarduera garatzeko norbere baliabide nahikoak ez dituenean eta hura enpresaz kanpoko prebentzio-zerbitzu baten

edo gehiagoren bidez garatu behar duenean, idatziz hitzartu beharko du zerbitzua. Hitzarmen horrek alderdi hauek hartuko ditu barne, guzxienez:

- a) Enpresaz kanpoko prebentzio-zerbitzu gisa jarduten duen entitate espezializatuaren identifikazioa.
- b) Jarduera bere gain hartuko duen enpresaren eta haren lantokien identifikazioa. Eraikuntza-lanetako segurtasun- eta osasun-araudiaren xede diren jarduerak gauzatzen dituzten enpresen kasuan, enpresak esku hartzen duen obren esparrura hedatutako jarduera hitzartuak gaineratuko dira.
- c) Hitzarmenaren xede diren prebentzio-espezialitatea edo espezialitateak. Horieta bakoitzaren kasuan, azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 31.3 artikuluan aurreikusitako en artean bereganatutako funtzio zehatzak adieraziko dira, baita bereganatutako funtzioak garatzeko egingo diren jarduketa zehatzak ere, hitzarmena indarrean den bitartean. Jarduketa horiek zerbitzuak proposatutako eta enpresak onetsitako prebentzio-jardueraren plangintza eta urteko programazioa kontuan hartuta garatuko dira.

Zerbitzuak norbere prebentzio-baliabideekin egiten direnean eta hitzarmenean hala jasotzen den kasuetan salbu, alderdi hauek hitzartu beharko dira:

- 1. Laneko segurtasunari dagokion espezialitatea hitzartzen bada, kanpoko prebentzio-zerbitzuak dagozkion neurri zuzentzaileak identifikatu, ebaluatu eta proposatzeko konpromisoa hartuko du. Horretarako, enpresan dauden izaera horretako arrisku guztiak hartuko dira kontuan, baita makinak, ekipoen eta instalazioen baldintzek sortu ditzaketenak ere; gainera, horiek modu egokian mantentzen direla egiaztatuko da, segurtasun industrialeko araudian zehaztutako ziurtatze- eta ikuskaritza-jarduketei eta lantokietako, lokaletako eta zerbitzu eta babeserako instalazioetako baldintza orokorretatik eratorritako jarduketei kalterik egin gabe.
- 2. Industria-higieneari dagokion espezialitatea hitzartzen bada, kanpoko prebentzio-zerbitzuak dagozkion neurri zuzentzaileak identifikatu, ebaluatu eta proposatzeko konpromisoa hartuko du. Horretarako, enpresan egon daitezkeen izaera horretako arrisku guztiak hartu beharko ditu kontuan. Horrez gain, neurketak egin beharra baloratu beharko du, betiere neurketa horiek hitzarmenaren baldintza ekonomikoetan txertatzeari edo ez txertatzeari kalterik egin gabe.
- 3. Ergonomia eta psikosoziologia aplikatuaren espezialitatea hitzartzen bada, kanpoko prebentzio-zerbitzuak dagozkion neurri zuzentzaileak

- identifikatu, ebaluatu eta proposatzeko konpromisoa hartuko du, eta horretarako, enpresan egon daitezkeen izaera horretako arrisku guztiak hartuko ditu kontuan.
4. Kanpoko prebentzio-zerbitzuak arriskuen ebaluazioa berrikusteko konpromisoa hartuko du antolamendu juridikoan hala eskatzen den kasuetan, eta bereziki, gertatu diren langileen osasunerako kalteak direla eta.
 5. Eraikuntza-lanetako segurtasun- eta osasun-araudia bete behar duten lantokiak dituzten enpresen kasuan, araudi aplikagarriari jarraituta garatu beharreko jarduketak zehaztuko dira.
- d) Egon daitezkeen arriskuek eskatzen duten aldizkakotasunarekin, prebentzio-zerbitzuak ebaluaziotik eratorritako prebentzio-jarduerak ezartzeko jarraipen- eta balorazio-jarduerak gauzatu beharko ditu.
 - e) Enpresako bere jardueren urteko memorian, prebentzio-zerbitzuak lan-arriskuen prebentzioa enpresaren kudeaketa-sistema orokorrean txertatu izanaren eraginkortasuna baloratu beharko du hitzartutako prebentzio-jardurekin lotutako lan-arriskuen prebentzio-plana ezarri eta aplikatuz.
 - f) Prebentzio-zerbitzuak hitzartutako jarduerak gauzatzeko beharrezko giza baliabideak eta baliabide materialak xedatu beharko ditu urtero.
 - g) Enpresak lanetik eragindako osasunaren kalteak jakinarazi beharko dizkio kanpoko prebentzio-zerbitzuari.
 - h) Enpresak beste prebentzio-baliabide edo entitate batzuekin gauzatutako jarduerak edo funtzioak jakinarazi beharko dizkio kanpoko prebentzio-zerbitzuari, horrela, horien arteko lankidetzak eta koordinazioa errazteko.
 - i) Hitzarmenaren iraupena.
 - j) Hitzarmenaren baldintza ekonomikoak, baldintza horietan gaineratzen ez diren prebentzio-funtzioak edo -jarduerak zerrendatuz.
 - k) Kanpoko prebentzio-zerbitzuak enpresaburuari, langileei, horien ordezkariari eta ordezkari-organismo espezializatuari aholkatzeko duen betebeharra, araudi aplikagarrian zehaztutako terminoetan.
 - l) Legez eskatu daitezkeen eta hitzarmenarekin estaltzen ez diren prebentzio-jardura zehatzak.
2. Betiere 28.2.b) artikuluan zehazten denari kalterik egin gabe, prebentzio-zerbitzu gisa jarduten duten entitate espezializatuak urteko memoria bat jarri beharko dute lan-agintaritzen eta osasun-agintaritzen eskura. Bertan,

denboraldi horretan zerbitzuak eskaini zaizkien enpresak edo lantokiak gehituko dira modu bereizian, horien izaera adieraziz.

Era berean, prebentzio-zerbitzu gisa jarduten duten enpresei Lan Arriskuen Prebentziorako Legearen 39. artikuluko 2.d) paragrafoan adierazten diren memoria eta urteko programazioa helarazi beharko zaizkie, Segurtasun eta Osasun Batzordeak artikuluko horretan aurreikusitako terminoetan ezagutu dezan.

83/2010 irizpide teknikoa, prebentzio-baliabideak enpresetan, zentroetan eta lantokietan egoteari buruzkoa

Abenduaren 12ko 54/2003 Legeak gauzatu zuen Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen erreformak, besteak beste, «prebentzio-baliabideen» figura sortu zuen. Horren bidez, lehenengoaren aplikazioan egiaztatutako defizitetako bat arindu nahi da, enpresa askotan prebentzio-jarduera kanpora ateratzeko prozesu bat gertatu izanaren ondorioz, eta hori ez da enpresaren bitartekoekin gauzatzen, baizik eta legean bertan aurreikusitako beste aukera batzuen bidez, hala nola kanpoko prebentzio-zerbitzuen edo prebentzio-zerbitzu mankomunatuaren bidez.

Horren ondorioetako bat izan da prebentzio-zerbitzu horietako teknikarien presentzia oso txikia izatea lantokietan, arriskuen ebaluazioa egiteko, prebentzio-jarduera planifikatzeko, prestakuntza-ikastaroak egiteko eta, hala badagokio, osasuna zaintzeko azterketak egiteko behar den presentziaz gain.

Prebentzio-antolamenduko barne modalitateak erabiltzen direnean, hala nola prebentzio-zerbitzu propioak edo izendatutako langileenak, enpresan edo lantokian egon ohi dira, baina ez dute beti beren jarduera garatu, eta nolabaiteko arriskua zuten enpresako lanetan, jardueretan edo ataletan egon ohi dira, arrisku hori prebenitzeko prebentzio-jardueraren plangintzan jasotako neurriak zorrotz aplikatzen diren egiaztatzeko.

Aurreko egoerei aurrea hartzeko, «prebentzio-baliabide»en figura sortu zen. Arau hauek sartu ziren figura horien araudian:

- Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 32 bis artikulua, Laneko Arriskuen Prebentziorako arau-esparrua aldatzen duen abenduaren 12ko 54/2003 Legeak sartutako aldaketa.
- Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onartzen duen maiatzaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuaren 22 bis artikulua, maiatzaren 19ko 604/2006 Errege Dekretuak sartutako aldaketa.

Eraikuntza-obren berezitasunak hauetan jasota daude: 31/1995 Legearen hamalagarren xedapen gehigarrian, 39/1997 Errege Dekretuaren hamargarren xedapen gehigarrian eta Eraikuntza-obretako gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuaren xedapen gehigarri bakarrean.

32 bis artikuluan ezartzen da hiru kasutan beharrezkoa izango dela lantokian prebentzio-baliabideak egotea, baliabide horiek antolatze modua edozein dela ere. Bada, hirugarren kasuari dagokionez, hau da, hautemandako lan-baldintzak direla-eta, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzak presentzia horren premia ezartzen duenean, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzaren Zuzendaritza Nagusiak 39/2004 Irizpide Teknikoa onartu zuen Lan Ikuskatzailetzak errekerimendu hori baliatzea eragin dezaketen egoeretan jarduteko jarraibide batzuk ezartzeko, jarraibide gehiago ere egon daitezkeen arren.

Irizpide tekniko horren bidez, ikuskapen-jardun homogeneous bermatu nahi da, prebentzio-baliabide baten presentzia eragiten duten hiru kasu horietan. Horrez gain, prebentzio-figura sortu zenetik, haren inguruan sortu diren gai eta kontsulta jakin batzuei ere erantzun nahi die: esaterako, zer enpresa behartuta dauden, zer langile izendatu daitekeen, funtzioak, prestakuntza eta abar. Zalantzarik gabe, lan-ikuskatzaileei lagunduko die enpresei eta langileei laguntza tekniko ematen, beren funtzioa betetzean.

Ondorioz, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 30eko 30/1992 Legearen (aurrerantzean, AJAPEL) 21. artikuluan ezarritako izaerarekin, Zuzendaritza Nagusi honek, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzaren Agintaritza Nagusia den aldetik, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzak antolatzen duen azaroaren 14ko 42/1997 Legearen 18.3.12 artikuluan ezarritako eskumenak baliatuz, Laneko Harremanen, Laneko Arriskuen Prebentzioaren eta Berdintasun Neurrien Koordinaziorako Zuzendariordetza Nagusiak proposatuta, eta Laneko Zuzendaritza Nagusiari, Laneko Segurtasun eta

Higieneko Institutu Nazionalari eta autonomia-erkidegoetako agintari eskudunei kontsulta egin ondoren, hau ematen du:

Irizpide teknikoak

Lehenengoa. Prebentzio-baliabideak nahitaezkoak diren kasuetan

Lehenik eta behin, komeni da zehaztea lantoki batean prebentzio-baliabide bat egotea prebentzio-neurri osagarria dela, hau da, enpresaburua dela langileen segurtasuna eta osasuna bermatzeko behar diren prebentzio-neurriak hartzera behartuta dagoena; beraz, prebentzio-baliabidea izendatzeak eta bertan jarduteak ez du baztertzeko edo ordeztuko LAPLren 14.1 artikuluan aipatzen den babes-betebeharra. Beraz, enpresaburuaren beste neurri bat prebentzio-baliabidea da, eta ezin izango da erabili nahitaezko babes-neurriak ordeztzeko, jarduera gainbegiratu eta kontrolatu behar delako aitzakiaz.

Behin aurrekoa argituta, kasu hauetan ezartzen da prebentzio-baliabidea behar dela:

A) Prozesu edo jardueraren garapenean, aldibereko edo ondoz ondoko eragiketen ondorioz, arrisku horiek larritu edo aldatzen badira, eta lan-metodo egokiak aplikatzen diren kontrolatzea beharrezko bihurtzen bada (LAPLren 32 bis 1 a) artikulua eta Prebentzio-Zerbitzuen Erregelamenduaren 22 bis 1 a) artikulua).

54/2003 Legearen Zioen Azalpenean argitzen da kasu horren funtsa. Hauxe ezartzen da: «Legeak ez ditu aipatzen ondoz ondoko edo aldibereko lanen edozein kasu, baizik eta soilik lan-metodoak aplikatzeko moduaren kontrol espezifiko eskatzen duten kasuak; izan ere, metodo horiek modu desegokian aplikatzeak arriskua larriagotzea edo aldatzea ekar dezake. Horretarako, prebentzio-baliabideak behar dira, lan-metodoak zorrotz betetzen diren bermatzeko eta, horrela, arriskua kontrolatzeko.»

Horrenbestez, eskakizun hauek bete behar dira, kasu hori aplikatu ahal izateko:

1. Aldibereko edo ondoz ondoko eragiketak edo jarduerak izatea.
2. Horien ondorioz, arriskuak larriagotzeko edo aldatzeko aukera egotea.
3. Lan-metodoak ongi aplikatzen diren kontrolatu behar denean.

Nolanahi ere, 39/1997 Errege Dekretuaren 22 bis 2 artikuluan 1. paragrafoan ezarritakoa ere kontuan hartu behar da. Bertan zehazten da

laneko arriskuen ebaluazioak (hasierakoak edo ondorengoak) identifikatuko dituela ondoz ondoko edo aldibereko lanengatik larriagotu edo aldatu daitezkeen arriskuak.

Eraikuntza-obrei dagokienez, 1627/1997 Errege Dekretuaren Xedapen Gehigarri Bakarrak adierazten du segurtasun- eta osasun-planean zehaztu behar dela prebentzio-baliabideen presentzia gauzatzeko modua. Erregulazio hori erregelamenduaren 7.3 artikuluekin lotu behar da, zeinak adierazten baitu, obrako lanpostuei dagokienez, laneko segurtasun- eta osasun-plana (...) oinarritzko tresna dela arriskuak identifikatzeko eta, hala badagokio, ebaluatzeko jarduerak antolatzeke eta prebentzio-jarduera planifikatzeko. Horiek horrela, ulertu behar da plan horretan ezarri beharko dela lehen kasu horretan zer arrisku-egoeratan bermatu behar den prebentzio-baliabidearen presentzia.

B) Erregelamenduen arabera arriskutsu diren edo arrisku bereziak dituzten prozesuak edo jarduerak egiten direnean (LAPLren 32 bis 1 b) artikulua eta 39/1997 Errege Dekretuaren 22 bis 1 b) artikulua).

1. 39/1997 Errege Dekretua aldatu zuen maiatzaren 19ko 604/2006 Errege Dekretuak zehaztu zuen apartatu hori, ezarri baitzuen jarduera edo prozesu hauek arriskua edo arrisku bereziak dituztela:

- Toki garai batetik erortzeko arrisku bereziki larria sortzen duten lanak.
- Lurperatuta geratzeko edo hondoratzeko arriskuak sortzen dituzten lanak.
- CE onespen-adierazpenik ez duten makinak erabiltzen dituzten jarduerak, aitorpen hori nahitaezkoa izan aurretik saldu zirelako.
- Esparru itxietan egin behar diren lanak.
- Urperatzearen ondorioz itotzeko arriskua sortzen duten lanak.

Kasu horretan ere, 22 bis 2 zenbakiko 2. paragrafoan ezartzen da arriskuen ebaluazioan identifikatuko direla jarduera edo prozesu arriskutsuei edo arrisku bereziei lotutako lanpostuko lanak edo zereginak.

Eraikuntza-sektoreari dagokionez, 31/1995 Legearen Hamalagarren Xedapen Gehigarrian: *32 bis artikulua 1. paragrafoa a) apartatuan aurreikusitako kasuan, kontratista bakoitzaren prebentzio-baliabideen presentzia beharrezkoa izango da obran arrisku bereziko lanak egiten direnean, 1627/1997 Errege Dekretuan definitzen diren moduan.* Badirudi argi dagoela akats bat dagoela, eta xedapen gehigarri hori b) apartatuari egiten diola erreferentzia, eta ez a) apartatuari. Nolanahi ere, 1627/1997 Errege Dekretuari erreferentzia egiten zaio, zehazki, 2.1 b) apartuari eta II. eranskinari. Eranskinetan jaso da arrisku bereziak eragiten dituzten lanen zerrenda amaitu gabea.

2. Prebentzio-baliabide bat eskatzen duten lanen adibide gisan erabiltzen den «toki garai batetik erortzeko arrisku larria sortzen duten lanak» esaldiari buruzko ohar bat egin behar da, horrek ez baitu esan nahi garaierako edozein arriskuk (bi metrotik gorako arrisku orok) prebentzio-baliabide baten presentzia eragiten duenik. Hala balitz, legegileak «toki garai batetik erortzeko arrisku larria sortzen duten lanak» esamoldearen ordeztu, «garaiera-arriskua» esamoldea erabiliko zukeen.

Arau hori interpretatzeko abiapuntua Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionalaren Eraikuntzako Obrei buruzko Arriskuak Ebaluatzeko eta Prebenitzeko Gida Teknikoan dugu. Gida hori loteslea ez bada ere, 1627/1997 Errege Dekretuaren 2.1.b) artikulua aipatzen duen «larritasun bereziko arriskutzat» hartu behar denari buruzko iruzkin bat egiten du. Erregelamenduaren II. eranskinari erreferentzia egiten dio artikulua horrek, eta bertan garaiera-arrisku bereziki larria jasotzen da. Horiek horrela,

...lan bat 2.1.b) atalean sartuta dagoela joko da, prebentzio-printzipioak aplikatu ondoren, arriskuak larritasun berezia izaten jarraitzen duenean, eta, hartara, prebentzio-neurri gehigarriak hartu behar direnean (bereziki, babes kolektiboko edo indibidualen neurriak), langileak kalte larria jasateko aukera saihesteko edo minimizatzeke.

Lan bat II. eranskinean jasota ez egoteak ez du esan nahi lan horrek ezin dienik eragin arrisku bereziki larririk lan hori egiten duten langileei.

Arriskuen ebaluazioaren bidez eskuratuko da horren gaineko erabaki bat hartzeko behar den informazioa.

Aurrekoarekin bat etorruta, garaiera-lan batzuetan, prebentzio-printzipioak modu koherente eta arduratsuan aplikatu ondoren, garaieran garatutako jarduera-motagatik, aplikatutako lan-prozedurengatik edo lanpostuaren inguruneagatik, arriskuak «bereziki larria» izaten jarraitzen badu, eta, beraz, langileak kalte larria hartu ez dezan, edo kalte hori txikiagoa izan dadin, beharrezkoa bada prebentzio-neurri osagarriak hartzea –banakakoak edo kolektiboak–, lan horiek prebentzio-baliabide baten premia eragingo lukete.

Aurrekoari dagokionez, argitu behar da eraikuntzan egoera zehatz batzuk osatzen direla (lanpostuaren ingurunearengatik, garatutako jarduera gehienak arriskutsuak izateagatik, beste enpresa batzuekin batera lan egiteagatik, etab.). Horren ondorioz, garaiera-arriskuak «bereziki larritzat» hartu behar dira askotan. Edonola ere, kasu zehatz bakoitzari erreparatu beharko zaio inguruabar horiek baloratzeke.

Hauek dira baliabide horren presentzia eska dezaketen garaiera-arrisku bereziko lanen adibideak, erreferentzia gisa balio baitezakete antzeko

eragiketan edo jardueretan prebentzio-baliabidea eskatzeko: soken bidezko sarbide- eta kokatze-teknikak behar dituzten lanak, aldarmioak edo segurtasun-sareak muntatzeko eta desmuntatzeko lanak, sei metro baino gehiagoko garaierako lanak eta garaiera txikiagoan egindako lanak, baldin eta langilearen babesa ezin baita ziurtatu, arrisku horren aurkako norbera babesteko ekipamendua eduki ezean.

Bi metro baino gehixeagoko garaieran egindako lanei dagokienez, zeinetan arriskua larriagotu edo aldatu egin baitaiteke aldi berean edo elkarren segidan egiten diren beste eragiketa batzuen ondorioz, eta, hartara, lan-metodoak behar bezala aplikatzen diren kontrolatu behar baita, Erregelamenduaren 22 bis 1. artikulua a) letran azaldutako kasua osatuko litzateke.

Edonola ere, aipatu ditugun garaiera-arrisku bereziak eragiten dituzten lan horiek eta lehenago aipatu ditugun prebentzio-baliabidea behar duten lanek jasota egon behar dute obra baten arriskuen ebaluazioan edo segurtasun- eta osasun-planean (39/1997 Errege Dekretuaren 22.2 artikuluko 2. zenbakia; eta LAPLren 14. xedapen gehigarria).

C) Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzak hala eskatzen duenean, kasuaren zirkunstantziek hala eskatzen badute, hautemandako lan-baldintzak direla-eta.

Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzak lantokian prebentzio-baliabideak egotea eskatu ahal izango du, baldin eta ikuskapen-bisita bat egin ondoren eta bildutako informazio guztia ikusita, uste badu enpresaburuak jarduera, prozesu edo eragiketa batean hartu dituen prebentzio-neurriak ez direla nahikorik edo egokirik, LAPLren 15. artikuluan ezarritako prebentzio-ekintzaren printzipioak koherentziaz eta arduraz aplikatzeko, eta neurri horiek ezin badira berehala hartu. Kasu horretan enpresari eskatu ahalko zaio jarduera horietan prebentzio-baliabide bat aldi baterako ezartzeko, enpresa horrek prebentzio-neurriak emandako epean zuzentzen dituen bitartean, betiere langileentzako arrisku larri eta hur-hurrekorik ez badago; hala izango balitz, lanak geldiarazi beharko lirateke.

Noizbehinkako edo salbuespenezko jarduerak egiten direnean ere eskatu ahal izango du prebentzio-baliabidearen presentzia, baldin eta uste bada ez dagoela arrisku guztien erabateko kontrolik, baina betiere kontuan hartuta, lehenago esan bezala, prebentzio-baliabide bat izendatzea ezin dela ordezkotzeko neurri iraunkor gisa hartu, enpresak kasu bakoitzean egokiak diren prebentzio- eta babes-neurriak hartzeko duen betebeharraren ordezkotzeko.

Era berean, prebentzio-baliabideen presentzia eskatu ahal izango da baldin eta lanak egiteko langileak 18 urtetik beherakoak, langile bereziki sentikorrak

edo trebakuntzaren hasierako fasean sartu berri diren langileak badira, enpresaren berezko langileak izan zein aldi baterako laneko enpresako langileak izan. Langile horien ezaugarriak direla eta, edo bete behar duten lanpostuan esperientzia ez izateagatik, egiten duten jardueraren berariazko arriskuak larriagoak izan daitezke, eta langile horien edo hirugarrenen segurtasuna eta osasuna arriskuan jar daitezke. Hala ere, kasu horietan ere, kasu zehatzaren inguruabarrei erreparatu beharko zaie, eta ikuskatzaileak baloratu beharko ditu beti, prebentzio-baliabide baten presentzia eskatu aurretik.

Nolanahi ere, errekerimendua nahitaezkoa izango da enpresaren jarduerari aplikatu dakiokeen berariazko araudia dagoenean, eta irizpide tekniko horretan aztertutako betebeharren izaera bereko edo antzeko betebeharrak ezartzen dituenean.

LAPLren 43. artikulua en eskaerak bete behar dira errekerimendu hori egitean. Errekerimendu horretan zehaztuko dira errekerimendua justifikatzen duten lan edo eragiketa eta arrisku-egoera zehatzak. Hala bada, badagokio, arriskuen ebaluazioa aldatzeko ere eskatuko da, baldin eta detektatutako arrisku-egoera hori arriskuen ebaluazioan jaso ez bada; modu berean, prebentzio-jardueraren plangintza aldatzeko ere eskatuko da, plangintzan prebentzio-baliabidearen beharra jaso ez bada (39/1997 Errege Dekretuaren 22 bis artikuluko 2 zenbakiaren azken paragrafoa).

Bigarrena. Prebentzio-baliabideak izendatu edo esleitu behar dituzten enpresak

A) Eraikuntzaz bestelako sektoreak

Askotan, lantoki batean enpresa bakar batek egiten du lan, beraz, enpresa horrek izendatzen du prebentzio-baliabidea, baina maiz enpresa batek baino gehiagok izendatu behar dute. Horren harira, parte hartzen duten enpresa horien arteko harremana edozein dela ere (espazio fisiko berean egotea edo haien arteko harreman juridikoa izatea), 39/1997 Errege Dekretuaren 22 bis artikulua 9. apartatuak konponbide hau jasotzen du:

Lantokian artikuluko honetako 1.a) apartatuan adierazten diren eragiketak edo 1.b) apartatuan adierazten diren arrisku bereziko jardura edo prozesu arriskutsuak gauzatzen direnean, lantokian prebentzio-baliabideak izendatzea eragiketa edo jardura horiek gauzatzen dituen enpresaren erantzukizuna izango dira; hala bada, badagokio, eta prebentzio-baliabide batzuk daudenean, enpresa horiek lankidetzan jardun beharko dute euren artean

nahiz gainerako prebentzio-baliabideekin edo lantokiko enpresaburu titularren edo nagusiaren prebentzio-jardueren koordinazioaz arduratzen diren pertsonekin.

Artikulu hori honela ulertu behar da: prebentzio-baliabide baten presentzia eragiten duen arriskua zein enpresak sortzen duen, enpresa horrek (edo horiek) bete beharko du (edo dute) betebeharrak. Bestela esanda, beren jarduerak besteen arriskua aldatzen edo larriagotzen duen enpresak bete beharko du (adibidez, garabi bat erabiltzea objektuak altxatzeko, eta prebentzio-baliabiderik behar ez duen jarduerak bat egiten duen beste enpresa bateko langileak hurbil egotea). Erregelamenduaren 22 bis artikuluan 9. apartatuan haxe ezartzen da: «... Eragiketa edo jarduerak horiek egiten dituen enpresa...»ri dagokiola betebeharrak. Horrenbestez, ulertu behar da enpresa horiek direla lan-metodoen kontrolaren premia sortzen dutenak (22 bis artikuluan 1 a), hau da, badirudi «arriskuak» sortzen dituzten eragiketak edo besteentzat arriskutsuak izan daitezkeen eragiketak egiten dituzten enpresei erreferentzia egiten diela.

Horrek esan nahi du, eraikuntza-obretan ez bezala, aurrerago esango den bezala, 39/1997 Errege Dekretuaren 22 bis 1 b) artikuluan aurreikusitako lan arriskutsuetako bat azpikontratatistak –eta ez kontratatistak– soilik egiten badu (adibidez, garaiera-arrisku berezia sortzen duen lan bat) eta lan horrek prebentzio-baliabide baten premia sortzen badu, eta arriskuen ebaluazioan hala jasota egon behar badu, enpresa azpikontrataista izango dela, eta ez kontrataista, baliabide hori izendatzeko betebeharrak duena.

Hori guztia Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 24.3 artikuluan xedatutakoa eta kontratatistari dagozkion gainerako betebeharrak alde batera utzi gabe.

Aurrekoa gorabehera, enpresa batek zentro batean dauden arriskuak aldatu edo larriagotu ditzakeen «aldibereko eragiketak» egiten dituenen, eta horrek beste enpresa baten jarduerari eragiten dienean (adibidez, enpresa batek produktu kimikoak –pestizidak– erabiltzen dituenen eta horrek geroago sartuko diren beste enpresa bateko langileei eragingo dienean), kasu horretan, lanak egiten dituen bigarren enpresak izango du baliabidea izendatzeko betebeharrak, hark kontrolatu beharko baititu bere lan-metodoak, eta metodo horiek aldatuko dira lehenengo enpresak egiten duen jardueraren ondorioz. Horrek, jakina, informazio-trukea eta koordinatze-bitartekoak eskatuko ditu, betiere inguruabar jakin batzuen ondorioz ez bada suertatzen lehenengo enpresak prebentzio-baliabidea eman behar izatea.

«Aldibereko eta ondoz ondoko jarduerak» egiten dituzten hainbat enpresa daudenean, eta, enpresa bakoitzak egiten dituen jardueren ondorioz,

jarduera horien arriskuak aldatu edo larriagotu badaitezke, eta lan-metodo horiek aldi berean kontrolatu behar badira –adibidez, enpresa batek enpresa kimiko batean jarduten du, eta produktu edota substantzia kimikoak erabiltzen ditu–, prebentzio-baliabideak esleitzeko betebeharra eragiketa edo jarduera horiek egiten dituzten enpresa guztiena izango da. Kasu horretan, arauak ezartzen du prebentzio-baliabide batzuk daudenean, lankidetzan jardun beharko dutela elkarrekin, bai eta gainerako prebentzio-baliabideekin ere.

Lantoki berean enpresa batzuek batera jarduten dutenean –lehenago aipatu ditugun kasuak–, jarduerak koordinatu behar dituzte, eta horien erregulazioa, batez ere, lantokian enpresa-jarduerak koordinatzeari buruzko urtarilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuan zehazten da (Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 24. artikulua garatzen du). Horregatik, bi erregulazioetan xedatutakoa (prebentzio-baliabideena eta koordinazio-baliabideena) lotu behar da, eta egiaztatu da ez dagoela kontraesanik bi erregulazioen artean. Izan ere, 171/2004 Errege Dekretuaren 11. artikulua koordinazio-bitartekoen zerrenda amaitu gabearen barne hartzen du: «lantokian parte hartzen duten enpresen prebentzio-baliabideen presentzia», hargatik eragotzi gabe prebentzio-jardueren koordinatzaileak (halakorik balego) bete behar dituen funtzioak.

B) Eraikuntzaren sektorea

1. 39/1997 Errege Dekretuaren 22. artikulua 9. apartatuan ezarritako betebeharra, hau da, eragiketak edo jarduerak egiten dituzten enpresek prebentzio-baliabideak izendatzeari buruzkoa, ez da aplikagarria eraikuntza-obretan. Izan ere, eremu horretako berezitasunak LAPLren Hamalagarren Xedapen Gehigarrian jasotzen dira (lehenago azaldu dugun moduan). Horren arabera: «a) Nahitaez egon behar diren prebentzio-baliabideak kontratista bakoitzari aplikatuko zaizkio».

2. Enpresa edo pertsona bat kontratistatzat hartzeko, kontuan hartu behar da 1627/1997 Errege Dekretuaren 2.1.h) artikuluan ezartzen den definizioa (32/2006 Legearen 3 e) artikuluan aurreikusitako definizioarekin bat datorrena), hau da, sustatzailearen aurrean, giza baliabide eta baliabide material propioekin edo besteren baliabideekin, obra guztiak edo haien zati bat kontratu bidez eta proiektua betez gauzatzeko konpromisoa hartzen duen pertsona fisiko edo juridikoa.

Aurrekoaren arabera, enpresa bat prebentzio-baliabide bat izendatzera behartuta egon dadin, beharrezkoa da kontratista nagusi gisa jardutea, hau da, sustatzailearekin zuzenean kontratatzen duen pertsona izatea.

Hala ere, besteak beste, hauek ere kontratatatzat hartzen dira, eta aurreko betebeharraren eraginpean daude:

- a) Sustatzailea, bere giza baliabide eta baliabide materialekin obraren zati guztiak edo batzuk zuzenean egiten dituen (32/2006 Legearen 3 e) 2 artikulua); hau da, enpresa berean sustatzaile eta kontratista lanak pertsona berak egiten dituenen. Kasu horretan azpikontratatatzat hartuko litzateke kontratista sustatzailearekin kontratua egiten duen enpresa, kontratatzailea izan beharrean.
- b) Besteren kontura ari diren langileak baliatzen dituen langile autonomia, baldin eta sustatzailearekin zuzenean kontratatu badu obra egitea.
- c) Aldi baterako laneko enpresa, zeinak sustatzailearekin zuzeneko kontratua egin eta obra zuzenean gauzatzen baitu. Izan ere, obra gauzatzen ez badu, enpresa kide bakoitzak prebentzio-baliabide bat izendatu beharko du. Obra gauzatzeak esan nahi du obra horretan langile propioek lan egitea.

3. Beraz, eraikuntza-obren esparruan, legegileak berariaz jaso nahi izan du betebeharrak hori enpresa kontratistek soilik aplikatu behar zaiela, eta ez azpikontratistek. Ideia hori bat dator LAPLren 14. xedapen gehigarriaren c) letran ezarritakoarekin, bertan adierazten baita prebentzio-baliabideen eginkizuna «laneko segurtasun- eta osasun-planeari jasotako neurriak betetzen diren zaintzea eta horien eraginkortasuna egiaztatzea» dela; beraz, jarduera horien eta neurri zuzentzaileen kontrola ezin da enpresa azpikontratisten esku utzi, enpresa kontratistari baitagokio obraren segurtasun-plana egitea 1627/1997 Errege Dekretuaren 7. artikulua arabera, eta azpikontratistek ezin zaie eraginkortasuna baloratzeko eta neurri zuzentzaileak ezartzeko funtzioa esleitu.

Edonola ere, prebentzio-baliabideak ez du izango planeko prebentzio-neurri guztiak gainbegiratzeko betebeharra (alderdi hori aurrerago, funtzioei buruzko 4. atalean, jorratuko da), baizik eta planak berak zehazten dituenak soilik.

4. Aurrekoa gorabehera, haien artean sinatutako merkataritza-kontratuan oinarrituta, kontratista batek prebentzio-baliabide propioak izatea ere eskatu ahal die azpikontratistek, baina ohar batzuk egin behar dira inguruabar horren gainean:

- Lehenik eta behin, eskakizun horrek ez du lege- edo erregelamendu-babesik; horren ordez, alderdi batek kontratu pribatu batean bere gain hartzen dituen betebeharren zati bat baino gehiago ez da, eta besteak hura sinatzeko klausula baldintzatzaile gisa sartzen du.

- Bigarrenik, azpikontratistek prebentzio-baliabideak izendatzen badituzte, horrek ez die salbuesten bere prebentzio-baliabide propioa edukitzetik. Izan ere, horretarako ezartzen da legezko betebeharra, eta haren presentzia izango da lan-ikuskatzaileak bere ikuskapen-jardunean egiaztatu edo, hala badagokio, eskatu beharko duena, bien artean egon daitekeen kontratu pribatua alde batera utzita.

5. Edonola ere, 1627/1997 Errege Dekretuaren 11. artikuluko c) apartatuan ezarritakoaren ondorioz, eraikuntza-obra batean prebentzio-baliabideak egoteak ez ditu kontratistak edota azpikontratistak salbuesten LAPLren 24. artikuluan eta 171/2004 Errege Dekretuan ezarritako koordinazio-betebeharrak betetzetik, Errege Dekretu horren 1. xedapen gehigarrian eraikuntza-obretarako jasotako berezitasunak ere aintzat hartuta.

Hirugarrena. Prebentzio-baliabidearen funtzioen esleipena jaso dezaketen pertsonak

A) Nork jaso dezakeen izendapen hori

Legearen LAPLren 32 bis 2 artikuluen arabera, hauek prebentzio-baliabidetza hartzen dira, eta enpresaburuak dagokien tokian egotea esleitu ahalko die:

- Enpresak izendatutako langile bat edo batzuk (Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 30 artikuluan aipatzen den figura hartzen da halakotzat).
- Enpresako prebentzio-zerbitzuko partaide bat edo batzuk.
- Enpresak hitzartutako kanpoko prebentzio-zerbitzuko edo -zerbitzuetako partaide bat edo gehiago.

Enpresak prebentzio-antolamenduaren barneko eredu bat baldin badu (izendatutako langileak edo prebentzio-zerbitzu propioa), ez dago legezko eragozpenik enpresa horrek kanpoko prebentzio-zerbitzu batekin itun espezifiko bat egiteko, zerbitzu horretako kide batek prebentzio-baliabidearen funtzioak bere gain har ditzan. Bestalde, ez dago legezko eragozpenik prebentzio-jarduera espezifiko hori kanpoko prebentzio-zerbitzu batekin hitzartzeko, zerbitzu hori ohiko prebentzio-jarduera iraunkorra egiteko kontratatutako zerbitzuaz bestelakoa bada.

B) Langile esleituak

1. Hala ere, aurrekoekin batera, LAPLren 32 bis artikulua 4. apartatuak aukera ematen du enpresaburuak enpresako langile bati edo batzuei presentzia «berariaz» esleitzeko, nahiz eta prebentzio-zerbitzu propioa kide ez izan edo izendatutako langilerik ere ez izan. Horrek zalantza sortu du prebentzio-baliabideen ordezkoko figura den, eta hori erabiliz gero, ez litzatekeen azken figura hori beharko; ala figura hori prebentzio-baliabide horien osagarria ote den, eta, hori izango balitz, zer funtzio hartuko lukeen.

2. Batetik, pentsa daiteke ordezkoko figuraren ordezkoko figura osagarria dela. Adibide moduan aipatu daiteke 4. apartatuaren bigarren paragrafoan aurreikusitakoa: «Kasu horretan, langile horiek enpresaburuaren prebentzio-baliabideekin lankidetzan jardun beharko dute». Horrek adierazten du azken horiek beti egon behar dutela. Bestalde, ildo beretik, prebentzio-baliabideak zein subjektu izan daitezkeen ezartzen duen apartatuaz bestelako apartatu batean figura hori jasota egoteak pentsarazten du beste figura bat dela. Eta, azkenik, Lan arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginaren 12.15 b) artikuluan «prebentzio-baliabiderik ez egotea, nahitaezkoak direnean...» arau-haustetzat jotzen denean, esleitutako langileen presentziarik eza jaso beharko zen.

Aurrekoa gorabehera, 604/2006 Errege Dekretuak 39/1997 Errege Dekretua aldatu eta 22 bis artikulua sartu zuenean, 3. artikulua sartu zuen, eta artikulua horrek LAPLren 32 bis artikuluan ezarritakoa baino gehiago arautu zuen. Hauxe ezarri zen: «31/1995 Legearen 32 bis artikuluko 2. eta 4. apartatuetan ezarritako edozein pertsonak gauzatuko du presentzia». Handik ondorioztatzen da enpresaburuak horietako edozein izendatu edo esleitu dezakeela, bereizketarik egin gabe, beraz, enpresako langile bat izan daiteke, izendatutako langilea edo prebentzio-zerbitzu propioa kidea izan beharrik gabe. Horren arabera, izendatutako langilea prebentzio-baliabidearen ordezkoko figura bat da; beraz, behin esleituta, LAPLren 32 bis artikulua eta Erregelamendua 22 bis artikulua ezartzen duten presentzia-betebeharra betetzen da.

3. LAPLn edo Erregelamenduan ez da ezer ezartzen esleipen hori aldi baterakoa edo mugagabea izateari buruz; beraz, mugarik ez dagoenez, bi aukerak uler daitezke. Era berean, *a priori* ez dago legezkotasun edo arauzko oztoporik enpresako langile guztiei eginkizun hori bete ahal izateko behar duten prestakuntza eta kualifikazioa emateko. Hori egin ondoren, langile guztiei edo kopuru behar bezain handiari berariaz esleitu ahalko litzaike presentzia. Aurrekoa gorabehera, eta alde batera utzi gabe laneko arriskuen prebentzioaren arloko prestakuntza-ekintza oro beti ondo jaso behar

dela, ezin da ahaztu bereizketarik gabeko izendapen orokor horrek ez duela zentzurik, eta prebentzio-figura hori hutsalduko lukeela. Izan ere, enpresaburuak langile guztiak bere buruaren zaintzaile bihurtuko lituzke, eta horietako batek ere ez luke edukiko enpresaburuak esleitutako funtzio presentzialen erantzukizun zehatzik, eta hori, jakina, ez da LAPLren eta 39/1997 Errege Dekretuaren asmoa.

Gainera, 39/1997 Errege Dekretuaren 22 bis artikulua 2. apartatuak adierazten du laneko arriskuen ebaluazioak identifikatu beharko duela zer arriskutan den beharrezkoa prebentzio-baliabidea egotea, eta prebentzio-jardueraren plangintzan jaso beharko dela nola gauzatuko den presentzia hori. Horrek nabarmen murrizten du izendapen eta esleipen orokorren aurreko aukera.

C) Prebentzio-baliabidea eta koordinazioa

1. Lantokian enpresa-jarduerak koordinatzeari buruzko urtarilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuaren 13.4 artikuluan haxe ezartzen da: «Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 32 bis artikuluan aurreikusitakoa betez izendatuko den pertsona edo pertsonak enpresa horretako prebentzio-jardueren koordinazioaz arduratu ahal izango dira, enpresa horretako prebentzio-bitartekoek lantokian egon behar dutenean».

2. Eraikuntzan, kasu hori gerta liteke, printzipioz, enpresa bera obra baten sustatzailea eta kontratista nagusia bada; hortaz, pertsona bera izan liteke koordinatzailea eta prebentzio-baliabidea. Hala ere, ez da ahaztu behar 171/2004 Errege Dekretuaren 1. xedapen gehigarriak eraikuntza-obretarako berezitasunak jasotzen dituela, eta xedapen horren c) letran berariaz ezartzen dela eraikuntza-sektoreko koordinazio-bitartekoak 1627/1997 Errege Dekretuan ezarritakoak izango direla. Bada, 171/2004 Errege Dekretuaren 11. artikulua koordinazio-bitartekoak zerrendatzen ditu, eta 1627/1997 Errege Dekretuaren 3. artikuluan ezartzen da obra egiten den bitartean segurtasun- eta osasun-koordinatzaile bat koordinazio-bitarteko izendatzea. Beraz, eraikuntzaren sektorean zaila da pertsona batek aldi berean funtzioak betetzea.

Gainera, 1627/1997 Errege Dekretuaren 9. artikuluan ezartzen diren koordinazio-eginkizunak eta prebentzio-baliabidearen segurtasun- eta osasun-planean (ikus LAPLren 14. xedapen gehigarria eta 1627/1997 Errege Dekretuaren Xedapen Gehigarri Bakarra) zehazten diren neurriak eta eragiketak zaintzeko funtzioak desberdinak eta espezifikoak dira. Beraz, jarduera horrek eskatzen du koordinatzaileek ere –zehazten diren

baldintzetan– eraikuntza-obretan egotea, eta ezin dituzte funtzio horiek bertan behera utzi, prebentzio-baliabidearen figuraren kalterako.

3. Azkenik, 1627/1997 Errege Dekretuaren 11. c) artikuluan ezarritakoa aplikatuta, eraikuntza-obra batean prebentzio-baliabidea izateak ez ditu kontratistak eta azpikontratistak salbuesten Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 24. artikuluan eta 171/2004 Errege Dekretuan aurreikusitako koordinazio-betebeharrak betetzetik, Errege Dekretu horren 1. Xedapen Gehigarrian eraikuntza-obretarako jasotzen diren berezitasunak ere kontuan hartuta. Izan ere, c) letran berariaz adierazten da eraikuntza-sektoreko koordinazio-bitartekoak 1627/1997 Errege Dekretuan ezarritakoak izango direla, eta artikulua horren 3. artikuluan ezartzen da obra bat egiten ari den bitartean segurtasun- eta osasun-koordinatzaile bat izendatu beharko dela, enpresa batek baino gehiagok esku hartzen dutenean.

D) Prebentzioko ordezkariak prebentzio-baliabideak edo esleitutako langileak izatea

Galdera ugari sortzen dituen beste gai bat da enpresaburuak prebentzioko ordezkariak prebentzio-baliabide gisa edo esleitutako langile gisa izendatu ahal dituen. Aplikatzekoa den araudiaren atal bakar batean ere ez dago berriazko debekurik edo bateraezintasunik prebentzio-baliabidearen eta prebentzioaren arloko ordezkariaren artean, baina bateraezintasun hori prebentzio-figura bakoitzaren berezko funtzioetatik, ahalmenetatik eta ezaugarrietatik ondorioztatzen da.

Prebentzioko ordezkaria langileen ordezkaria da, eta enpresaren prebentzio-jardueraren egokitasuna zaindu eta kontrolatu beharko du, besteak beste. Hori dela eta, funtzio hori nekez bete ahal izango du, enpresaburuak langile izendatzen badu, edo enpresaburuaren prebentzio-zerbitzuko kide bada, kasu bietan prebentzio-jarduera enpresaburuaren izenean bete beharko baitu. Halakorik egingo balu, interes-gatazka eragingo luke, eta eragotzi egingo luke pertsona berak bi funtzio edo bi jarduera horiek aldi berean egitea, eta gauza bera esan daiteke esleitutako langileari buruz.

Aurrekoa gorabehera, salbuespenezko, ezusteko edo ezinbesteko egoeraren bat gertatzen bada, eta, horren ondorioz, prebentzio-baliabide bat presaz behar bada, eta prebentzioaren arloko ordezkaria bada beharrezko prestakuntza eta kualifikazioa dituen bakarra, kasu horretan, kontuan hartuta esleitutako funtzioak aldi baterakoak, mugatuak eta salbuespenezkoak izango direla, onargarria izan liteke enpresaburuak esleipen hori egitea. Halakoetan, kontuan hartu beharko da salbuespen bat dela, eta funtzio horiek betetzea ezin zaiola agindu edo izendatu prebentzioaren arloko ordezkari bati.

E) Izendapena edo esleipena onartzeko betebeharra

Azkenik, langileek eta sindikatuak kontsulta batzuk egin dituzte langileek enpresaren presentzia-esleipena onartzeko betebeharrari buruz, eta badirudi oso argi dagoela betebeharrak hori osatzen dela izendatutako langile bat edo prebentzio-zerbitzu propioa kide bat denean, betiere bete beharreko funtzioak eskatzen dituen prestakuntza, gaitasun edo beste edozein eskakizun betetzen badituzte, eta prebentzio-jardueraren plangintzan finkatu badira, jardura hori zaintzeak eskatzen duen arriskuaren izaera kontuan hartuta.

Langile bati presentzia esleitzen zaionean, baina aurreko izaerarik ez badu, ideia hau hartu behar da abiapuntutzat, horri erantzuteko: langileek bete behar dituztela enpresaburuak, zuzendaritza-ahalmenak erregulatze asmoz, ematen dituen aginduak eta jarraibideak (martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 5. c) artikulua). Handik aurrera, Laneko Zuzendaritza Nagusiaren irizpidea da, betiere langileak esleitutako lanak eskatzen duen trebakuntza eta prestakuntza baditu (zirkunstantzia hori ez onartzeko arrazoia izan bailiteke), funtzio berrien esleipena izan litekeela lan-harremanean enpresaburuari aitortzen zaion *ius variandi* ahalmenaren zatia, langilearen prestazioa modalizatzeko ahalmentzat hartuta, zeinak, hala ere, bere mugak baititu: Langileen Estatutuaren 39. artikuluan jasotako eskaeretan (titulazio akademiko edo profesional zehatzak, hau da, langilearen kategoriek edo lanbide-taldeek aginte- eta gainbegiratze-funtzioak barne hartzea, adibidez); Langileen Estatutuaren 41. artikuluan, lan-baldintzen funtsezko aldaketatzat hartzen denean (eta alderdien artean adostasunik ez dagoenean); langilearen eskubideetan eta giza duintasunean, baita edozein harreman juridikotan agintzen duen fede onaren printzipioaren ondoriozkoetan ere.

Nolanahi ere, langilearentzako prestazio berri horiekin batera, enpresaburuaren kontraprestazioak aurkeztu behar badira, eta alderdien artean adostasunik ez badago, lan-arloko jurisdikzioan aldarrikatu beharko dira, eta hark zehaztuko ditu.

Hauek sartu behar dira arlo horretako ikuskatze-funtzioan: prebentzio-baliabide edo esleitutako langile izendatzeko prestakuntza- eta gaitasun-baldintzak langileek betetzen dituzten; eta, lan-baldintzen funtsezko aldaketa bat gertatu baldin bada, enpresaburuak Langileen Estatutuaren 41. artikuluan ezarritako prozedura bete duen.

Laugarrena. Prebentzio baliabidearen funtzioak, ahalmenak eta bermeak

A Funtzioak

1. 39/1997 Errege Dekretuaren 22 bis artikuluko 4. apartatuan xedatutakoarekin bat:

Prebentzio-baliabide bat edo izendatutako langile bat bertan egoteko xedea egoeratik eratorritako arriskuei lotutako prebentzio-jarduerak betetzen diren zaintzea da, arrisku horien kontrol egokia lortzeko.

Aurreko funtzio hori behean ezarritakoak osatzen du. 22 bis artikuluko 4. apartatuaren hurrengo paragrafoa da, eta zaintzaren barne hauek ere hartuko direla ezartzen da:

- Plangintzan aurreikusitako prebentzio-jardueren eraginkortasuna ziurtatzea.
- Jarduera horiek prebenitu nahi diren arriskueta egokitzen diren edota aurreikusi gabeko eta prebentzio-baliabideen premia sortu duen egoeratik eratorritako arriskuak agertu diren egiaztatzea.

Halaber, 22 bis artikuluko 5. apartatuan ezartzen da zaintzaren ondorioz ikusten bada prebentzio-jarduerak behar bezala betetzen ez direla, presentzia esleitzen zaien pertsonen honela jokatu beharko dutela:

- a) Prebentzio-jarduerak modu egokian eta berehala betetzeko argibideak emango dituzte.
- b) Egoera horiek enpresaburuari jakinarazi beharko dizkiote, hark hautemandako gabezia horiek zuzentzeko beharrezko neurriak har ditzan, horiek oraindik konpondu ez badira.

2. Aurreko artikuluko irakurrita, ondorio hauek atera daitezke:

- a) Aztertzen ari garen prebentzio-figura arestian aipatutako 22 bis artikuluko 1. apartatuan adierazitako eragiketa eta jarduerak egiteko soilik pentsatu da. Hortaz, prebentzio-kontrolaren gainerako jarduerak betetzea eginkizun hori berariaz esleitu zaien pertsonen ardura da.

Gauza bera esan behar daiteke eraikuntza-obrei buruz. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 14. xedapen gehigarrian haxe ezartzen da: «Prebentzio-baliabideen presentziaren helburua laneko segurtasun- eta osasun-planeari jasotako neurriak betetzen

diren zaintzea eta neurri horiek eraginkorrak diren egiaztatzea da». Hala ere, arau hori 1627/1997 Errege Dekretuaren xedapen gehigarri bakarrean ezarritakoarekin lotu behar da: «Segurtasun- eta osasun-planak zehaztuko du prebentzio-baliabideen presentzia gauzatzeko modua».

Kontuan hartzen baditugu aurreko informazioa eta arau horren interpretazio sistematikoa (esan bezala, LAPLk eta Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduak egoera zehatzetarako baino ez dute zehazten), ondorio hau ateratzen dugu: prebentzio-baliabidearen xedea ez da segurtasun- eta osasun-planean aurreikusitako prebentzio-neurri guztiak betetzen diren zaintzea, baizik eta soilik presente egotea plan horrek prebentzio-baliabideari presente egotea agintzen dizkion kasuetan.

- b) Izendapena edo esleipena egiteko unean, enpresaburuak jarraibide zehatzak eman behar dizkio izendatutako pertsonari, zaintzapean dituen lanpostuei, lekuei edo lantokiei buruz, egin behar dituen lan zehatzei buruz eta prebentzio-jardueraren plangintzan jasotako prebentzio-neurriei buruz.

Era berean, prebentzio-baliabideari jakinarazi behar zaio zer prozedurari jarraitu behar dion enpresaburuari prebentzio-jardueren akatsen berri emateko, baldin eta, oharrak egin arren, akats horiek zuzendu ez badira (39/1997 Errege Dekretuaren 22 bis artikulua 5 b) apartatua); eta, berdin, prebentzio-neurriak falta badira, gutxiegi badira edo prebentzio-neurriak egokiak ez badira.

- c) Bestalde, prebentzio-baliabideak beste langile batzuei jarraibideak eman behar dizkie prebentzio-jarduerak behar bezala eta berehala betetzeari buruz. Hori dela eta, enpresaburuak enpresako gainerako langileei jakinarazi beharko die zer langileri esleitu zaion presentzia hori; horren ondorioz, langile horiek jakingo dute nor den enpresaburuak izendatutako langilea eta haren jarraibideak bete behar dituztela (39/1997 Errege Dekretuaren 22 bis artikulua 3 zenbakia).

- 3. Azkenik, prebentzio-baliabideek edo esleitutako langileek beren eginkizunak eskusibotasunez bete behar dituzten ala bestelako eginkizunekin –adibidez, ekoizpen-funtzioekin– bateratu ahal dituzten zehazteko gaiari ere heldu behar zaio.

39/1997 Errege Dekretuaren 22 bis artikuluko 7. apartatuan ezartzen da enpresaburuak lantokiko prebentzio-baliabideen jarduna LAPLren 32 bis artikuluan ezarritako kasuez bestelako kasuetarako ere baliatu ahalko duela, baldin eta funtzioak bateragarriak badira.

Prebentzioko langileek edo esleitutako langileek jarduera, eragiketa edo prozesu zehaztetan (LAPLren 32 bis 1 artikulua) prebentzio-neurrien

aplikazioa zaindu behar dutenez, eragiketa horiek egiten ari diren bitartean ezinbestekoa izango da baliabide horiek bertan egotea.

Jarduera horiek gauzatzen ez direnean, ez dago eragozpenik prebentzio-baliabideak beste ekoizpen- edo prebentzio-jarduera bat egin dezan; eta ez litzateke eragozpenik egongo, zaintzarekin batera, beste produkzio-jarduera bat egiteko (berak jardueretan, eragiketetan edo prozesuetan parte hartzen badu, edo zaindu behar diren lan-metodoak aplikatzen baditu), betiere zaintza-lana kaltetzen ez bada.

Edonola ere, erantzuna emateko, kasu zehatzari eta zaindu behar duen jarduera motari erreparatu behar zaio, eta alderdi horiek prebentzio-jardueraren plangintzan edo segurtasun-planean jaso behar dira, eraikuntza-obra bat bada, 39/1997 Errege Dekretuaren 22 bis 2 artikulua 3. paragrafoan eta 1627/1997 Errege Dekretuaren Xedapen Gehigarri Bakarraren a) letran dokumentu horietan prebentzio-baliabideen presentzia gauzatzeko moduari buruz ezarritakoaren arabera.

B) Ahalmenak eta bermeak

Prebentzio-baliabideen edo «esleitutako» langileen ahalmenei dagokienez, aurreko atalean aipatu dugun 39/1997 Errege Dekretuaren 22 bis artikulua 5. apartatuan jasotako ahalmenak dira. Hauek ahalmen horien barne hartzen dira: arriskua sortzen duen lanaren arduradunei jarraibideak ematea prebentzio-jarduerak behar bezala eta berehala bete ahal ditzaten; eta enpresaburuari topatutako akatsen berri ematea, baldin eta jarraibideak eman ondoren zuzentzen ez badira, prebentzio-neurririk ez badago, nahikorik ez badira edo egokirik ez badira.

Arauk ez dio espresuki esleitzen lanak geldiarazteko ahalmena, langileen legezko ordezkari (LAPLren 21.3 artikulua), Lan Ikuskaritzari (LAPLren 44. artikulua) edota obra edo zuzendaritza fakultatiboa gauzatzen den bitarteko segurtasun- eta osasun-koordinatzaileei (1627/1997 Errege Dekretuaren 14. artikulua) esleitzen dizkien modu berean. Hala ere, ez da eragozpenik egongo enpresaburuak, bere zuzendaritza-ahalmena erabilita, prebentzio-baliabideari langileen jarduera eteteko ahalmena emateko, haien artean zehazten diren kasuetan eta baldintzetan.

Eta, bermeei dagokienez, prebentzio-baliabide gisa «izendatutako langileak» edo «prebentzio-zerbitzu propioak osatzen dituzten langileak» izendatzen badira, 31/1995 Legearen 30.4 artikulua langileen ordezkari entzat aurreikusitako bermeei egiten die erreferentzia, zehazki, Langileen Estatutuaren Legearen 68. artikuluko a), b) eta c) letretan eta 56. artikulua 4. apartatuan ezarritako bermeei.

Hala ere, ez da ezer esaten LAPLren 32 bis artikuluko 4. apartatuan aipatzen diren langileei buruz. Laneko Zuzendaritza Nagusiak, 2009ko otsailaren 27ko kontsultan, adierazi zuen haiek ez dituztela izendatutako langileen edo prebentzio-zerbitzu propioko kideen berme berberak. Hala eta guztiz ere, Lan-Jurisdikzioak alderdi horri buruzko irizpena eman behar du, eragindako langileek berme horiek erreklamatzearen ondorioz sortutako gatazkak direla-eta.

Bosgarrena. Prebentzio-baliabideak gaitzea eta prestatzea

1. Legearen LAPLren 32 bis artikulua 3. apartatuan haxe baino ez da jasotzen: «Prebentzio-baliabideek... behar bezalako gaitasuna eta behar diren bitartekoak izan beharko dituzte, eta behar adinakoak ere izan beharko dute...», baina ez du zehazten pertsona horiek izan behar duten gutxieneko prestakuntza. Hala ere, langile izendatua edo bertako zein kanpoko prebentzio-zerbitzuko kidea izango denez, kontuan hartu beharko da 39/1997 Errege Dekretuan horri buruz ezarritakoa (13., 15. eta 18. artikuluetan). Hortik ondorioztatzen da pertsona horiek bete behar dituzten funtzioak betetzeko gaikuntza eta prestakuntza egokiak izan beharko dituztela.

Laugarren apartatuak informazio gehiago ematen digu. Bertan ezartzen da kasu horretako «langile izendatuek» izan behar duten kualifikazioa: «... Behintzat, oinarritzko mailako funtzioei dagokien prebentzio-prestakuntza eduki behar dute».

Idazketa horretatik argi eta garbi ondorioztatzen da gerta litekeela zenbait kasutan oinarritzko mailako funtzioetarako gaitzen duena baino prestakuntza handiagoa behar izatea.

Arau hori esleitutako langileak izan behar duen kualifikazioari buruzkoa bada ere, prestakuntza hori abiapuntu bihurtzen da prebentzio-baliabideari prebentzioaren arloan eskatu behar zaion gutxieneko prestakuntza ezartzeko orduan. Beraz, arau orokor gisa, langile horrek oinarritzko mailako funtzioei dagokien prebentzio-prestakuntza izan beharko du: «Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduaren 35. artikulua arabera, prestakuntza horren garapenak gutxienez 50 orduko iraupena izango du, I. eranskinean jasotako jardueraren bat garatzen duten enpresak direnean; eta 30 ordukoa, gainerako kasuetan». Izan ere, gerta daiteke I. eranskinean aipatzen diren lanetako bat ere garatzen ez duen enpresa bat egotea, baina bai, ordea, prebentzio-baliabide baten premia sortzen duten eragiketa batzuk egitea (garaiera-arrisku bereziko lanak, espazio itxietako lanak eta abar).

2. Salbuespen hauek aipa ditzakegu, prebentzio-baliabideak eta esleitutako langileak izan behar duten oinarritzko mailako prestakuntzaren arau orokorrari buruz:

- a) Alde batetik, Lan Zuzendaritza Nagusiaren 2007ko abuztuaren 1eko Ebazpenaren bidez argitaratutako Eraikuntzaren Sektoreko IV. Hitzarmen Orokorraren 158. artikuluan ezartzen da eraikuntzako oinarritzko mailako prestakuntzaren edukiak gutxienez 60 orduko iraupena izango duela. Horri buruz esan behar da hitzarmena indarrean jarri baino lehenago 50 orduko prestakuntza zeukatenek ez dutela 60 ordu arteko prestakuntza osatu beharrik.
- b) Bestalde, oinarritzko mailako funtzioen prestakuntza baliokidea nahikoa izan daiteke, LAPLren 32 bis artikuluan jasotako kasuak direnean. Hala ere, lan arriskutsuetan edo arrisku bereziak sortzen dituzten lanetan –lan horiek goietatik erortzeko, ehorzteko, itotzeko, espazio itxietan lan egiteko, EE markarik gabeko makinak erabiltzeko arrisku bereziki larriak eragiten dituztelako– prebentzio-neurriak betetzen diren zaindu behar denean, eta prebentzio-neurrien eraginkortasuna edo egokitasuna zehaztu behar direnean, badirudi kasu horietan prebentzio-baliabideak oinarritzko mailako prestakuntza izatea ez dela nahikorik izango, prestakuntza horrek oinarritzko ebaluazioak egiteko eta izaera bereko prebentzio-neurriak ezartzeko baino ez baitu gaitzen, eta arrisku horiek detektatzeko beharrezkoa den ezagutza teknikoa (adibidez, hilobiratzeko arriskua) edo prebentzio maila zailtasun handikoa izaten delako (espazio itxiei, lan-ekipamenduei eta abarri lotuta).

Egoera hori konpontzeko, erdi mailako edo maila handiagoko prestakuntza duen langile bat izendatu ahal izango da, kasuan kasuko arriskuen arabera, edo, bestela, oinarritzko mailako prestakuntzaz gain, prestakuntza osagarria eta gehigarria eman ahal izango da, arrisku jakin bati edo batzuei berariaz lotuta, hala nola lan-ekipo batzuen erabileran, lantoki itxietan eta abarretan sortzen diren arriskuei buruz.

- c) Azkenik, kontuan hartu behar da, halaber, 171/2004 Errege Dekretuaren 13.4 artikulua haxe xedatzen duela: «31/1995 Legearen 32 bis artikuluan aurreikusitakoa betetzea esleitzen zaien pertsonak prebentzio-jarduerak koordinatzeaz ere arduratu ahal izango dira». Halaber, erregelamendu beraren 14.4 artikulua haxe gehitzen du: «prebentzio-jarduerak koordinatzeaz arduratzen diren pertsonak, gutxienez, tarteko mailako funtzioei dagokien prebentzio-prestakuntza izan beharko dute». Horrenbestez, eraikuntza-kasuetatik kanpo –ikus bezala nekez txerta daitekeelako– prebentzio-jarduerak koordinatzeko funtzioa eta prebentzio-baliabide izateko lana pertsona berari esleitzen zaizkionean,

pertsona horrek erdi mailako prestakuntza izan beharko du, horixe eskatzen baita prebentzio-jardueren koordinatzaile izateko.

3. Horrenbestez, izendatutako langilearen funtzioak bete ahal izateko, adierazitako gutxieneko prestakuntzaren eskakizunarekin batera (oinarrizko maila eta, kasu batzuetan, tarteko maila edo arrisku zehatzei buruzko oinarritzko mailaren prestakuntza osagarria), aztertzen ari garen araudiak eskatzen du langile horiek «gaitasun nahikoa» izatea, prebentzio-baliabideei dagokienez; eta, esleitutako langileei dagokienez, ordea, «ezagutzak, kualifikazioa eta esperientzia».

Nolanahi ere, gorago adierazi den bezala, prebentzio-baliabideek edo funtzio horiek betetzeko izendatutako langileek izan behar dituzten prestakuntzari eta gaikuntzari buruzko zehetasunak prebentzio-jardueraren plangintzan edo segurtasun- eta osasun-planean jaso behar dira, eraikuntza-obra bada. Izan ere, 39/1997 Errege Dekretuaren 22 bis 2. artikulua 3. apartatua edo 1627/1997 Errege Dekretuaren Xedapen Gehigarri Bakarraren a) letran adierazitakoaren arabera, dokumentu horietan jaso behar da prebentzio-baliabideen presentzia gauzatzeko modua.

Seigarrena. Prebentzio-baliabideen arloko arau-haustek

Prebentzio-baliabideen eta esleitutako langileen arloan enpresaburuak egin ditzakeen arau-hausteei dagokienez, eta gaiarekin lotuta egon daitezkeen beste jokabide edo ez-egite batzuk ere kontuan hartuta, hauek aipa ditzakegu:

1. Prebentzio-baliabiderik ez egotea edo bere betebeharrak ez betetzea.

Arau-hauste hori Lan arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginaren 12.15 b) artikuluan jasota dago, hauxe hartzen du arau-hauste astuntzat: «Prebentzio-baliabideak ez egotea, bertan egotea nahitaezkoa denean, edo baliabide horiek bertan egotetik eratortzen diren betebeharrak ez betetzea».

Bestalde, Lan arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginaren 13.8 artikuluko b) apartatua hauxe ezartzen da: «Beharrezkoa den kasuetan prebentzio-baliabideak ez egotea edo horien presentziatik eragindako betebeharrak ez betetzea, erregelamendu bidez arriskutsu edo arrisku bereziko jardueratzat hartzen direnean».

Manu horri dagokionez, kontuan hartu behar da 39/1997 Errege Dekretuaren 12. xedapen gehigarrian ezarritakoa: «Lan Arloko Arau-hausteei eta Zehapenei buruzko Legearen 13.8 b) artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, jarduera

arriskutsutzat edo arrisku bereziak dituzten jardueratzat hartzen dira Errege Dekretu honen 22 bis 1 b) artikuluan jasotakoak». Hala ere, azpimarratu behar da 31/1995 Legearen 14. xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, eraikuntza-sektoreko enpresa bat denean, jarduera arriskutsutzat edo arrisku bereziko jardueratzat hartuko direla 1627/1997 Errege Dekretuaren I. eranskinean jasotakoak.

Beraz, Prebentzio Zerbitzuaren Erregelamenduaren 12. xedapen gehigarriak Lan arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginaren 13.8 b) artikuluari buruz –prebentzio-baliabideen arloko arau-hauste oso astuna– egiten duen interpretazioaren eta garapenaren arabera, arau-hauste oso astuntzat joko da, Prebentzio Zerbitzuaren Erregelamenduaren 22 bis 1 b) artikuluan edo 1627/1997 Errege Dekretuaren eraikuntzari buruzko I. eranskinean jasotako jarduera arriskutsuak edo arrisku bereziko jarduerak direnean.

Prebentzio-baliabiderik ez egoteagatik edo betebeharrak ez betetzeagatik osatzen den arau-hausteari dagokionez, gogoeta hauek egin behar dira:

- a) Enpresak langile bati bertan egoteko funtzioa esleitu badio (ikus 32 bis artikuluko 4. zenbakia), joko da jokabide hori ez dela osatu. Izan ere, irizpide tekniko honen 3. b) apartatuan adierazi dugun bezala, figura hori beste aukera bat izan daiteke, prebentzio-baliabidearen ordeztu, eta bertan egoteko betebeharra beteko litzateke esleitutako langilea bertan dagoenean.
- b) «Nahitaezkoa denean» aipatzeak berekin ekartzen du LAPLren 32 bis artikuluen a) eta b) letretan eta Erregelamenduaren 22 bis artikuluan adierazitako kasuetako bat izatea, adierazitako baldintzetan. Bestalde, c) letrako kasuetan eskatzen da Lan Ikuskaritzak aldeztu aurretik errekerimendua egin izana eta enpresak errekerimendu hori bete ez izana.
- c) Arau-hauste horretan sartu behar dira prebentzio-baliabide bat edo esleitutako langile bat egotea, baina pertsona horrek ez betetzea 5. apartatuan aipatu ditugun prestakuntza-, gaikuntza- edo esperientzia-eskakizunak.
- d) Halaber, arau-haustea osatu dela joko da, prebentzio-baliabidea kanpoko prebentzio-zerbitzuko kide bat denean eta haren presentzia gauzatzeko prozesuan itunaren baldintzak bete ez direnean, hargatik eragotzi gabe enpresaburuak kanpoko prebentzio-zerbitzuaren arduradunari erantzukizuna eskatzea eta Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzaren ondorioz beste erantzukizun batzuk zehaztea, itunaren baldintzak ez betetzeagatik, Lan-arloko Arau-hausteei eta Zehapenei buruzko Legearen Testu Bateginaren 12.22 artikuluan zehaztutako arau-hauste bat izan daitekeelako.

- e) Aztertzen ari garen arau-hauste mota horretan sartzen da, halaber, prebentzio-baliabidea izendatu eta enpresan egon arren, prebentzio-baliabide horrek ez betetzea arauan ezarritako gainerako betebeharrak, hala nola langileei jarraibideak ematea eta enpresaburuari zaintza-lanean ikusitako akatsen berri ematea.

2. Prebentzio-baliabideari ez ematea behar dituen bitartekoak.

Lan-arloko Arau-hausteei eta Zehapenei buruzko Legearen Testu Bateginaren 12.15 artikuluen a) apartatuan arau-hauste astuntzat jotzen dira hauek: «Prebentzio Baliabideei prebentzio-jarduerak egiteko behar besteko baliabiderik ez ematea.» Arau-hauste mota hori lotu behar da LAPLren 32 bis artikuluen 3. apartatuarekin: enpresak prebentzio-baliabideei eman behar dizkie prebentzio-jarduerak betetzen diren zaintzeko behar dituzten bitartekoak.

3. Larriagotu edo alda daitezkeen arriskuak ez zehaztea edo arriskuen ebaluazioa edo segurtasun- eta osasun-plana egiteko premia sortzen duten lanak ez identifikatzea.

Kasu horretan, Lan arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginaren 12.1 b) artikuluan aipatzen den arau-haustea izango da (arriskuen ebaluazioak ez egitea...); edo, hala badagokio, Lan arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginaren 12.23 a) artikuluan ezarritakoa (segurtasun- eta osasun-planean prebentzio-araudian ezarritako edukia eta irismena jasotzeko betebeharra ez betetzea...).

4. Gauza bera esan daiteke prebentzio-jardueraren plangintzak prebentzio-baliabideak edo eraginpeko langileak egoteko modua aurreikusten ez badu. Kasu horretan, Lan arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginaren 12.6 artikuluan tipifikatutako arau-haustea izango da («prebentzio-jardueraren plangintza egiteko betebeharra ez betetzea...»).

Eraikuntza-obretan egoera hori segurtasun- eta osasun-planean aurreikusita ez badago, 1627/1997 Errege Dekretuaren xedapen gehigarri bakarrak ezartzen duen bezala, Lan-arloko Arau-hausteei eta Zehapenei buruzko Legearen Testu Bateginaren 12.23 a) artikuluan zehaztutako arau-haustea osatuko da.

5. Langileei prebentzio-baliabidea nor den edo esleitutako langileak zein diren ez jakinaraztea. Kasu horretan, Lan arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginaren 12.8 artikuluan jasotako arau-haustea osatuko da (prestakuntzaren eta informazioaren arloko betebeharrak ez betetzea...), arau-hauste oso astuna ez bada.

Zazpigarrena. Laburbiltzea

Irizpide tekniko honetan gai ugari jorratu nahi izan ditugu, besteak beste, prebentzio-araudiaren zaintzaren arloko ikuskapen-funtzioa betetzean sortzen diren gai batzuk eta enpresei eta langileei ikuskapen-funtzioa betetzeko lanetan laguntza teknikoa eman behar zaienean sortzen diren beste gai batzuk ere bai. Hortaz, egokitzen jotzen dugu laburpen bat egitea, azken laburpen gisa, prozesuan zehar garatu diren irizpide nagusiak jasotzeko:

1. Prebentzio-baliabideen presentzia noiz den nahitaezkoa

Eraikuntza-obretako arriskuen ebaluazioan edo segurtasun- eta osasun-planean zehaztu behar dira ondoz ondoko edota aldibereko eragiketengatik larriagotu edo aldatu daitezkeen arriskuak. Halaber, bertan zehaztu behar dira zer lanetan edo jardueratan prozesu arriskutsuak edo arrisku bereziak dauden, eta, hartara, prebentzio-baliabideen presentzia behar duten, LAPLren 32 bis artikulua 1 a) eta b) zenbakietan ezarritakoaren arabera.

Lan Ikuskaritzak kasu hauetan ere prebentzio-baliabide baten presentzia eska dezake: enpresaburuak hartutako prebentzio-neurriak desagokiak direnean edo LAPLren 15. artikuluan ezarritako prebentzio-jardunaren irizpideak koherentziaz eta erantzukizunez aplikatzeko moduarekin bat etortzen ez direnean. Errekerimendua aldi baterakoa izango da, enpresaburuak neurriak zuzentzen dituen bitartean, eta LAPLren 43. artikuluan ezarritako eskakizunen arabera osatuko da.

Prebentzio-baliabide bat izendatzea neurri osagarria da, eta ez du ordezkutzen enpresaburuak LAPLren 14. artikulua arabera hartu behar dituen babes-neurriak hartzeko betebeharra.

Bi metrotik gorako garaierako edozein arrisku ez da «toki garai batetik erortzeko arrisku bereziki larritzat» hartu behar; beraz, guztiek ez dute sortuko prebentzio-baliabide baten premia. Premia hori sortzeko beste inguruabar edo elementu gehigarri batzuk ere gertatu beharko dira.

2. Zein enpresak izendatu edo esleitu behar dituzten

Eraikuntzakoa ez den beste sektore bateko lantoki batean enpresa batek baino gehiagok jarduten dutenean, presentziaren premia sortzen duten jarduerak zer enpresak egiten dituen, enpresa horrek esleitu edo izendatu beharko du (ikus Errege Dekretuaren 22 bis artikulua 9. apartatua),

Irizpide Teknikoan ezarritako baldintzetan. Eraikuntzaren sektorean, ordea, betebeharra kontratistak soilik bete beharko du, eta kontratistak azpikontratistei betebehara hori betetzeko eskatzen badie, oinarria kontratuaren arabera izango da, baina ez legezkoa edo arauzkoa.

3. Funtzioen esleipena nork jaso dezakeen

LAPLren 32 bis artikulua 4. apartatuan esleitutako langilea prebentzio-baliabidearen ordezkoko figura bat da; beraz, haren esleipena eginda, prebentzio-baliabidea izendatzeko betebehara betetzen da.

Prebentzio-baliabideak prebentzio-jarduerak koordinatzeaz ere arduratu ahal izango dira, baina eraikuntzakoak ez diren kasuetan soilik.

Eraikuntza-obretan prebentzio-baliabidea egoteak ez du koordinatzailea salbuesten bere eginkizunak betetzetik, ezta obran bertan egoteko betebeharetik ere, eginkizun horiek bete behar baditu.

Egoera oso ezohikoetan izan ezik, prebentzio-baliabideen funtzioak ezin zaizkie prebentzio-ordezkariei esleitu.

4. Funtzioak, ahalmenak eta bermeak

Prebentzio-baliabideek zainduko dute prebentzio-jarduerak betetzen diren, baina manu hauetan zehaztutako kasuetan baino ez: LAPLren 32 bis artikuluko 1. apartatuan eta 39/1997 Errege Dekretuaren 22 bis 1 artikuluan aipatutako kasuetan, irizpide tekniko honetan adierazitako baldintzetan. Enpresako gainerako prebentzio-jardueren prebentzio-kontrola egitea dagokie funtzio hori berariaz esleituta duten pertsonari (enpresaburuari berari, izendatutako langileei edo prebentzio-zerbitzuei).

Ez da egokia izendapen orokor eta bereizi gabea egitea eta langile guztiak edo gehienak izendatzea, enpresa bateko prozesu, lanpostu edo lantoki guztiei dagokienez, prebentzio-figuraren balioa hutsalduko litzatekeelako. Funtzioen izendapen edo esleipenak zehatza eta espezifikoak izan behar du. Gainera, langileek jakin behar dute arrisku jakin baterako prebentzio-baliabidea zein den eta beren jarraibideak bete behar dituztela.

Bere ahalmenetako bat ez da lanak geldiaraztea, LAPLren 21.3 eta 44. artikuluetan eta 1627/1997 Errege Dekretuaren 14. artikuluan ezarritakoaren arabera. Hala ere, enpresaburuak ahalmen hori eman diezaioke, batzuetan komenigarria ere izan daitekeelako.

5. Prebentzio-Baliabideak gaitzea eta prestatzea

Prebentzio-baliabide gisa izendatzen diren edo baliabide horiei dagozkien funtzioak esleituta dituzten langileek, gutxienez, oinarrizko mailako funtzioei dagokien prebentzio-prestakuntza izan behar dute (ikus 39/1997 Errege Dekretuaren 35. artikulua). Eraikuntza-sektorea bada, prestakuntzako gutxieneko ordu-kopurua 60 izango da. Kasu jakin batzuetan (adibidez, lan arriskutsuak direnean), beharrezkoa izan daiteke erdi mailako prestakuntza edo maila handiagokoa izatea, edo, bestela, oinarrizko prestakuntzaren prestakuntza osagarria izatea.

Behar den prestakuntzaz gain, izendatutako edo esleitutako langileak funtzioak betetzeko behar besteko gaitasuna izan behar du. Gaitasun hori, besteak beste, jarduera edo prozesuetan bete behar dituen funtzioak betetzeko ezagutzak, kualifikazioa eta esperientziak izatea izan daiteke. Inguruabar horiek prebentzio-jardueraren plangintzan edo eraikuntza-obren segurtasun-planean zehaztu behar dira.

Zortzigarrena. Indargabetzea

Ondorio guztietarako indargabetuta geratzen da, gaurtik aurrera, «Prebentzio-baliabideen presentzia, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailtzak eskatuta» izeneko 39/2004 Irizpide Teknikoa.

Madril, 2010eko maiatzaren 5a

Zuzendari Nagusia
Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailtzaren Agintari Nagusia

Raimundo Aragón Bombín

Zuzendariorde Nagusi jaunak, Zuzendari Berezi andrea,
Lurraldeko Zuzendari jaunak eta Ikuskaritza Buru jaunak

